

NAFARROAKO GAZTEEN DIAGNOSTIKOA 2024

Instituto
Navarro de
la Juventud



Nafarroako
Gazteriaren
Institutua

AURKIBIDEA.

0. TESTUINGURUA.....	4
1. GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKAK.....	6
GAZTERIA POLITIKEN PLANGINTZA, FUNTSEZKO ALDERDIA.....	6
GAZTERIAREN III. FORU PLANAREN EBALUAZIOA	8
GAZTERIAREN POLITIKETARAKO TRESNAK.....	10
GAZTERIAREN ARLOKO TOKIAN TOKIKO POLITIKAK.....	12
GAZTERIAREN ZINEGOTZIGOAK ETA TEKNIKARIAK	13
GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKAREN UDAL PLANGINTZA	14
2. GAZTEAK.....	16
GAUR EGUNGO BIZTANLERIA ETA AZKENALDIAN IZANDAKO BILAKAERA.....	16
GAZTEEN PISUA.....	18
BIZTANLE GAZTEEN PRESENTZIA EREMUZ EREMU	19
GAZTEEN EZAUGARRIAK.....	22
GAZTE ETORKINAK.....	24
GAZTERIAN IZANDAKO BAJAK	28
3. JARDUERA EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA	32
LANERAKO ADINEAN DAUDEN BIZTANLEAK ETA BIZTANLERIA AKTIBO GAZTEA.....	34
LANGABEZIA ETA BIZTANLERIA GAZTE AKTIBOAREN OKUPAZIOA	39
SOLDATAPEKO BIHURTZEA ETA EKINTZAILETZA	45
KONTRATAZIOA, PREKARIETATEA ETA PARTZIALTASUNA	45
4. EMANTZIPAZIOAREN ERRONKA	47
ETXEBIZITZA, EMANTZIPAZIORAKO FUNTSEZKO ELEMENTUA	55
ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK	59
5. AISIA OHITURAK ETA ASTIALDIAREN ERABILERA	65

AISIRAKO DENBORA, OHITURAK ETA GASTUA	66
PANTAILAK, AISIRAKO ETA SOZIALIZATZEKO GUNEAK	68
SUBSTANTZIEN KONTSUMOA, AISIAREKIN LOTUTA	70
6. ONGIZATEA ETA OSASUNA	73
GAZTEEN HERIOTZA-TASA ETA KAUSA NAGUSIAK	73
GAZTEEN IKUSPEGIA BEREN OSASUNAZ	76
OSASUN OHITURAK.....	77
SEXU OSASUNA ETA PORNOGRAFIA.....	81
SALUD SEXUAL Y PORNOGRAFÍA	82
7. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA	90
ESKOLATZE-TASA GARBIA	90
ESKOLA UZTE GOIZTIARRA.....	92
UNIBERTSITATEKO IKASKETA PRESENTZIALAK EGITEN ARI DIREN GAZTEAK	94
PRESTAKUNTZA MAILA, PRESTAKUNTZA ZIKLOEN ARABERA.....	94
HEZKUNTZA EZ-FORMALA.....	95
8. GENERO BERDINTASUNA GAZTEEN ARTEAN	98
GENERO BERDINTASUNAREN PERTZEPZIOA.....	99
GENERO INDARKERIA	100
ZAINZAK ETA ERANTZUKIDETASUNA.....	103
9. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO TEKNOLOGIAK, ETA HAIEN ERAGINA.....	107
GAZTEAK ETA INFORMAZIOA	108
SARE SOZIALEN ERABILERA	111
JOKABIDE ARRISKUTSUAK.....	112
ADIMEN ARTIFIZIALA, ESPLORATU BEHARREKO EREMUA	113
10. BALIO ZIBIKOAK ETA AKTIBISMOA	116
GAZTEAK ETA POLITIKA.....	116
TOLERANTZIA.....	119

PARTE-HARTZEA ETA ASOZIAZIONISMOA	121
GAZTEAK ETA INGURUMENA	122
11. SINTESIA.....	126
ERANSKINAK	147

0. TESTUINGURUA.

Gazteei buruzko 2024ko diagnostikoaren helburu nagusia da populazio horrek gaur egun duen egoerari buruzko irudi dinamikoa erakustea.

2024. urtea funtsezko ekitaldia izanen da Nafarroako gazteriaren arloko politika publikoak eguneratzeari dagokionez. Gazteriaren Foru Estrategia berriaren eta horren ondoriozko Gazteriaren Foru Planaren lanketak datozen urteetan ezarri beharreko politiken norabidea zehaztuko dute. Maila honetan, handia da erronka; izan ere, landu beharreko egungo erronkez gain, arazo berriak azaltzen dira, bereziki gazteei eragiten dietenak eta kontuan hartu behar ditugunak. Logika horren barruan, diagnostiko honek hainbat modutan islatu nahi du errealitatea, oinarria izanen baita planifikazioa egiteko, kasu batzuetan, eta/edo, beste batzuetan, gaian sakontzeko.

Etorkizuneko plangintzarako oinarria izateaz gain, diagnostiko hau gazteen egungo egoera orokorra erakusten duen tresna ere bada, abiapuntutzat hartuta egungo biztanleria Nafarroako azken urteetako historian izan den biztanleria askotarikoena dela, maila guztietan. Horregatik, kasu askotan, diagnostiko honek ez du balio aniztasun horren berezitasunetan sakontzeko.

Azkenik, aitzinsolasean ezinbestean aipatu behar da ezen, azterketari dagokionez, diagnostiko hau egiteko izan den egoera oso bestelakoa izan dela aurreko azterketakoarekin alderatuta. Izan ere, pandemiaren ondorengo urteetan, oso bestelako egoera izan da. Aurreko azterketa eta plangintza zikloa aparteko egoera batean egin zen, Nafarroako egungo gizartean ia aurrekaririk izan ez duen egoera konplexu batean. Zorionez, pandemiaren baldintzatzaile eta ondorio gehienak atzean gelditu dira, eta 2020an eta 2021ean baino egoera normalizatuagoa dugu aurrean.

Hala eta guztiz ere, gazteek erronka handiei aurre egin behar diete oraindik, maila guztietan konplexutasun handia duen gizartea baita egungoa. Gaztaroa, pertsonen bizitzako funtsezko etapa bat izateaz harago, berebiziko garrantzia duen unea da, orduan eratzen baita gizartearen oinarria. Hori dela eta, funtsezkoa da zer arazo, erronka, indar eta aukera diren jakitea, pertsonen bizitza hobetuko duten politika publikoak sustatzeko eta, horrela, Nafarroako gazte guztientzat gizarte bidezkoago bat eraikitzeko.

METODOLOGIA.

Diagnostiko hau egiteko erabilitako metodologiak bi modalitate osagarri izan ditu oinarri.

Alde batetik, lehen mailako informazio desberdinarekin lan egin da, diagnostikoaren adierazle garrantzitsuak kalkulatzeko (datu demografikoak, ekonomikoak, hezkuntzakoak, etab.). Horretarako, «Nafarroako gazteen adierazleen panelean» ezarritako adierazleen kalkulua hartu da oinarri (baina ez hori bakarrik), eta adierazle berri batzuk gehitu dira, beharren arabera.

Beste aldetik, zenbait ikerlan, argitalpen eta monografiko hartu dira oinarri diagnostikorako; izan ere, lan horiei esker, informazio garrantzitsua lortu ahal izan da lehen mailako datu gutxi zituzten ataletarako. Lan horiek guztiak dokumentu honen 2. eranskinean daude zehaztuta.

Nolanahi ere, erabilitako datuez eta informazioaz harago, lanaren alderdi garrantzitsu bat izan da edukiari buruzko interpretaziozko hausnarketak txertatzea, azterketa hori oinarria izan dadin gazteriaren arloko politika publikoen berehalako plangintza prozesuan.

1. GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKAK

GAZTERIA POLITIKEN PLANGINTZA, FUNTSEZKO ALDERDIA.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak tradizio luzea du plangintza propioko tresnak —Nafarroako gazteei begira landu beharreko helburuak, ardatzak, ekintzak eta abar ordenatzen eta lehenesten dituztenak— **izateari dagokionez**, eta hori oso positiboa da, hausnarketa eta azterketa serioa bermatzen baititu, ahalegina zertan egin behar den erabakitzeko. Institutuaren ibilbide hori berme handia da hurrengo plangintza aldirako bidean aurrera egiteko, zeinetan aztertuko baita zer erronka berriri egin behar dieten aurre Nafarroako gazteek beren bizi eta garapen prozesuan.

Nafarroako Gazteriaren Institutuaren azken plangintza aldian, oinarrizko bi tresna diseinatu ziren, zailtasun handiko testuinguru sozial batean (Covid-19ren pandemia betean). Konplexutasun sozial handiko aldi horrek berariazko eragina izan zuen gazteriaren berezko alderdi askotan.

Lehenik eta behin, 2020-2023 Gazteriaren Foru Estrategia oinarrizkat hartu zen egiturari eta zeharkakotasunari loturiko ardatzei dagokienez plangintza finkatzeko. Maila estrategikoan, hainbat ardatz zehaztu ziren:

AUZOLAN ARDATZA	Lan arloak
	Asoziazionismoa
	Gizarteratzea, bizikidetza eta generoa
	Boluntariotza
	Lurralde garapena
	Hizkuntza politika
	Aisia eta astialdia
EMANTZIPAZIO ARDATZA	Lan arloak
	Hezkuntza formala
	Hezkuntza ez-formala

	Etxebizitza
	Enplegua eta laneratzea
HORIZONTE ARDATZA	Lan arloak
	Osasuna
	Kultura
	Mugikortasuna
	Kontsumoa
	Kirola
	Bizitzaren jasangarritasuna

Baina egiturazko ardatzez gain, Estrategian zeharkako zenbait ardatz ere zehaztu ziren:

- Partaidetza.
- Gizarteratzea eta aniztasuna
- Berdintasuna.
- Lurralde kohesioa.

Estrategia hori izan zen, hain zuzen, 2021-2023 aldirako **Gazteriaren III. Foru Plana** egiteko oinarria. Gazteriaren III. Foru Planaren helburu nagusia izan zen 2021-2023 urteetarako Nafarroako gazteria politiken printzipioak, jarduera ardatzak eta ekintza ildoak modu antolatu eta egituratuan deskribatzea eta definitzea.

Hala, Gazteriaren III. Foru Planaren ikuspegi hurbilago bat izateko, garrantzitsua da plan horretan zer helburu ezarri ziren nabarmentzea:

- **Gazteriaren arloko politika publikoen posizionamendua areagotzea**, NGIak eta Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuek egindako ekintzak, proiektuak eta proposamenak antolatuz.
- Ekintzara bideratutako plangintza egitura guztia **ordenatzea eta antolatzea**.
- Planean jasotzen diren ekintzak aurrera eramateko behar diren **baliabide teknikoak eta ekonomikoak** ematea.
- Behar berriei lotutako bestelako jarduerak eta programak aurrera eramateko **jarduketa esparruak zehaztea**.

Diagnostiko honen xedea ez da Gazteriaren III. Foru Planaren egitura eta edukia dokumentu honetan xehatzea, horretarako dagokion dokumentua kontsulta baitaiteke. Hau da, asmoa da nabarmentzea **zein positiboa den Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazteriaren arloko politikak garatzeko plangintza tresna bat eduki izana**. Horrek, zalantzarik gabe, eragin positiboa du Nafarroako gazterian.

Gazteriaren Foru Estrategia eta Gazteriaren III. Foru Plana egiten lagundu duen alderdi aipagarri bat **parte-hartzea** izan da, bai gazteena, bai gazteekin lotutako beste eragile batzuen. Oso positiboa da gazteen eta haiekin lotutako pertsonen ikuspegia txertatzea, eta, gainera, bermatzen du plangintza haren xede diren hartzaileei egokituagoa izatea.

GAZTERIAREN III. FORU PLANAREN EBALUAZIOA

Plangintza egiteaz harago —berez oso garrantzitsua izanik ere—, funtsezkoa da **plangintza horren jarraipena eta ebaluazioa egiteko sistema** bat ezartzea, plangintzaren prozesuek ere plangintzak hobeki ezagutzeko balio dezaten; hori, hain zuzen, oinarritzkoa izanen da etorkizuneko planetan hobekuntzak egiteko. **Oso positibotzat jo daiteke III. Plana hainbat ikuspegi aintzat hartuta ebaluatu izana**, hau da, gazteen ikuspegia, Nafarroako Gobernuko 24 zuzendaritza nagusia eta Nafarroako Gazteriaren Institutuko teknikariena.

Gazteriaren III. Foru Planaren ebaluazioak diagnostiko honetarako oso garrantzitsuak diren zenbait gai mahaigaineratu ditu, batez ere kontuan hartuta diagnostiko hau izanen dela hurrengo plangintza zikloaren oinarria.

Gazteriaren III. Foru Planaren betetze mailari dagokionez, oso altua izan da; hasieran aurreikusitako ekintzen %100 gaintu da, Plana indarrean izan den bitartean 36 ekintza berri gehitu baitira. Ekintzak ardatzen arabera gauzatzeari dagokionez ere oreka lortu da, eta horrek erakusten du gaikako garapena egokia dela.

Nabarmentzekoa da ezen, Plana Nafarroako Gazteriaren Institutuak diseinatu arren, garatutako ekintza gehienak Nafarroako Gobernuko Departamentuetako beste zuzendaritza nagusi batzuek gauzatu dituztela; zehazki, garatutako %76 Nafarroako Gobernuko 24 zuzendaritza nagusik gauzatu dituzte. Horrek agerian uzten du **zein garrantzitsua den gazteria politiken zeharkakotasuna**, baita politika horiekiko konpromisoa ere. Ildo horretan, ezinbestean aipatu behar da Gazteriaren Departamentu arteko Batzordearen garrantzia.

Antzeko zerbait gertatzen da Gazteriaren III. Planaren **egikaritze ekonomikoarekin** ere. Bere garaian zehaztutako aurrekontua gainditu du, eta, azkenean, %108,45 izan da gastua; hau da, 189.516.756 euro inbertitu dira gazteriaren politiketan.

Planaren egikaritzearen ebaluazio kuantitatiboaz harago, ebaluazio prozesuan ere **partaidetzako prozesu bat garatu da**; prozesu horretan, hain zuzen, gazteek eta Planaren garapenaz arduratutako teknikariek parte hartu dute. Diagnostiko honen helburua ez da III. Planaren ebaluazioaren ondorioak errepikatzea; hala ere, egokia dirudi bertan adierazitako zenbait gai interesgarri nabarmentzeak.

Alde batetik, Planaren 2023ko ebaluazioan egindako inkestaren arabera, ikusi da **Nafarroako Gazteriaren Institutuaren ezagutza maila altua dela (%75,5)**; oso datu positiboa da, eta berresten du erakundeak zabalkunde handia duela gazteen artean. Dena den, 2023ko ebaluazio horretan halaber nabarmendu da gazteek parte hartzeko motibazio gutxi dutela; kasu honetan, gazteriaren planaren plangintza eta ebaluazioari dagokionez, %71k adierazi du ez duela parte hartu nahi.

Planaren ebaluazioan, **gazteen partaidetzarako zailtasuna** izan da teknikariek nabarmendutako alderdietako bat. Beraz, parte-hartzeari dagokionez, bada nabarmen hobetu beharreko alderdi bat.

Ebaluazioko beste alderdi garrantzitsu bat lotuta dago Planaren ekintzak diseinatzeko eta abian jartzeko modua birpentsatzeko beharrarekin, betiere helburua izanda ebaluazio honetan oinarrituta hobetuz joatea.

Azken batean, Gazteriaren III. Foru Planaren ebaluazioak, eta haren partaidetzako prozesuak, oso informazio baliotsua eman dute, hurrengo

plangintza zikloan kontuan hartu beharrekoa, zalantzarik gabe. Ondorio horiek, funtsean, zeharkako alderdiei egiten diete erreferentzia, hala nola parte-hartzeari, baina baita ekintza horiek gauzatzeko modu hutsari ere.

GAZTERIAREN POLITIKETARAKO TRESNAK

Gazteen Foru Estrategian eta Gazteriaren III. Foru Planean (2021-2023) jasotako gazteriaren arloko politikez gain, Nafarroak baditu bereziki gazteei zuzendutako baliabide eta tresna batzuk; izan ere, bizitzaren etapa horretan, arreta espezializatua eman behar zaie multzo hori osatzen duen populazioaren beharrei.

Gazteriaren arloko berariazko politikekin lotutako baliabide eta ekimen ugari daude, eta horiek egoera ona dela erakusten dute, hobetu eta osatu behar izan arren.

Aipamen berezia merezi du Nafarroako **Gazteentzako Informazio Sareak**, izan duen ibilbideagatik eta gazteek informazioa jasotzeko duten eskubidea lurraldean lantzeagatik. Sare hori honako hauek osatuta dago: gazteentzako 15 informazio bulego, gazteentzako 14 informazio gunek, lurraldean banatuta daudenak, eta Gazteentzako Dokumentazio eta Informazioko Zentroa. Sare horri dagokionez, bada hobetu beharreko alderdi bat: lurralde garapenean dagoen desoreka.

Gazteen informazioari dagokionez, aipamen berezia merezi du **Gazte berriemaileak** programak; programa horren baitan, gazteek informazio garrantzitsua zabaltzen dute lagunen artean (bekak, ikastaroak, mugikortasun programak, ongizate emozionaleko programak, etab.). Informazioa zabaltzean informatzailea bera informazioa zabaldu dien pertsonen kideko izateak praktika egokia dirudi, informazioak indar handiagoa hartzen baitu gazteen artean.

Gazteei zuzendutako prestakuntza, esparru akademikoaz haragokoa, Nafarroan dagoeneko garatzen ari garen alderdietako bat da. Funtsean, **aisiako prestakuntzaren eskaintza bat da, hezkuntzarako sarbidean izan daitezkeen zenbait desberdintasun orekatu ditzakeena**, batez ere gazteen garapen pertsonal eta sozialerako funtsezko alderdiekin lotuta. Eskaintza askotarikoa da, eta ohitura osasungarriekin, garapen pertsonalerako tresnekin eta eguneroko

ohitura praktikoekin lotuta dago, besteak beste. Prestakuntza hori, mugatua izan arren, oso espazio interesgarria da, hezkuntza formalean maiz lantzen ez diren baina gazteen garapenerako funtsezkoak diren alderdiak lantzen dituen.

Horrez gain, gazteentzako baliabide asko eta asko daude. Horiek guztiak Gazteen Baliabideen Mapa batean bildu dira; hain zuzen, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren webgunean dago mapa hori. **Gazteek erabil ditzaketen baliabide guztiak erraz identifikatu ahal izatea oso positiboa da. Aipatutakoez gain**, garrantzitsua da kontuan hartzea beste politika sektorial batzuekin (gizarteratzea, enplegua, etxebizitza, osasuna, etab.) zerikusia duten beste alderdi asko ere azaltzen direla.

Azken urteotan, Nafarroako Gazteriaren Institutuak nabarmen landu du **gazteen inguruko berriazko ezagutza**. Gazteen Behatokiaren bidez, NGIk etengabe sortzen dituen inkestak, ikerlanak eta monografikoak eskaintzen ditu; baliabide horiek, hain zuzen, oso interesgarriak dira gazteen, haien aniztasunaren, eboluzioaren edota kezken berri izateko. **Zalantzarik gabe, oso alderdi garrantzitsua da, askoz ere politika egokiagoak lortzeko bidean aurrera egiteko**. Nafarroako Gobernuak beste departamentu batzuetatik ekintza ugari egiten dira gazteei zuzenduta, eta hori oso positiboa da; izan ere, erakusten du gazteriaren arloko politikek zeharkakotasun lan handia egiten dutela eta politika horiek barneratzen direla.

GAZTERIAREN ARLOKO TOKIAN TOKIKO POLITIKAK.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak berak gazteriaren arloko politiketan egindako lan garrantzitsuaz gain, gazteria politiken zati garrantzitsu bat tokian-tokian garatzen da. Diagnostiko honen asmoa ez da Nafarroan garatzen diren gazteriaren arloko politikak zehatz-mehatz aztertzea, hain konplexua baita ezen berariazko azterketa monografiko bat egin beharko litzatekeen. Baina garrantzitsua da haren hurbilpen bat egitea, **udalek gazteentzako jarduera ugari garatzen baitituzte.**

Lehenik eta behin, nabarmendu behar da gazteriaren arloko tokian tokiko politikak **ez direla Nafarroako Gazteriaren Institutuan edo Nafarroako Gobernuko gainerako zuzendaritza nagusietan garatzen direnak bezain profesionalizatuak.** Gazteriaren arloko zinegotzigo gehienak (gainerako zinegotzigoak bezala) politikagintzan borondatez eta, gehienetan, berariazko prestakuntzarik gabe diharduten pertsonak zuzentzen dituzte. Horrez gain, oso udal gutxitan dituzte gazteria teknikariak.

Horrekin lotuta, nabarmendu behar da Nafarroako Gazteriaren Institutuak egiten duen lan garrantzitsuetako bat dela **toki entitateei laguntzea** gazteria arloko politikak garatzen. Horretarako, udalei laguntzeko hainbat modu baliatzen ditu. Hona hemen gehien nabarmentzen direnak:

- Urteko **dirulaguntzen deialdia**, xede hauetarako:
 - o Gazteriaren arloko diagnostikoak eta planak egitea, eta gazteriaren arloko politikaren plangintza sustatzea.
 - o Gazteentzako programak eta jarduerak egitea.
 - o Gazteriaren arloko teknikariak kontratatzeko laguntza ematea.

Dirulaguntzen deialdiaren bidezko laguntza hori bereziki ona da; izan ere, laguntza horiei esker, udalek eurek egiten dituzte udalerriko gazteen egoeraren diagnostikoak eta haiek planifikatzen dituzte beren politikak, egindako diagnostikoen arabera. Halaber, oso positiboa da teknikariak izateko aukera babestea, gazteriaren arloko politika integralagoa izateko

askoz ere berme handiagoa ematen baitu, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren plangintzarekin lerrokatuago egongo dena.

- **Gazteentzako Informazio Sarea:** lehenago adierazi den bezala, Nafarroako zenbait udalerritan gazteentzako informazio guneak edo bulegoak daude. Nafarroako Gazteriaren Institutuak baliabideak eta materialak ematen dizkie espazio horiei, eta koordinatu egiten ditu. Berriro ere nabarmentzekoa da udalek gazteen informaziorako baliabideak izatea, nahiz eta horietako askok halakorik ez izan.

Adierazi behar da udalerrri gutxik dutela gazteentzako informazio bulegoa, eta, kasu gehienetan, 5.000 biztanletik gorako udalerrriak direla. Besteak beste, azpimarratu behar da Castejonen eta Agoitzen bulegoa egotea, biak al biak 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrriak baitira.

- **Udal politiketara zuzendutako beste baliabide batzuk,** hala nola Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola (NGJE), astialdiko hezkuntza sustatzen duena, baita beste hainbat arlotako aholkularitza ere (Europako programak, etab.).

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, beraz, hedapen zabala eta ona du Nafarroako udalerrietan. Nolanahi ere, garrantzitsua da aipatzea gazteriaren arloko udal politikak garatzean funtsezkoa dela berariazko langile teknikoak izatea, NGLak eskaintzen dituen baliabide guztiei etekin handiagoa ateratzen baitzaie horrelako figurak badira. Zailena udalerrri txikienetan dute, baliabide gutxiago dituztenetan, haietan nekezagoa baita langile tekniko horiek izatea.

GAZTERIAREN ZINEGOTZIGOAK ETA TEKNIKARIAK.

Nafarroako udalen antolaketan, gazteriaren zinegotzigo bat izatea (berariazkoa edo partekatua) oso garrantzitsua da, eta, aldeaz aurretik gazteriaren arloko politikak garatzeari zer garrantzia ematen zaion erakusten du.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak egindako «Gazteriaren arloko udal politikak Nafarroan» ikerlaneko datuen arabera, **5.000 biztanletik gorako udalerrri guztietan dago Gazteriaren zinegotzigoa; 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrri gehienetan ere badago; eta 1.000 biztanletik beherako udalerrietan, oso gutxitan hartzen dira kontuan gazteak zinegotzigoen banaketan.** Datu horiek agerian uzten dute, alde batetik, Nafarroan udalerrri mota asko daudela, eta, bestetik, herri txikietan bizitzea zailagoa dela gazteentzako baliabideak eta politikak izateari dagokionez.

Lehen aipatu den bezala, Gazteriaren zinegotzigo bat (berariazkoa edo partekatua) izateaz harago, gazteriaren teknikaria izatea berme handiagoa da gazteriaren politika integralak izateko, aisiarekin lotutakoez harago doazenak. Gaur egun, Nafarroan, gazteriako 25 teknikari daude.


Teknikarien presentzia askoz ere ohikoagoa da tamaina handiagoko udalerrietan. 5.000 biztanletik gorako udalerrri gehienetan dago gazteriako teknikaria, Corellan, Cintruenigon eta Baztanen izan ezik. Aitzitik, 1.000 eta 5.000 biztanle arteko udalerrietan, ozta-ozta dago gazteriako teknikaririk, eta 1.000 biztanletik beherakoetan, ez dago halakorik.

Ondorioa argia da: **gazteriako zinegotzigoak eta, batez ere, teknikariak izatea udalerrriaren tamainarekiko zuzenki proportzionala da.** Horrekin lotuta, azpimarratzekoa da Nafarroako gazte gehienak gazteriako zinegotzigoa eta teknikariak dituzten udalerrietan bizi direla. Argi dago landa eremuetan eta tamaina txikiagoko udalerrietan, askoz ere baliabide gutxiago direla gazteentzat.

GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKAREN UDAL PLANGINTZA.

Azterketan atzera eginez, eta gazteriaren arloko diagnostikoak eta planak egiteko laguntzen deialdiari helduz, argi dago Nafarroako Gazteriaren Institutuak tokiko erakundeei laguntzearen alde egiten duela, tokiko erakunde horiek gazteriaren arloko politika planifikatzeko tresnak izan ditzaten.

1. GRAFIKOA. GAZTERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK EDO PLANAK EGITEKO DIRULAGUNTZA JASO DUTEN UDALERRIAK.



Iturria: Nafarroako Gazteriaren Institutua. Guk geuk egina.

Nafarroako Gazteriaren Institutuak egindako «Gazteriaren arloko udal politikak Nafarroan» ikerlanetik ateratako informazioaren arabera, Nafarroako 14 udalerrik soilik dute gazteriaren arloko tokiko plana. **Horrek agerian uzten du gazteriaren arloko politiken plangintzak egiteko dagoen kultura urria.**


Espero zitekeen bezala, plangintza onartuta duten udalerrri gehienak handiagoak dira. Oso bitxia da, hala ere, 5.000 biztanletik gorako udalerrrien %43k baino ez dutela gazteriaren arloko plana, eta, printzipioz, udalerrri horiek dituzte baliabide ekonomiko eta tekniko handienak beren politikak planifikatzeko.

2. GAZTEAK¹.

GAUR EGUNGO BIZTANLERIA ETA AZKENALDIAN IZANDAKO BILAKAERA.

2023an (ordukoak dira azken datu ofizialak), **124.732 gazte** (14 eta 30 urte bitartekoak) bizi ziren Nafarroan. Horietatik %51 mutilak ziren, eta %49 neskak; beraz, sexuen artean desoreka txikia da oso.

2. GRAFIKOA: NAFARROAKO GAZTEEN BILAKAERA (GUZTIZKOAK)




Baina azken urteko biztanleria aztertzeaz gain, garrantzitsua da azken 10 urteetan gazteen biztanlerian zer bilakaera izan den jakitea. Aurreko grafikoan ikus daitekeen bezala, 2016az geroztik, eta jaitsiera handiko aldi baten ondotik, **Nafarroako gazteen kopuruak etengabe egin du gora**, eta hori oso garrantzitsua da; izan ere, funtsezkoa da gizartean gazte asko egotea, gizarte horren garapenerako, maila guztietan. 2016. urtea erreferentziatzat hartuta,

¹Gazteen populazioa aztertzeko, 14 eta 30 urte bitarteko biztanleak hartzen dira kontuan; dena den, Nafarroako eskualdeen araberako gazteen kopurua zehazteko, 16 eta 30 urte bitarteko biztanleak hartzen dira kontuan.

gazteen populazioa hazi egin da 2023ra bitartean; 15.841 gazte gehiago daude, eta datu hori oso positiboa da.

Gazteen bilakaeran gehiago sakonduz, populazio horren **hazkunde-tasak** aztertu dira, erakutsitako joeraren erreferentzia argia izateko.


3. GRAFIKOA. NAFARROAKO GAZTEEN BATEZ BESTEKO HAZKUNDE-TASEN BILAKAERA (%o)



Iturria: NASTAT. Guk geuk egina

Bilakaeran bertan ikusi ahal izan denez, gazteen hazkunde-tasak negatiboak izatetik (hau da, gazteak galtzetik) positiboak izatera pasatu dira; hala, **2023an**, **aztertutako aldi osoko hazkunde handiena izan zen.**

4. GRAFIKOA. NAFARROAKO GAZTEEN BATEZ BESTEKO HAZKUNDE-TASEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (%o)




Iturria: NASTAT. 2012-2023 aldiko eroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Hazkunde-tasak aztertzean gazteen sexua kontuan hartzen bada, ikus daiteke azken urteetan hazkundera handiagoa izan dela gizonetzkoetan emakumezkoetan baino, eta, horrenbestez, egun gizon gehiago daude emakumeak baino.

GAZTEEN PISUA.

Gazteen bilakaera ezagutzeaz gain, **oso garrantzitsua da biztanleria horrek biztanleria osoarekiko zer garrantzi erlatibo duen erakustea**, informazio horrek agerian uzten baititu egungo erronka sozial askorekin lotutako funtsezko alderdiak. Gazteen presentzia erlatibo handiagoa izatea bitalismo demografikoaren adierazle bat da, eta oso garrantzitsua da gizartearen garapenari begira. Datu horiei esker, biztanleriaren bilakaera sozial eta demografikoan sakondu daiteke; izan ere, gazteak eta haien hazkundera kontuan hartzeaz gain, hazkunde hori biztanleria osoarekiko nola gertatzen den hartzen da kontuan.

5. GRAFIKOA: GAZTEEN (14-30 URTE) PISUA BIZTANLERIA OSOAREKIKO. 2013-2022.
(%)



Iturria: NASTAT. 2012-2023 aldiko erroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Grafikoan ikusten den bezala, Nafarroako gazteen pisu erlatiboaren bilakaerak, estatuko gazte guztien pisu erlatiboaren bilakaeraren antzera, bi joera desberdin erakusten ditu aztertutako epean. Alde batetik, 2013tik 2016ra bitartean, jaitsiera jarraitua eta handia izan zen, eta biztanleria osoaren %17,1 izatera iritsi ziren. **2017tik aurrera, ordea, joera aldatu egin zen, eta gazteen garrantzia handitzen hasi zen; hala, 2022. urtean, %18,2 izan ziren gazteak. 2023an, apur bat jaitsi zen ehuneko hori ² (%18).**

Joera horrek oso datu garrantzitsua erakusten du, hau da, gazteen hazkunde erlatiboa handiagoa izan da Nafarroako populazio osoaren hazkunde erlatiboa baino (2016tik 2022ra). Hala ere, gogorarazi behar da gazteek populazio osoarekiko duten ehunekoa ez dela oso handia; joera hori oso orokortuta dago gaur egungo mendebaldeko gizartean.

Baina joera aldaketa horrez gain, garrantzitsua da, halaber, **2019az geroztik, Nafarroako gazteek populazio osoarekiko izan duten pisua Espainiako gazteen guztizkoaren parekoa edo are eta handiagoa izan dela**; izan ere, aurreko urteetan guztiz kontrakoa gertatzen zen.

BIZTANLE GAZTEEN PRESENTZIA EREMUZ EREMU.


Politika publikoen plangintzari begira, oso garrantzitsua da **gazteak lurraldean nola banatzen diren jakitea**. Izan ere, informazio garrantzitsua emanen du

²Diagnostiko hau egiteko unean, oraindik ez zen Espainiako populazioaren 2023ko zifra ofizialik.

zenbait gai lurraldearen arabera sailkatzeko, lurralde kohesioarekin eta despopulazioarekin zerikusia dutenak, batez ere, gazteen funtzioa funtsezkoa baita arlo horietan.

Hasteko, nabarmendu behar da **Nafarroako gazte gehienak (%58,9) Iruñerrian bizi direla**. Nafarroako gainerako eremuetatik (Nafarroa 2000 zonifikazioaren arabera), Tutera inguruan (Erriberabarrena) soilik da gazteen portzentajea %10etik gorakoa (%13,6, zehazki).


6. GRAFIKOA: GAZTEEN BANAKETA NAFARROAKO EREMUEN ARABERA, 2023AN (%)



Iturria: NASTAT. Guk geuk egina

Gazteen banaketaren bilakaerak erakusten du Iruñea inguruan bizi diren gazteen ehunekoa goraka ari dela pixkanaka, eta, ostera, gainerako eremuetakoa behera egiten ari da. Nabarmentzekoa da, Iruñerrian salbu, Nafarroako eskualde bakar batean ere ez dela hazi gazteen ehunekoa biztanleria osoarekiko.

7. GRAFIKOA. GAZTEEN BANAKETA NAFARROAKO EREMUEN ARABERA, 2013-2023 (%)



Iturria: NASTAT. Guk geuk egina

GAZTEEN EZAUGARRIAK.

Gazteen populazio bilakaera eta biztanleria osoarekiko duten pisua aztertzeaz gain, interesgarria da gazteak adinaren arabera eta sexuaren arabera ezaugarritzea.

Gazteak adin tarteen arabera banatuta, nolabaiteko homogeneousuna dago gazteen pisuari dagokionez; izan ere, alderik handiena 20-24 adin tartean dago, hain zuzen, adin tarte horretan beste bietan baino urtebete gutxiago sartzen delako. Hala ere, nabarmendu behar da, **2017tik izan den bilakaeraren arabera, adin tarte txikieneko bi etapen pisua handitu egin dela** (tarte bakoitzean puntu bat egin da gora ehunekoan); 25etik 30 urtera bitarteko multzoa, aldiz, garrantzi erlatiboa galduz joan da, eta bi puntu egin da behera 6 urte horietan.

Beraz, horrek erakusten du **Nafarroako gazteen populazioa pixkanaka gatzetuz joan dela azken urteotan.**

1. TAULA: GAZTEEN BANAKETA ADIN TARTEEN
ARABERA, 2017-2023 (%)


	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
14-19	%35,3	%35,7	%35,9	%35,9	%36,1	%36,1	%36,2
20-24	%28,6	%28,9	%29,2	%29,4	%29,6	%29,7	%29,6
25-30	%36,1	%35,3	%34,9	%34,7	%34,3	%34,2	%34,1

Iturria: NASTAT. 2017-2023 aldiko erroldaren berrikuspena. Guk
geuk egina

Gazteak sexuaren arabera banatzeari dagokionez, 2023 arteko azken datu ofizialek gizonetzkoen aldeko desoreka handia erakusten dute; izan ere, **14-30 adin tartean, 105 mutil daude** (105,24, zehazki) **100 neskako**.

Azken 5 urteetan gizonetzkoen eta emakumezkoen artean izan den bilakaera dela eta, desoreka areagotu egin da; beraz, gizonetzkoak gero eta gehiago dira gazteen artean.

8. GRAFIKOA: SEXU-RATIOA. 2013-2022.
(%)



Iturria: NASTAT. 2017-2023 aldiko eroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Nabarmendu behar da sexu-ratioa oso desberdina dela Nafarroako biztanleria osoaren eta gazteen biztanleriaren artean; izan ere, biztanleria osoa aintzat hartuta, sexu-ratioaren desoreka txikiagoa da, eta emakumezkoen aldekoa. Oso alderdi garrantzitsua da, kontuan hartu beharrekoa, gazteek dituzten berezitasunak direla eta.

Sexuaren araberako banaketan gehiago sakonduz, eta gazteen zenbait adin tarte kontuan hartuta, ikus daiteke desoreka handiena adin tarte txikienean (14-19 urte) dagoela; beraz, etorkizuneko joera antzekoa izanen balitz, are gehiago handitu liteke desoreka hori.

2. TAULA: NAFARROAKO GAZTEEN SEXU-RATIOA³ (%), 2017-2023

	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Biztanleria guztira	98,2	98,0	97,9	98,0	98,0	98,0	SD

³ Sexu-ratioak gizonen eta emakumezkoen arteko erlazio kuantitatiboa adierazten du, 100 emakumeko zenbat gizon dauden zehaztuta.

Gazteak (14-30 urte)	103,4	102,9	103,6	104,0	104,5	105,0	105,24
14-19	104,1	104,4	105,2	105,5	105,5	105,5	105,50
20-24	103,6	102,5	101,9	102,6	102,6	102,6	102,58
25-30	102,7	101,6	103,4	103,8	103,8	103,8	103,80

Iturria: NASTAT. 2017-2023 aldiko erroldaren berrikuspena. Guk geuk egina


GAZTE ETORKINAK.

XXI. mendean, bai Nafarroan, bai estatuan, azken urteetako historiako aldaketa sozial garrantzitsuenetako bat gertatu da: migrazio fenomenoak. Fenomeno hori XX. mendearen amaieran hasi zen, eta areagotu egin zen mende berriaren lehen hamarkadan. Fenomeno hori eragin handia izaten ari da Nafarroako gizartearen eraldaketa demografikoan, eta, bereziki, gazteen multzoaren aniztasunean, horrek dakartzan gizarte erronka guztiekin.

Ez da erraza etorkinen biztanleria eta haien eragin demografikoa aztertzea; izan ere, etorkinen aniztasuna eta etorkin kontzeptuaren likidotasuna aintzat hartuta, gero eta zailtasun gehiago daude horretarako. Horregatik, demografiari dagokionez, merezi du zenbait adierazleren azterketa osatzea, zeinek aukera emanen baitute Nafarroako gazteen artean immigrazioak zer eragin izan duen eta izaten ari den ikusteko.

Lehenik eta behin, eta agerikoena izanik, Nafarroako gazteen nazionalitatea aztertu behar da.

*10. GRAFIKOA. GAZTE ATZERRITARREN BILAKAERA. 2013-2022.
(%)*



Iturria: NASTAT. 2017-2023 aldiko erroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

2023ko urtarrilaren 1ean (ordukoa da azken datu ofiziala), Nafarroako gazteen %16,7 atzerritarrak ziren. Horrez gain, **biztanleria atzerritarraren azken aldiko bilakaerak goranzko joera orokorra erakusten du; izan ere, duela soilik 6 urte, biztanleria atzerritarraren ehunekoa 3 puntu txikiagoa zen.** Garrantzitsua da zifra horiek Nafarroako biztanleria osoan atzerritarrek duten ehunekoarekin alderatzea, gazteen artean duen inpaktuaren garrantziaz jabetzeko. Hala, diagnostiko hau egiteko unean 2023ko datu ofizialik ez izan arren, 2022. urtean, Nafarroako biztanleria osoaren %11 ziren atzerritarrak. Ehuneko hori txikiagoa da atzerritarrek gazteen artean duten %15,2 baino. Aurrerago osatuko den gai horrek irakurketa garrantzitsuak ditu gazteriaren arloko politiketara begira.

Aurrez aipatu bezala, etorkinen biztanleria aztertzeke ez da nahikoa Nafarroan zenbat gazte atzerritar bizi diren jakitea. *Etorkin* kontzeptua ez da beste leku batetik Nafarroara bizitzera iritsi den pertsona soilik; harago doa. Kasu askotan, etorkinak izan diren pertsonen nazionalitatea lortu dute, baina, zoritxarrez, ez dituzte alde batera utzi zailtasun sozialekin eta ekonomikoekin loturiko zenbait patrioi. Hori dela eta, azterketan, hainbat ikuspegitik erreparatu behar zaio errealitate horri; azterketa demografiko bat egin badaiteke ere, lerroartean begiratu behar da, fenomeno horrek gure gizarteari zer erronka dakarzkion jabetu ahal izateko.

Horretarako, atzerrian⁴ jaio eta gaur egun Nafarroan bizi diren gazte nafarren ehunekoa ere aztertzen da.

⁴ Atzerrian jaiotako gazteak aztertzeke, kontuan hartu dira 15 eta 29 urte bitarteko biztanleak eta 2022ko datuak, urte horretakoak baitira azken datu ofizialak.

3. TAULA: NAFARROAKO GAZTEAK (15-29 URTEKOAK), ATZERRIAN JAIOTAKOAK ETA NAFARROAN BERTAN JAIOTAKOAK (GUZTIZKOAK). 2017-2022


	ESPAINIAN JAIOTAKO GAZTEAK	ATZERRIAN JAIOTAKO GAZTEAK
2017	73473	22474
2018	74274	23371
2019	75375	25073
2020	76622	26542
2021	78215	26192
2022	79897	26529

Iturria: NASTAT. 2017-2023 aldiko erroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Taulako datuek erakusten dutenez, azken urteetan hazi egin da bai Espainian jaiotako gazteen kopurua, bai atzerrian jaiotakoen kopurua; dena den, atzerrian jaiotako gazteen kopuruak gorakada handiagoa izan du. Ideia hori berretsi egiten da atzerrian jaiotako gazteek Nafarroako gazte guztiekiko duten pisu erlatiboa aztertzean.

Lehenengo datu azpimarragarria da **2022an Nafarroako gazteen laurdena atzerrian jaioa zela**; datu hori askoz ere handiagoa da atzerriko populazio osoarekin alderatuta, eta askoz ere inpaktu handiagoko errealitatea erakusten du, kontuan hartu beharrekoa. Bestalde, eta ehunekoaren bilakaera aintzat hartuta, atzerrian jaiotako gazteen pisua handituz doala ikusten da, nahiz eta azken bi urteetan hazkunde hori moteldu egin den.

11. GRAFIKOA. ATZERRIAN JAIOTAKO GAZTEEK POPULAZIOAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA. 2013-2022.
(%)



Iturria: EIN. 2017-2023 aldiko eroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Gazteen (kasu honetan, 15-29 urtekoen) datu espezifikoak ezagutzeaz gain, garrantzitsua da biztanleria osoaren datuekin alderatzea, gazteen immigrazioaren fenomenoaren biztanleria osoan jazotako immigrazioaren modu berean edota beste modu batean gertatzen den interpretatu ahal izateko.

4 TAULA: ATZERRIAN JAIOTAKO GAZTEAK (15-29) ETA ATZERRIAN JAIOTAKO BIZTANLERIA OSOA. NAFARROA (%). 2017-2022

	Atzerrian jaiotako gazteen ehunekoa	Atzerrian jaiotako biztanleen ehunekoa (adin guztiak)
2017	%23,4	%13,7
2018	%23,9	%14,3
2019	%25,0	%15,2
2020	%25,7	%16,1
2021	%25,1	%16,4
2022	%25,0	%16,8

Iturria: NASTAT. 2017-2023 aldiko eroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Lehen ondorio gisa, eta garrantzitsuena, adierazi behar da immigrazioaren eragina —kasu honetan, atzerrian jaiotako biztanleria kontuan hartuta— askoz ere handiagoa dela gazteen artean, Nafarroako biztanleria osoan baino. Atzerrian jaiotako eta Nafarroara bizitzera iristen diren pertsona asko eta asko oso gaztetan iristen direlako gertatzen da hori. Izandako eragina oso positiboa da demografian eta beste alderdi askotan, haren intentsitateagatik eta denboran

izandako jarraitutasunagatik, eta beharrezkoa da gazteriaren arloko politiken hainbat ikuspegitatik lantzea.

Atzerritarren datuek nahiz atzerrian jaiotakoen datuek beste alderdi garrantzitsu bat erakusten dute, hau da, **biztanleria horrek gazteen hazkundean duen eragin handia**. Biztanleria osoa izugarri indartu da immigrazioaren fenomenoaren ondorioz, batez ere gazteen artean duten presentzia handiagoa eta haien jaiotza tasa altuak direla eta.

GAZTERIAN IZANDAKO BAJAK


Immigrazioaren fenomenoak, lehenago azaldu den bezala, funtsezko elementuetako bat da gaur egungo gizartea aztertzerakoan. Baina emigrazioa ere oso garrantzitsua da fenomeno demografikoak aztertzen direnean, batez ere gazteen artean.

Azken hamarkadetan, Nafarroan, estatuko gainerako lurraldeetan bezala, askotariko krisien ondorioak izan dira (2008ko krisia, Covid-aren krisia, Ukrainako eta Errusiako gerren eragina, etab.), eta bereziki ondorio garrantzitsuak eragin dituzte gazteen artean. Gazteriak jasan du krisi horien eraginik handiena, eta, pixkanaka, kolektiboaren garapen indibidual eta sozialerako funtsezko alderdiak higatuz joan dira, hala nola enplegu duina, etxebizitza eskuratzeko aukera eta emantzipazio osoa.

Hori dela eta, gazteen emigrazioak testuinguru sozioekonomiko globalari erantzun dion aldi bat bizi izan da Nafarroan.

12. GRAFIKOA: NAFARROAKO GAZTEEN BAJAK, BIZILEKUZ ALDATZEAGATIK⁵. (%)

⁵ Beste toki batzuetara (beste autonomia-erkidego batera edo atzerrira) emigratu duten gazteen ehunekoa.




Iturria: EIN. 2017-2023 aldiko eroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Aurreko grafikoan ikusten denez, gazteen bajak azken urteotako mailarik gorenean daude gaur egun; beraz, horrek adierazten du gazte batzuek Foru Komunitatetik kanpo ikusten dutela beren bizi proiektua.

Baina azterketa ezin da orokortasun horretara mugatu, emigrazio hori neurri handiagoan edo txikiagoan bultzatzen duten zenbait ezaugarri baitituzte gazteek.

13. GRAFIKOA: NAFARROAKO GAZTEEN BAJAK, BIZILEKUZ ALDATZEAGATIK. NAZIONALITATEAREN ARABERA (%)




Iturria: EIN. 2017-2023 aldiko erroldaren berrikuspena. Guk geuk egina

Gazteen nazionalitateak eragin izugarria du emigrazioan. Hala, gazte atzerritarrek askoz ere ehuneko handiagoak dituzte bizilekuz aldatzeagatik izandako bajetan, espainiar nazionalitateko biztanleek baino. Datu horiek logika baten baitan kokatzen dira, non atzerriko biztanleek joera izan baitezakete beren beharretara hobeki egokitzen diren beste leku batzuk bilatzeko, haien migrazio prozesuaren barruan.

Espainiar nazionalitatea duten gazteei dagokienez, oso ehuneko handiak ez izan arren, bizilekuz aldatzeak eragindako bajen kopurua handituz joan da urtetik urtera, eta, 2022an, 2010ean baino puntu bat altuagoa izan zen. Fenomeno hori arrazoi askori lotuta egon daiteke, baina gehienek Nafarroan ez dauden lan aukerak bilatzearekin dute zerikusia.

Nafarroako gazteen emigrazioari dagokionez, garrantzitsua da **atzerrian bizi diren Nafarroako gazteen** ehunekoa erakustea.

14. GRAFIKOA: ATZERRIAN BIZI DIREN NAFAR GAZTEAK (%)



Iturria: EIN. 2017-2023 aldiko errodaren berrikuspena. Guk geuk egina

Atzerrian bizi diren nafar gazteen ehunekoak goranzko joera izan du azken 10 urteetan, eta, 2022an, %6,64 izan ziren atzerrian bizi ziren Nafarroako gazteak. Fenomeno hori, funtsean, herrialdetik kanpo lan egiteko aukerak bilatzeak eragiten du, baita Nafarroako gazte batzuek baliabide eta prestakuntza handiagoak izateak ere.

Nabarmendu behar da 2017az geroztik asko moteldu dela ehuneko horren hazkundera, eta hamarren gutxi batzuk besterik ez dela aldatu. Hori ona da, hazkunde ikaragarriko aldi batetik baitzatorren.

3. JARDUERA EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA

Nafarroako gazteak Foru Komunitateko lan merkatuan sartzeari dagokionez, aldaketak izan dira mende honetan, bai kuantitatiboak, bai kualitatiboak. Aldaketa horiek, hain zuzen, biztanleria talde horrentzako lan eskaintzaren dinamikan eta profilean izandako aldaketen ondorio izan dira, baita merkatuan lan indarraren eskariari dagokionez izandako aldaketen ondorio ere.

Aldaketa horiek, Espainia osoko lan merkatuan ere gertatu diren arren, zenbait espezifikotasun eta intentsitate bereizgarri dituzte Nafarroan, Espainiakoarekin alderatuta, eskatzailearen produkzio egituraren beraren jatorrizko desberdintasunengatik, bi lan merkatu horietan ezaugarri propioak baitira intentsitateari eta denborazkotasunari dagokienez.

1997 eta 2007 artean izan zen «higiezin burbuila» delakoari loturiko garapen ekonomikoko aldiaren ondotik, azken mendean kapitalismo finantzarioan izan den munduko krisi ekonomiko nagusietako bat izan zen, eta horrek **jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren beherakada eragin zuen, baita biztanleriaren pobretzea ere; 2014ra arte iraun zuen egoera horrek**. Haren ondotik, **suspertze aldi bat hasi zen, baina COVID-19aren krisi pandemikoak eten egin zuen**, eta beheraldi handia izan zen berriro 2020 eta 2021 artean. Badirudi azken bi urteetan buelta eman zaiola aipatutako aldi horretan izandako paralisi ekonomikoari, eta goranzko joera hartu du berriro. Hala eta guztiz ere, nazioartean bizi den ezegonkortasun politikoa dela eta —Errusiak Ukraina inbaditzearen eta Israelek Hamasen ekintza terroristari erantzuteko abiatutako gerraren ondorioz sortua—, **gaur egun ziurgabetasuna da nagusi, oro har, munduan eta, bereziki, Europan**; horregatik, ezin da bermatu duela gutxi berriro abiatutako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspena betetzea.

Finantza krisiaren aurreko aldiak jarduera ekonomikoaren hazkundera elikatu zuen, eta enpresen enplegu eskaintza nabarmen handitzea ekarri zuen, batez ere eraikuntza sektorearekin, eraikuntza materialen industriarekin eta zerbitzuen sektorearekin zerikusia zuten enpresena. Hori dela eta, lan merkatua zabaldu zen, eta, horren ondorioz, okupazioa handitu eta langabezia murriztu ziren. Eskulanaren beharrak etorkinen erakartze efektua eragin zuen, eta, horren

ondorioz, hazkunde demografiko esanguratsua izan zen; aldi berean, ekarri zuen lanerako adinean zeuden eskolatutako gazteen zati batek hezkuntza sistema uztea eta lan merkatuan sartzea.

Hori guztia higiezinaren burbuila lehertzeaz batera eten zen, 2007. urtearen amaieran. Hilabete gutxiren buruan, langabeziara eraman zuen «higiezinaren mirariari» lan indarraz erantzun zioten egoera aktiboko langileen zati handi bat, gazte zein nagusi; aldi berean, krisia beste sektore ekonomiko osagarri batzuetara hedatu zen, edo higiezinaren sektorearen eskutik garatu ziren beste batzuetara, eta haietako enplegu gehiena ere suntsitu zuen. Horren ondorioz, etorkinen zati bat jatorrizko herrialdeetara itzuli zen; izan ere, lanik gabe ezin izan zioten eutsi egoera berraktibatu arteko urteetan. Aldi berean, gelditu egin zen gazteek hezkuntza sistema utzi eta lan merkatura sartzeko prozesua, baita, aukera bila, ikasketak hurbileko herrialdeetan amaitzen zituen biztanleria zati baten emigrazioa ere.

Krisiak estatu espainiarrean baino apur bat lehenago izan zuen egoerarik okerrean Nafarroan, 2013-2014 aldian, zehazki; haren ondotik, hazkunde txiki bat hasi zen, eta pixkanaka sendotuz joan zen, 2020ra arte. Urte hartan, ordea, COVID-19ak bat-batean geldiarazi zuen ekonomia, bai Espainian, bai Nafarroan. Enpresak eta enplegua salbatzeko garatutako politika ekonomikoak —lehenbizi, aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen legediaren bidez, eta, gero, NEXT-Generation funtsak sortu ondorengo dirulaguntzen injekzio handiari esker— aukera eman zuen epe laburrean egoera leheneratzeko, eta oraindik ere indarrean den susperraldia berrabiarazi zuen. Hala ere, horrek ez zuen eragotzi aurreko urteetan **gazteak lan merkatura eta, zehazki, enplegura itzultzeko hasitako prozesuaren moteltzea.**


Testuinguru horretan, 2022an Lan Erreformaren Legea indarrean sartzeak hobekuntza nabarmena ekarri du gazteen lan baldintzetan, azken bi urteotan murriztu egin baita lan merkatuko kontratazioetan gazteen artean hain ohikoa den prekarietatea eta behin-behinekotasuna, zeinek desabantailako egoeran jartzen baitzituzten adinez nagusiagoak ziren langileen aldean. Dena den, oraindik ere arrakala handia da gazteen eta adinez nagusiagoen artean, eta, beraz, beharrezkoa da hura gainditzea, desberdintasun egoerak murrizte aldera. Antzeko zerbait gertatzen da soldatekin ere, desabantaila egoera nabarmena baitute gainerako landunekin alderatuta; izan ere, azken urteetan legeztatu diren lanbidearteko gutxieneko soldataren igoerei esker gazteen egoera hobetu bada

ere, soldata horiek ez dira nahikoa emantzipazioaren erronkari aurre egiteko.

LANERAKO ADINEAN DAUDEN BIZTANLEAK ETA BIZTANLERIA AKTIBO GAZTEA.

2023an, lanerako adinean zeuden gazteak —hau da, 16 eta 29 urte bitarteko talde demografikoa— 102.493 pertsona izan ziren Foru Komunitatean, azken udal erroldako datu eguneratuen arabera. **Zifra hori zazpi urteko hazkunde etengabearen amaiera da**, 2016an aurreko demografia beherakadaren inflexio puntuaren ondotik hasitakoa. Aipatutako beherakada hori, hain zuzen, 2008an hasi zen, higiezinaren burbuila lehertzeaz eta, horren ondotik, ekonomia eta finantza krisi globala gertatzeaz batera. Biztanleria aktiboaren jaitsiera horren ondorioz, 16.628 gazte gutxiago (erroldatutakoen %16) zeuden lanerako adinean 2014an, 2008ko datuekin alderatuta. Ehunekoetan jaitsiera Espainia osoan izandakoaren antzekoa izan arren, Nafarroako gazteen suspertze demografikoa lehenago gertatu zen estatuan baino, eta askoz ere indar handiagoz. Dena den, oraindik ez da lortu 2008ko 105.263 gazteren kopurura iristea.

15. GRAFIKOA: LANERAKO ADINEAN DAUDEN NAFARROAKO GAZTEEN BILAKAERA (2007-2023)




Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.

Ekonomia krisiaren ondorioz lanerako adinean zeuden langile gazteen kopuruaren galera hiru adin tarteetan gertatu bazen ere, ez zen intentsitate berekoa izan hiru multzo horietan, eta, gero, egoerari buelta ematean ere, errekupeazioa ez da berdina izan. 25 eta 29 urte artekoen taldea izan zen kaltetuena; zehazki, biztanleria talde horren %31 galdu zen 2007 eta 2017 artean, eta ia-ia talde horrek eragin zuen gazteen kolektibo osoaren galera. Aitzitik, tarteko adin taldeak, 20 eta 24 urte bitartekoenak, langileen %10 galdu zuen, eta adin txikieneko taldeak, berriz, datua hobetu zuen aldi horretan, %13 igota.

Susperraldia ere ez zen berdina izan hiru adin taldeentzat; izan ere, gazteenen multzoko langileak ugaritu ziren gehien 2017tik 2023ra bitartean. Bai 16 eta 24 urte bitarteko taldeak, bai 20 eta 24 urte bitarteko taldeak %18ko hazkundera izan zuten; ostera, adin handieneko taldeak pertsonen %10 baino ez zuen berreskuratu.

Bilakaera horren ondorioz, taldeen pisua handiagoa da orain tarteko adin taldean (gazte landunen %36), eta, lehen aldiz, aurreratu egin du adin handieneko taldea, krisi ekonomikoak eragindako exodoak gehien kaltetu zuena; une honetan, %34 dira, eta tarte bat ateratzen dio oraindik gazteenen taldeari, guztizkoaren %30 baitira azken horiek.

16. GRAFIKOA. LANERAKO ADINEAN DAUDEN NAFARROAKO GAZTEEN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA (2007-2023)




Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.

Gertatutakoaren interpretazioak zerikusia du krisiaren ondorioz izandako lan immigrazioaren geldialdiarekin, eta, aldi berean, baita krisiak **gazte asko (etorkinak zein espainiar nazionalitatekoak) langabeziara eramatearekin** ere. Lehenengo multzoko gehienek jatorrira itzultzea erabaki zuten, eta bigarren multzoko zati handi batek, berriz, Foru Komunitatetik beste herrialde batzuetara emigratu zuen, aukera berrien bila. Horiez gain, aipatu behar dira hezkuntza zikloa amaitu ondoren lan merkatuan sartzeko edota ikasketekin jarraitzeko modurik aurkitu ez zuten gazteak.

Krisiaren lehen bosturtekoan (2008tik 2013ra), lanerako adinean zeuden ia 12 mila gazte desagertu ziren biztanleen erroldatik; gazte horien %35 atzeritikoak ziren, eta gainerakoak nafar jatorrikoak. Galera horrek eragin apur bat handiagoa izan zuen gizonengan emakumeengan baino; dena den, batzuen eta besteen arteko sexu-ratioa ez zen asko aldatu. Geroagoko susperraldian —hasieran motela izan arren—, langileen kopurua leheneratu ahal izan zen, gazte langile gehiago iristeaz batera, bai emigratu zuten nafar gazte batzuk pixkanaka itzuli zirelako, bai **atzerriko immigrazioa berraktibatu zelako, batez ere 2019tik aurrera** eta, bereziki, pandemia gainditu ondotik; nolana ere, aurrez aipatu bezala, ez zen lortu krisi ekonomikoaren aurreko biztanleria gaztearen bolumena.

Krisi ekonomikoa hasi aurretik, 2007. urtean, lan merkatuan zeuden Nafarroako gazteak maila gorenera iritsi ziren: guztira 66.821 gazte langile ziren, hau da, aktibo egon zitezkeen gazteen %63,84; aktibo ez zeuden gainerako gazte gehienek hezkuntza sistemaren barnean jarraitu zuten. Tasa hori, Nafarroako biztanleen jarduera-tasa osoan izandakoa baino apur bat txikiagoa izan arren, nabarmendu egin zen, Espainiako gazteek maila baxuagoa lortu zutelako, bai gizonen artean, bai emakumeen artean. **Lehen aipatu bezala, krisi ekonomikoak langabeziara, lehenbizi, eta Nafarroatik kanpo, gero, eraman zuen lanean zeuden gazteen kopuru handi bat; gazte horiek, hain zuzen, lan merkatutik atera ziren, bai hezkuntza sistemara itzultzeko, bai Nafarroako lan merkatutik kanpo beste lan aukera batzuk bilatzeko.** 2008 eta 2013 artean, Nafarroako gazteen jarduera-tasa ia 7 puntu jaitsi zen; balio absolutuetan adierazita, 13.494 gaztek utzi zuten lan merkatua. Are gehiago jaitsi ziren biztanleen jarduera-tasak hurrengo urteetan; 2015ean, %50etik behera gelditu zen, eta, geroago, susperraldi bideari ekin eta gero, %47-48ra jaitsi zen krisi pandemikoaren bi urteetan. Horren ondotik, **2023an, %51,9ra iritsi zen jarduera-tasa; zehazki, 53.194 gazte egon ziren lan merkatuan sartuta.**

17. GRAFIKOA. JARDUERA-TASAREN BILAKAERA (2007-2023)



Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.


Nafarroako gazteen adin taldeen arabera, **lortutako jarduera-tasek agerian uzten dute adin handienekoen taldea (25 eta 29 urte bitartekoena) nagusitzen dela**, talde horretan baitago lan merkatuan sartutako biztanleria kopuru handiena, gainerako taldeekin alderatuta. Beraz, **adinean aurrera egin ahala, handiagoa da gazteek lan merkatuan duten integrazio maila**. 2023an, talde horretako aktiboak Nafarroan erroldatutakoen %88,4 ziren, krisi ekonomikoa hasi zenetik lortutako tasa altuenetako bat; tarteko adin taldean, %49,1 ziren aktiboak, eta adin txikienekoen taldean (20 urte baino gutxiagokoak), berriz, %11.

Adin talde bakoitzeko jarduera-tasen bilakaera desberdina izan da 2007az geroztik, lanerako adinean dagoen biztanleriarekin gertatzen den moduan. Lan merkatutik kanporatzeak berdin eragin zien talde guztiei 2012ra arte, baina gerora izandako bilakaera desberdina izan da. Adin txikieneko taldearen tasek behera egin zuten, 2013. eta 2014. urteetan salbu, eta ordutik oso maila txikian jarraitu zuten, %7 eta %11 artean (krisiaren aurreko tasen erdia, gutxi gorabehera). Tarteko taldeak, berriz, joera negatiboa izan zuen 2013tik, eta, geroztik, %50 inguruko tasak izan ditu. Azkenik, 25 eta 29 urte bitartekoena taldea errekuperatu da hobekien 2012az geroztik; pandemia garaian susperraldi hori moteldu bazen ere, azken urtean indarberritu egin dela dirudi.

Nafarroako gazteen jarduera-tasek agerian uzten dute, lan merkaturatzeari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean azken urteetan sortu den

arrakala. Bi tasak ia berdindu egin ziren pandemiaren aurreko urteetan, baina, gero, COVID-19aren pandemia zela-eta bi taldeetan atzera egin ondotik, gizonezkoen tasak emakumezkoenak baino hobeki errekueratu dira. Hala, arrakala handia sortu da bi taldeen artean, eta, 2023an, ia 10 ehunekokoa izan zen aldea: %57ko jarduera-tasa gizonezkoek, eta %47koa emakumezkoek.

18. GRAFIKOA. GAZTEEN JARDUERA-TASAREN BILAKAERA SEXUAREN ARABERA (2007-2023)




Iturria: NASTAT. Guk geuk egin.

LANGABEZIA ETA BIZTANLERIA GAZTE AKTIBOAREN OKUPAZIOA

Mende honetan izan diren bi krisiek agerian utzi dute lan merkatuak gazteekin duen portaera kaltegarria; izan ere, ekonomia ongi ez zihoan uneetan biztanleria talde hori lanik gabe uzteaz gain —doitze uneetan, haien langabezia areagotuta—, talde horrekin gogorrago jokatu da biztanleria osoarekin baino. **Bai finantza krisian, bai COVID-19an, nabarmen handitu ziren langabeziako zifrak Nafarroako gazteen artean, eta, aldi berean, handitu egin zen biztanleria osoarekiko arrakala hori.** Bi krisien susperraldian, murriztu egin zen segmentu demografiko horretan langabezian zeuden pertsonen kopurua, eta, gaur egun, 8.700 langabe daude. Era berean, langabezia-tasa eta lan arrakala ere gutxitu ziren; lehenengoa, **%16,4koa izan zen 2023an, eta bigarrena, %7koa.**

Zehatzago esanda, krisia hasi baino lehen, 2007ko laugarren hiruhilekoan, Foru Komunitateko gazteen langabezia-tasa minimo historikora iritsi zen, %6,5era (guztira, 4.310 pertsona). Geroztik, **langabeziak gora egin zuen, 2013ra arte, eta urte horretan izan zen langabezia-tasa altuena; gazteria aktiboaren %36,5 lanik gabe zegoen**: 12.436 gazte nafar (krisiaren aurretik baino ia 3 aldiz gehiago). Ordutik aurrera, **gazteen langabezia-tasak behera egin du pixkanaka Nafarroan, Espainian baino erritmo biziagoan, gainera**; hala, 2023an, Espainiako gazteen langabezia-tasa baino ia 5 ehuneko txikiagoa izan zen, 2023an %21,2koa baitzen Espainian.

19. GRAFIKOA: NAFARROAKO GAZTE AKTIBOEN BILAKAERA, OKUPAZIOAREN ARABERA (2016-2023)




Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.

Langabezian dagoen biztanleria sexuaren arabera alderatuta, generoen arteko ekitaterik eza jarri da mahai gainean, kasu honetan gizonezkoen kalterako. **Bai kopuruari dagokionez, bai tasari dagokienez, gaur egun, gazteen langabeziak gehiago eragiten die Nafarroako gizonei emakumeei baino.** Nafarroako gazteen %63,2 gizonak dira, eta gainerako %36a emakumeak. 2023an, gizonezkoen langabezia-tasa (%18,4) 6,3 ehuneko handiagoa izan zen emakumezkoena (%12,1) baino. Egoera ez da berria, eta ia urtez urte errepikatu da 2008an krisia hasi zenetik.

Igaro diren 15 urteetatik, lau urtetan soilik izan dira gizonezkoen langabezia-tasak emakumezkoenak baino txikiagoak; hain zuzen ere, alderantzizko egoera etenik gabea izan da 2018az geroztik. **Nafarroako gazte langabeen ezaugarri nahiko espezifikoak da** hori; izan ere, Espainian, oro har, gizonen eta emakumeen langabezia-tasen arteko arrakala ez da hain handia izan, eta, 2016-2020 aldian salbu, non gizonezkoen tasak emakumezkoenak baino handiagoak izan ziren, gainerako aldi kontrakoa gertatu da.

20. GRAFIKOA. NAFARROAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (2007-2023)




Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.

Langabezia gero eta handiagoa da gazteenez osatutako adin taldeetan; izan ere, krisietan gazteenak dira kaleratzen lehenak, eta, beraz, horiek dira kaltetuenak datu erlatiboetan. Nafarroa ez da salbuespen bat izan joera horri dagokionez, eta, 2007an, adin tarte txikienean (20 urte baino gutxiagokoetan) %13,24ko langabezia-tasa izatetik %54,04koa izatera pasatu zen, ia bost bider handiagoa. Zifra hori, gainera, gainditu egin zen krisiaren urte gogorrenetan, eta adin horietako aktiboen %70-80 izatera iritsi zen; geroztik, jaitsiz joan zen pixkanaka, 2023ko zifrara iritsi arte: %34 dira langabeak. Bestalde, 20 eta 24 urte bitarteko gazteen taldeari dagokionez, bilakaerak larria izateari utzi gabe, ez zen inoiz iritsi langabeziaren zifra horretara. 2007an, zehazki, %7,23ko langabezia-tasa zen; 2013an, %48,15eko gehienekora iritsi zen; eta geroztik, jaitsiz joan zen, 2023an %17,20koa izan arte. Azkenik, adin nagusieneko gazte aktiboen taldeak Nafarroako populazio osoaren bilakaeraren oso antzekoa izan du; hau da, 2007an, krisiaren aurretik, ia erabateko enplegu-tasa izatetik —%5,27ko langabeziarekin— 2013an gehieneko langabezia-tasa izatera pasatu zen, urte hartan langabeen %31,22 izan baitziren, eta, geroztik, ehunekoa jaitsiz joan da pixkanaka, egungo %12,90era iritsi arte.

Langabeziaren joera gazteen adin taldeak eta sexua kontuan hartuta aztertu ondotik, berretsi egin dira aurreko ondorioak; horrenbestez, **gizonezko gazteenak izan dira kaltetuenak krisi uneetan, baita langabeziaren ondorioak gehien jasan dituztenak ere.** Eskola uzte goiztiarra ere arruntagoa

da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino, eta, horrez gain, emakumeak prestakuntza handiagoarekin sartzan dira lan merkatuan; horrek guztiak, beraz, eragin kaltegarriagoa du gizonengan emakumeengan baino.


21. GRAFIKOA. NAFARROAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA (2007-2023)



Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.

Hezkuntza mailak oztupo izaten jarraitzen du Nafarroako gazteen okupaziorako, Espainia osoan bezala; hala, **zenbat eta hezkuntza maila txikiagoa izan, orduan eta langabezia handiagoa, eta alderantziz**. 2023an, 6.300 gazte langabek ez zuten gainditua Bigarren Hezkuntzaren 2. etapa eta Goi Mailakoa ez den Bigarren Hezkuntzaren Ondoko etapa, hau da, langabezia zen gazteen %72k. Baina bestalde, 2.400 gazte langabek bazuten Goi Mailako Hezkuntza, hau da, langabezia zen gazteen %28k. Beste era batera ikusita, 2023an maila txikiagoko ikasketak —hau da, Bigarren Hezkuntzaren 2. etapa eta Goi Mailakoa ez den Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko etapa baino beheragoko ikasketak— zituzten gazte aktiboek %27,6ko langabezia-tasa zuten, eta prestakuntza handiagoko gazte aktiboek, ordea, tasa txikiagoak; zehazki, %22,4koa zen 2023an Bigarren Hezkuntzaren 2. etapako eta Goi Mailakoa ez den Derrigorrezko Hezkuntzaren Ondoko etapako ikasketak zituzten gazte aktiboek langabezia-tasa, eta %8,8koa, aldiz, Goi Mailako ikasketak zituzten gazte aktiboena.

22. GRAFIKOA: LANGABEZIA ETA OKUPAZIOA, GAZTE AKTIBOEN IKASKETA MAILAREN ARABERA (2007-2023)



Iturria: NASTAT. Guk geuk egina.

Zenbaki absolutuetan, 2023an, 44.500 gazte zeuden lanean Nafarroan; horietatik %55 gizonezkoak ziren, eta gainerakoa, emakumezkoak. **Logikoa denez, langabezia-tasek okerrera egiten duten aldi berean, eta haien alderantzizko mailan, hobetzen dira okupazio-tasak. 2023an, lan merkatuan sartutako gazteen artean, %83,6ko okupazioa lortu zen; emakumezkoek izan zuten okupazio-tasa handiena, %87,9koa, eta, gizonezkoen okupazio-tasa, berriz, %81,6koa izan zen.**

Adin taldeen arabera, adin handieneko gazteek lortu dute, oro har, okupazio maila handiena, bai krisi garaietan, bai garapen garaietan. 2023an, 25 urtetik gorako gazte aktiboen okupazio-tasa %87,1ekoa izan zen; tarteko adin taldeko gazte aktiboek dagokienez, okupazio-tasa %82,80koa zen, eta 20 urtetik beherako adin taldeari dagokionez, %65,62koa. Kasu horietan guztietan, tasak 2007ko krisiaren aurreko maila altuen azpitik daude; izan ere, aldi hartan, gazte aktiboen ia erabateko enplegu-tasa lortu zen lehen bi kasuetan.

Gaur egun enplegua duten Nafarroako gazte gehienak soldatapekoak dira. Zehazki, 40.500 pertsona —hau da, Nafarroako gazte landunen %91— soldatapekok dira, eta gainerako %9a, berriz, enpresaburuak dira, soldatapeko langileak izan edo ez. Nafarroako soldatapeko gazteen maila apur bat txikiagoa da Espainiako gazteen ehunekoarekin (%94) alderatuta.

Soldatapeko gazteen %55 gizonak dira, eta %45 emakumeak. Hain zuzen, bi multzoetako soldatapekoen mailak bat datoz biztanleria landunaren tasa orokorraren mailekin.

Nafarroako gazteen artean, autonomoen kopurua eta ehunekoa murrizte joera betean daude, 2013an finantza krisian puntu gorenera iritsi zenetik; garai hartan, autonomoak %10,3 izan ziren, eta gaur egun, berriz, 3.254 afiliatu daude erregimen horretan, afiliazio osoaren %7,4. Bestalde, sexuen arteko aldeari dagokionez, azken urteetan eutsi egin zaio gizonetako autonomoak emakumetako autonomoak baino gehiago izateko joerari; emakume autonomoak %4,7 izan ziren 2023an, eta gizon autonomoak, %9,7.

KONTRATAZIOA, PREKARIETATEA ETA PARTZIALTASUNA.

Prekarietatea eta partzialtasuna dira, oraindik ere, enplegua duten gazteen kontratazioaren bi ezaugarri nagusiak; nolahi ere, lehen kasuan hobekuntza bat nabaritu da berriki, lan erreforma dela eta.

2023an, gazteen aldi baterako kontratuen proportzioa %76,3koa izan zen Nafarroan, hau da, krisi ekonomikoa hasi zenetik gaur arteko urte gehienetan lortutako ratioa baino 18 puntu txikiagoa. Ratio hori Foru Komunitateko biztanleria osoak izandakoaren oso antzekoa da; hala, gaur egun ez dago sexuaren araberako alde handirik, ez gazteei dagokienez, ez Nafarroako biztanleria osoari dagokionez, nahiz eta emakumeen proportzioa gizonena baino pixka bat handiagoa izan.

2023ko soldatapeko gazteen kontratazioko behin-behinekotasun tasek ere berriki lortutako hobekuntza nabarmena erakusten dute. Hala, ratioa jaitsi egin da, 2019ko %56tik gaur egungo %42,4ra. Jaitsiera horrek, gainera, soldatapekoen aldi baterako kontratazioan eragin handia izateaz gain, **murriztu egin du bien arteko arrakala, bien egoera ia berdintzeraino.**

Behin-behinekotasunarekin gertatzen den bezala, **gazteen lanaldi partzialeko kontratazioari dagokionez, egungo egoera nabarmen hobetu da aurreko aldiarekiko.** Lanaldi partzialeko kontratuak dituzten gazteen ehunekoa %19,6koa izan zen 2023an, eta, beraz, heren batean murriztu zen 2021ean (soilik bi urte lehenago) zegoen ehunekoa. Hobekuntza bi sexuetan antzeman da; dena den, eragin erlatibo handiagoa izan du emakumeen kasuan, %40 murriztu baita lanaldi partzialeko kontratua dutenen ehunekoa azken bi urteetan, eta, paraleloki, gizonena %30 murriztu da. Dena den, **genero arrakalak bere horretan jarraitzen du alderdi horri dagokionez; izan ere, 2023an, gizonezko gazteen %14 kontratatu zen lanaldi partzian Nafarroan, eta emakumezkoen %27.**

4. EMANTZIPAZIOAREN ERRONKA


Emantzipazio kontzeptua funtsezko elementua da egungo gizartean gazteek dituzten dinamikak ikertzeko. Zalantzarik gabe, gazteek bizitza autonomo bat bizi ahal izatea funtsezko helburutzat hartzen da haien garapenerako gaur egun. Helburu hori zenbait faktorek baldintzatzen dute (enplegua, familiaren errenta, prestakuntza, etxebizitza, etab.), zeinek, hurrengo orrietan aztertuta, bide ematen baitute egungo emantzipazio mailen gakoak ezagutu ahal izateko.

Azken urteotan, Nafarroako biztanleriaren emantzipazio mailaren bilakaera homogenea estandarizaturaz joan da, eta hori *Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkestaren* bidez egiaztatu ahal izan da; inkesta hori, hain zuzen, bi urtez behin egiten du NGIk, 2017. urtetik. Hala ere, inkestan bertan, bizitegi-emantzipazioa kontzeptuaren baitako bereizketak aztertu dira, eta azpimarratu da, kasu askotan, emantzipazio mota horrek ez dakarrela nahitaez autonomia osoa; beraz, bizitegi-emantzipazioaren tipologia desberdinak sortzen dira.

Horregatik, atal hau bizitegi-emantzipazioaren kontzeptuan oinarritzen da, *Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkesta (2023)* iturri nagusitzat hartuta.

2017tik 2023ra arteko bilakaerak erakusten duenez, ia bi puntu hobetu da Nafarroako emantzipazio-tasa; hobekuntza, gainera, are handiagoa izan da 2019tik eta 2021etik izandako bilakaera aztertuz gero (2,6 puntukoa eta 2,5 puntukoa, hurrenez hurren).


23. GRAFIKOA. BIZITEGI-EMANTZIPAZIO «OSOAREN» TASAREN BILAKAERA.
2017-2023



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Hala ere, **NGIk berriki egindako ikerlanetan, kategoria berri bat txertatu da azterketan**, emantzipazioaren kontzeptua askoz gehiago zehazten duena, hau da: **emantzipazio osoa** (bizitegi-emantzipazioaren ideiaz gain, independentzia ekonomikoaren ideia txertatzen da kontzeptuan). Hala, ikus daitekeen moduan, biztanleria emantzipatuaren %64,5ek soilik lortu du emantzipazio osoa edo erabatekoa; beraz, ondorioztatzen da **Nafarroako gazteen (16-34 urte) %30,6 soilik** (%47,4ren %64,5) **daudela erabat emantzipatuta; Nafarroako gazteen %16,8k** (%47,4ren %35,5ek), aldiz, **bizitegi-emantzipazioa soilik lortu dute.**

24. GRAFIKOA. BIZITEGI-EMANTZIPAZIO «OSOAREN» TASAREN BILAKAERA. 2023




Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Beharbada, emantzipazioaren gaia aztertzeko orduan, **pertsonen adina** da aldagai garrantzitsuenetako bat.

Emantzipaziorako adina kalkulatzeari dagokionez, literatura akademiko ugari dago, adin hori kalkulatzeko metodologia desberdinak agerian uzten dituena; metodologia horien artean, zeharkakoak (adibidez, Biztanleria Aktiboaren

Inkesta) eta zuzenak (esate baterako, aitortutako adina neurtzea) nabarmentzen dira. Diagnostiko bat denez, eta, beraz, politika publikoak proposatu eta ezartzeko bidean gidatzeko asmoa izanik, emantzipazioarako adina kalkulatzeko metodologia desberdinak alde batera utzita, informazio aipagarriena izanen da 2023ko Nafarroako Foru Komunitateko gazteen emantzipazioari buruzko inkesta lanaren emaitzei Eurostat kalkulu metodologia aplikatuz lortutakoa, zeinak, zehazki, datu hauek ematen baititu: **emantzipazio osoa lortu duen biztanleriaren batez besteko adina 29,4 urte da, eta bizitegi-emantzipazioa soilik lortu duen biztanleriarena, aldiz, 25,3 urte.**

25. GRAFIKOA: EMANTZIPATZEKO BATEZ BESTEKO ADINA, METODOLOGIEN ARABERA. 2023



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Nolanahi ere, kalkulurako zailtasuna eta metodologiaren arteko aldea ezagututa, badirudi **emantzipatzeko adina atzeratzen ari dela pixkanaka, eta egoera horrek fenomeno hori populazio gaztearen kontzeptuarekin lotzeko zailtasuna ere badakar.** Hori dela eta, emantzipatzeko adina neurtzeko tresnak planteatu beharko dira, agian gazteen irizpide teknikitik kanpo dauden biztanleria sektoreetan (*apirilaren 1eko Gazteriari buruzko 11/2011 Foru Legearen arabera, Nafarroan 14 urtetik 30 urtera bitartekoak dira gazteak*), eta, batez ere, segida historiko sendoak lortu beharko dira, zer bilakaera izan duten eta aplikatutako politika publikoek zer eragin izan duten ikusteko.

Adinaren aldagaiari dagokionez, argi dago emantzipazioarako tasak igo egiten direla pertsonen adinean gora egin ahala. Nolanahi ere, datu garrantzitsu batzuei

behatu behar zaie, hala nola **30-34 urteko adin tartean pertsona guztien %18,8k soilik dutela bizitegi-emantzipazioa.**


5 TAULA. GAZTEEN BANAKETA, ADINAREN ETA BIZITEGI-EGOERAREN ARABERA. 2023

Adina	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipazio osoa	Emantzipatu gabe
16-29	%16	%17,1	%66,9
30-34	%18,8	%68,3	%12,9
GUZTIRA	%30,6	%16,8	%52,7

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Sexuari dagokionez, argi dago nabarmen baldintzatzen duela bizitegi-emantzipazio osoa. Horri dagokionez, ikus daiteke **nesken emantzipazioa ia 10 puntu (9,7 puntu) handiagoa dela mutilena baino, eta hori ohikoa izan da azken urteetan.**


26. GRAFIKOA. BIZITEGI-EMANTZIPAZIO «OSOAREN» TASAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. 2023.



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Horrez gain, interesgarria da ikustea **emakumeen eta gizonen emantzipazio-tasen alderik handiena bizitegi-emantzipazioaren egoeran gertatzen dela;** alde hori, beharbada, zor zaio prestakuntzaren aldia luzatzeari edo emakumeen enpleguan prekariedade eta partzialtasun handiagoa izateari.

27. GRAFIKOA. BIZITEGI-EMANTZIPAZIOAREN TASA, EMANTZIPAZIO MOTEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2023




Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Biztanleriaren jatorriaren aldagaiak ere eragin nabarmena du emantzipazioaren fenomenoan. Bistakoa dirudi ezen migrazio prozesuak egin dituzten pertsonak, neurri handi batean, bizimodu autonomoa izateko egin dituztela; bizimodu hori, kasu askotan lan, prekarietatez bete dago, edo gabezia material agerikoak ditu, baina, aldi berean, autonomia maila nabarmena.

ikus daitekeenez, azken urteetan, **Espainiatik kanpo jaio eta Nafarroan emantzipatuta bizi diren gazteen ehunekoa 10-18 puntu handiagoa izan da Foru Komunitatean bizi diren nafar jatorriko edo beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako gazteen ehunekoa baino;** alde handiena, gainera, 2023ko datuetan ageri da.


28. GRAFIKOA. EMANTZIPAZIO-TASA OSOAREN BILAKAERA, JAIOTERRIAREN ARABERA



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Bitxia da, halaber, **Espainiatik kanpo jaiotako pertsonen Espainian jaiotakoek baino emantzipazio portzentaje handiagoak dituztela.**

29. GRAFIKOA: BIZITEGI-EMANTZIPAZIOAREN TASA, EMANTZIPAZIO MOTEN ETA JAIOTERRIAREN ARABERA. 2023



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Sarreran aipatu dugun bezala, aldagai askok baldintzatzen dituzte emantzipazio-tasak; horien artean, argi dago ordaindutako lana eskuratzeak, pertsonen baldintza materialak hobetzen dituenez, emantzipatuen ehunekoak handitzen laguntzen duela. Hala ere, gaur egungo fenomenoek, hala nola lan prekarietateak edo enpleguaren behin-behinekotasunak, ez dute bermatzen lana duten pertsonak emantzipatuta egonen direnik. Izan ere, nabarmentzen da **lan egiten duten pertsonen ia erdiak (%48,5) emantzipatu gabe daudela edo bizitegi-emantzipazioa soilik lortu dutela.**

6. TAULA: BIZTANLERIA EMANTZIPATUA, EMANTZIPAZIO MOTAREN ETA LAN EGOERAREN ARABERA. 2023

Lan egoera	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipazio osoa	Emantzipatu gabe
Ikasten (jarduerarik gabe)	%14,1	*	%83,6
Ikasten eta lanean	*	*	%62
Soilik lanean	%16,8	%51,5	%31,7
Langabezian	*	%29,7	%50,3
GUZTIRA	%16,8	%30,6	%52,7

*Laginketa erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Aurreko atalean aipatu den bezala, jakina da ikasketak amaituta izatearen eta emantzipazio mailaren arteko korrelazioa. Berriro ere, zenbait fenomenok, hala nola prestakuntza maila handiko pertsonen gainkualifikazio handiak edo langabeziak, zeharka baldintzatzen dute emantzipazioa. **Esan daitekeen bezala ikasketa maila handiagoa izateak lanpostu bat edukitzea errazten duela baina ez duela bermatzen, era berean, baieztatu dezakegu maila akademiko handiagoa izateak emantzipazioa errazten duela baina ez duela bermatzen.**

7. TAULA. BIZTANLERIA EMANTZIPATUA, EMANTZIPAZIO MOTAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. 2023

Ikasketa maila	Soilik bizitegi-emantzipazioa	Emantzipazio osoa	Emantzipatu gabe
Goi mailako ikasketak	%19,5	%38,8	%41,7
Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntza	%15	%21,9	%63,1
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza	*	%30,8	%56,6
GUZTIRA	%16,8	%30,6	%52,7

*Laginketa erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Emantzipazioaren fenomenoarekin korrelazioan dauden aldagai nagusietako batzuk planteatu ondoren, gazteen emantzipaziorako arrazoi nagusietako batzuk aurkeztuko ditugu segidan. Funtsean, bi alderdi hauek dituzte oinarri, elkarrekiko

berezko lotura dutenak: **independizatzeko nahia eta bikotekidearekin bizitzeko gogoia.**

Datu horiek homogeneousak dira segida historikoari dagokionez, baina, halaber, zertxobait desberdinak dira gizonen eta emakumeen artean. Emantzipatzeko arrazoi gisa bikotekidearekin bizitzeko nahia adierazten dutenen artean, emakumeek ehuneko handiagoa dute, baita ikasketengatik emantzipatzen direnen artean ere (eta hori bat dator goi mailako ikasketa gehiago izatearekin).

Bistakoa denez, ikasketengatik lekualdatzeen ehunekoak behera egiten du pertsonen adinean gora egin ahala; kontrara, independentzia nahiaren eta bikotean bizitzeko gogoaren ehunekoak handitu egiten dira adinean gora egiteaz batera.

8 TAULA. EMANTZIPATZEKO ARRAZOIAK, PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOAREN ARABERA. 2023

Etxe mota	Sexua		Adina		Jatorria	
	Emakumea	Gizona	16-29	30-34	Espainia	Beste bat
Independizatzeko gogoia	%30,6	%45,6	%35,1	%40	%38,0	%36,6
Bikotean bizitzeko nahia	%29,0	%24,1	%23,4	%30,2	%26,4	%27,2
Lanagatik lekualdatzea	%13,2	%19,6	%13,6	%18,8	%14,4	%19,3
Ikasketengatik o lekualdatzea	%27,5	%14,9	%28,1	%14,9	%26,6	*

*Laginketa erroreak izan ditzaketen datuak. Ez esanguratsuak

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Emantzipazio osoaren edo bizitegi-emantzipazioaren arrazoiei buruzko informazioa dago, baita ez emantzipatzeko arrazoiei buruzkoa ere. Kasu gehienetan, emantzipatzeko behar diren baliabide ekonomikoak dira emantzipatzeko arrazoi nagusia; beraz, azterketa beste aldagai batzuetara zabalduko da.

Atal hau amaitzeko, eta kapituluaren hasieran egin bezala, egokitzat jo da **emantzipazio osoa eta bizitegi-emantzipazioa bereiztearen garrantzia nabarmentzea**. Hain zuzen ere, 2023an Nafarroan emantzipatuta zeuden gazteei dagokienez (%47,4), %35,5ek bizitegi-emantzipazioa soilik lortu zuten, eta %64,5ek emantzipazio osoa zuten. Horrek adierazten du gazte asko zuzenean familiakoen mende daudela, baita etxetik kanpo bizi badira ere.

Aurreratu denez, badira sexuaren araberako bereizgarriak, emakume emantzipatuen ehunekoa handiagoa baita gizonena baino; dena den, emakume horiek independentzia txikiagoa dute (emakumeen %61ek lortu dute emantzipazio osoa, eta gizonen %68k).

Bistakoa denez, adina aldagaia kontuan hartuta, **emantzipazio osoaren ehunekoa askoz handiagoa da 30 eta 34 urte bitartekoen artean, %68 inguru; 16 eta 29 urte bitartekoen artean, berriz, %17 baino ez da.**

Azkenik, **independentzia ekonomikoaren eta emantzipazio osoaren artean dagoen lotura estua aipatu behar da**, hala nabarmentzen baita segida historikoak ikertzean; gainera, horrek agerian uzten du **politika publikoen funtsezko zenbait elementuk ezin izan dituztela mendean hartu hain erabakigarriak diren bi arloren inertziak, hala nola etxebizitzaren garestitzea (hurrengo lerroetan aztertuko da, haien edukitza-moduaren arabera), eta lan merkatuaren prekaritatea eta partzialtasuna.**

ETXEBIZITZA, EMANTZIPAZIORAKO FUNTSEZKO ELEMENTUA.

Lehen aurreratu denez, **etxebizitzaren prezioa Nafarroako emantzipazioaren ehunekoak beherantz estutzen dituen elementuetako bat da**, Espainia osoan gertatzen den bezala; Europako beste herrialde batzuetan, ordea, ez da horrela gertatzen, batez ere azken hamarkadetan etxebizitza politika publikoek eragin nabarmena izan duten herrialdeetan. Segidan aztertuko da gazteek zer modalitatetan dituzten Nafarroan etxebizitzak, baita zer zenbatekori egin behar dieten aurre eta zerk bultzatzen dituzten modalitate bat edo bestea aukeratzera ere.

Azkenik, gogoeta bat egingen da Nafarroako Gobernuaren Etxebizitzako Departamentua sustatzen ari den edukitza-modu berri bati buruz (erabilera lagapenari). **Eredu horren bidez, alokairua edo erosketa dikotomiarekin hautsi nahi da, irtenbide bat eman ahal izateko herritarrek (ez soilik gazteek, baina batez ere haiek) duten bizitegi-beharrari.**

Jakina da Espainian, tradizioz, jabetza ereduaren alde egin izan dela, erregimen frankistak bultzatutako etxebizitza-politiken ondorioz, besteak beste; hala eta

guztiz ere, gazteen artean, alokairuak nagusitasun handiagoa du etxeak jabetzan izateak baino. **Nafarroan, 2023an, gazteen %47,4 zeuden emantzipatuta, eta haietatik, %60 baino gehiago (zehazki, %62,3) alokairuan bizi ziren; urteak joan urteak etorri, gora egin du joera horrek, eta 2023an inoizko daturik handiena izan zuen.** Horri dagokionez, oso adierazgarria da jabetzako etxebizitzaren ehunekoa ia 13 puntu jaitsi dela 6 urte gutxitan. Zenbait faktoreren ondorioz gertatu da, baina aipatu behar dira, batez ere, salerosketaren prezioen igoera eta, etxea erosi ahal izateko, banku kredituen baldintzak zorrotzu izana.

9 TAULA. BIZITEGI-EMANTZIPAZIOA LORTU DUTEN GAZTEEN ETXEBIZITZAREN EDUKITZA-ERREGIMENA. 2017-2023


Etxebizitzaren edukitza-erregimena.				
	2017	2019	2021	2023
Jabetza	%39,7	%38,5	%29,3	%26,7
Alokairua	%55,3	%53,6	%58,1	%62,3
Etxebizitza lagapena eta beste batzuk	*	*	%12,6	%11,0
Guztira	%100	%100	%100	%100

*Laginketa erroreak izan ditzaketan datuak. Ez esanguratsuak

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Bereizitako datuak xehetasun handiagoz aztertuz gero, ikus daiteke **alokairu erregimena, kasu gehienetan, pisu partekatuetan izaten dela** (bai bikotekidearekin, bai beste pertsona batzuekin); **era berean, etxebizitza erosi den kasuetan, bikotean erositakoen ehunekoa bi aldiz handiagoa baino gehiago izan da bakarka erositakoena baino.**

30. GRAFIKOA: ETXEBIZITZAREN EDUKITZA-ERREGIMENA. 2023



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Era berean, edukitza-erregimena aldagai esanguratsuen arabera banatzean, ikus daiteke **adinak, jatorriak eta ikasketak amaituta izateak eragin nabarmena dutela ehunekoetan**. Batez ere, talde hauek hautatzen dute alokairuaren aukera: gazteenek (16 eta 29 urte bitartekoen %71,1ek, eta 30 eta 34 urte bitartekoen %52,8k); atzerritar jatorrikoek (%85,1ek), Nafarroan sorturikoekin edo beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritakoekin alderatuta (%49,9); eta ikasketa maila baxuagoak dituztenek (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza edo Lehen Hezkuntza amaituta dutenen %74,3k, eta goi mailako ikasketak dituztenen %52,1ek).

10. TAULA. EDUKITZA-ERREGIMENA, ALDAGAI ESANGURATSUEN ARABERA. 2023

	Alokairua	Jabetza	Etxebizitza lagapena edo beste batzuk
Guztira	%62,3	%26,7	%11,0
Adina	16-29	%71,1	*
	30-34	%52,8	%39,2
Jatorria	Nafarroa edo beste autonomia-erkidego batzuk	%49,9	%35,4
	Beste herrialde bat	%85,1	*
Emantzipazio mota	Bizitegi-emantzipazioa	%77,3	%9,2
	Emantzipazio osoa	%53,9	%36,6
Bukatutako ikasketak	Goi mailako ikasketak	%52,1	%35,6
	DBHren Ondokoa	%75,2	*
	DBH edo LH	%74,3	*


*Laginketa erroreak izan ditzaketan datuak. Ez esanguratsuak

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Beraz, etxebizitza alokairuan izatea da ohikoena Nafarroako gazteen artean; hain zuzen ere, joera hori, lehen adierazi bezala, ez dator bat historian zehar, ez Nafarroan ez estatu osoan, nagusi izan den jabetza ereduarekin. **Beraz, gero eta desoreka handiagoa dago eskaintzaren eta eskariaren artean (azken hori da nagusi); hain zuzen ere, arrazoi hori eta beste zenbait faktore direla eta, alokairuen prezioa gero eta gehiago hazi da Nafarroako Foru Komunitatean.**

Bada, halaber, larritzat hartzen den faktore bat, etxebizitzaren arloko hausnarketa estrategikoari bide eman behar diona. Ia bi urtetan, 10 puntu jaitsi da alokairuan 2 urte edo gutxiago egotea aurreikusten duten gazteen kopurua; aitzitik, 9 puntu inguru igo da alokairuan 5 urte baino gehiago egonen direla aurreikusten dutenen kopurua. Hau da, **egungo joeraren arabera, alokairuko etxebizitzaren eskariak gorantz jarraituko du etorkizunean, ez soilik gazteen artean, baita 34 urtetik gorako pertsonen artean ere.**

31. GRAFIKOA. ALOKAIKURUKO ERREGIMENEAN BIZITZEKO DENBORA AURREIKUSPENAK, 2021-2023



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Beraz, begi-bistakoa da **alokairuko etxebizitzaren eskaintzaren eta eskariaren artean egun dagoen desoreka, baita desoreka horrek etorkizunean izanen duen goranzko joera ere.** Hori dela eta, **etxebizitzaren inguruko gero eta kezka handiagoa dago Nafarroako herritarren artean, gazteen artean, bereziki.** Gaur, herrialde osoko eztabaida publikoan txertatu dira lehen soilik hiriburu handiekin lotuta zeudela ziruditen zenbait gai, hala nola etxebizitza

hutsen kontzeptua eta alokairuen prezioen erregulazioa; kezka handieneko gai bihurtu dira, gainera.

Horregatik, eta gero eta premia eta kezka handiagoa dagoenez, **garrantzi berezia hartzen ari dira etxebizitzaren arloko politika publikoak; politika horien orientazioa, gainera, aldatu egin da, bai eskualde mailan, bai estatu mailan.**

ETXEBIZITZA POLITIKA PUBLIKOAK.

Nafarroan, **politika publikoei dagokienez, 2015az geroztik beste norabide bat eman zaio etxebizitza politikari; hala, bultzada handiagoa eman zaie alokairuko parke publikoa handitzeari (Nasuvinsaren bitartez), emantzipaziorako laguntzak ezartzeari (Emanzipa), BOEak mugagabe kalifikatzeari, eta beste neurri batzuei.** 2019-2023ko legegintzaldian *Navarra Social Housing* delakoa sustatu zen, fokua ia eskusiboki alokairu babestuko etxebizitzaren sustapen publikoan jarrita. Oro har, biztanleria osoarentzako politikak izan arren, eragin nabarmena dute gazteengan; izan ere, gazteen baliabideak mugatuagoak dira, eta ehuneko handiago batean bideratzen dira alokairura.

Alokairuko etxebizitzaren eskaria zein den ikusteko iturri garrantzitsu bat Nafarroako Gobernuaren etxebizitza eskatzaileen errolda da. 2011n sorturiko tresna horrek babes erregimen bat duten etxebizitzak (alokairukoak nahiz erostekoak) eskatzen dituzten pertsonen datuak biltzen ditu. **Bistakoa da erroldak ez duela eskariaren datu objektiborik emanen** (herritarren zati batek ez duelako horren berri, edo *DAVID* eta *Emanzipa* alokairurako laguntzak eskuratzeko baldintza delako), baina **bilakaerak joera argiak erakusten ditu**, eta joera horietatik zenbait ondorio atera daitezke.

Azken bi urteetan, gora egin du etxebizitza babestuen eskatzaileen kopuruak, maximo historikoetara iritsi arte, eta goranzko joera horrek, gainera, oraingoz ez du agortze zantzurik.

11. TAULA. ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKATZAILEEN ERROLDA, ADINAREN ARABERA. 2023KO IRAILA

	16-29	30-34	35 baino gehiago	GUZTIRA
--	-------	-------	------------------	---------

Eskatzaileen kopurua *				
Erostea	2.407	2.446	3.800	8.653
Alokatzea	4.435	3.603	13.495	21.533
Erostea eta alokatzea	1.352	1.301	2.337	4.900
Erostea	%37,9	%50,5	%56,1	%49,1
Alokatzea	%27,3	%40,6	%48,5	%42,3
Erostea eta alokatzea	%35,6	%46,8	%56,5	%47,8
GUZTIRA	5.490	4748	14.958	25.196
Aldea, 2021eko irailarekin alderatuta	%29,8	%43,8	%49,2	%43,5

Eskaera berean, erosteko eta alokatzeko aukerak adieraz daitezke, eta, era berean, eskaera bakarrean eskatzaile bat baino gehiago egon daitezke. Pertsona kopurua zenbatzen da, haien adinaren arabera, ez eskaeren kopurua.

Iturria: NGren etxebizitza zerbitzua. Guk geuk egina.

Eskatzaileen gorakada horrek hipotesi bat azaleratu du, etxebizitza politika publikoak kudeatzen lagundu behar duena; hau da, azken urteotan **etxebizitza babestu gehiago egiteak** —kasu honetan, **alokairukoak**— **ezkutuan zegoen eskaera utzi du agerian**, zentsuaren bidez adierazten ez zena.

Gazteei dagokienez ere, datuek bi fenomeno erakusten dituzte. Alde batetik, alokairuaren eskariak erostekoak baino lehentasun handiagoa du, ez soilik gazteen guztizkoarekiko diren ehunekoei dagokienez, baita azken bi urteetan (2021etik 2023ra) izan diren aldaketei dagokienez ere. Eta bada beste fenomeno bat ere, Nafarroako Gobernu bera gogoeta egitera eraman behar lukeena gazteei begira garatu dituen etxebizitza politika publikoen inguruan.

Alde handia dago Iruñerrian etxebizitza (alokatzeko edo erosteko) eskatzen duten gazteen ehunetik Nafarroako gainerako zonaldeetako ehunekora; izan ere, ehunekoa bikoitza baino handiagoa da hiriburuan eta inguruan, lurraldeko gainerako zonaldeetakoekin alderatuta. Horrek bi egoera adieraz ditzake: batetik, gazteek gehiago jotzen dutela eskaintza publikora sektore pribatuaren prezioa garestiagoa den lekuetan (Iruñerrian), eta, bestetik, gainerako tokietan ez dagoela gaiari buruzko informaziorik. Eskaintza Iruñerrian kontzentratu izanak eragindako «erakartze efektuaren» ondorio ere izan daiteke; horrek, noski, eskatzaileen itxaropenak ere baldintzatzen ditu.

12. TAULA: ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKATZAILEEN ERROLDAN AGERI DIREN GAZTE ERROLDATUAK. 2023KO IRAILA

% / erroldatutako populazioa*

Aldea, 2021eko irailarekin alderatuta (ehunekoak)

Eremua	16-29	30-34	16-29	30-34
Alokairua				
Nafarroako Eki-erdialdea	%2,5	%6,2	1,0	2,5
Ipar-mendebaldea	%2,1	%4,0	0,8	1,5
Iruñerria	%5,8	%13,5	0,9	4,1
Pirinioak	% 3,3	%6,4	0,4	1,4
Erriberagoitia	%2,0	%4,9	0,5	2,1
Estellerria	%2,0	%5,1	0,7	1,1
Tutera	%3,1	%7,0	0,8	1,8
GUZTIRA	%4,5	%10,2	0,9	3,2
Erosketa				
Nafarroako Eki-erdialdea	%1,1	%3,9	0,5	2,1
Ipar-mendebaldea	%0,9	%2,3	0,2	1,0
Iruñerria	%3,6	%10,4	0,9	3,6
Pirinioak	%2,1	%5,5	0,5	1,7
Erriberagoitia	%0,6	%1,4	0,1	0,5
Estellerria	%0,8	%2,2	0,1	0,6
Tutera	%0,5	%1,6	0,2	0,7
GUZTIRA	%2,4	%6,9	0,6	2,4


*EINen errolda estatistika jarraituaren azken behin betiko emaitzak erreferentziatzat hartuta (2022ko urtarrilaren 1ekoak).

Iturria: NGI, Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Bereziki etxebizitzaren arloan emantzipazioa bultzatzeko politika publikoei dagokienez, **Emanzipa** programak, ezarri zenetik, urteetan izan duen eragina nabarmendu behar da. Emantzipazioari buruzko inkestaren arabera⁶, **alokairurako laguntza programa** horrek **alokairuko etxebizitzetan emantzipatuta dauden gazte guztien %10,5i lagundu die** (egiaz, zerga mekanismo baten bidez laguntzen da); beraz, gero eta handiagoa da ehunekoa, eta ez du parekorik herrialdeko beste erkidegoetan.

32. **GRAFIKOA.** EMANZIPA LAGUNTZAK 35 URTETIK BEHERAKOENTZAT (2019-2023).

⁶ 2023ko emantzipazioaren inkestan egindako kalkulan, %10,5era iristeko, urteetan emandako *Emanzipa* laguntzen batura hartu zen kontuan, eta, beraz, batura hori ez litzateke alderatu behar EINean zehazten den gazteen kopuruarekin; izan ere, emandako laguntzak gazte onuradun gutxiagori dagozkie (gazte horietako askok onuradun izateko eskubidea izan duten urteetan jaso baitute laguntza).



Iturria: NGren etxebizitza zerbitzua. Guk geuk egina

Era berean, kontuan hartu behar da Etxebizitza Departamenduak bildutako informazioak berak ere oso datu garrantzitsuak erakusten dituela, diagnostiko honetan aipatutako joerak baieztatzean, **hala nola Foru Komunitateko lurralde bakoitzean programari atxikitako gazteen alokairuen prezioetan dagoen aldea.**

13. TAULA: EMANZIPA: KONTRATUAK ETA BATEZ BESTEKO ALOKAIRUA, ESKUALDEKA

ESKUALDEA	KONTRATU GUZTIAK	BATEZ BESTEKO HILEKO ALOKAIRUA
Baztan - Bidasoa	63	459,40 €
Iruñerria - Hiri-eremua	1.773	604,26 €
Iruñerria - Ibarrek	33	537,01 €
Larraun - Leitzalde	16	483,22 €
Pirinioak	9	388,33 €
Pirinioaurrea	18	444,01 €
Erribera	340	496,00 €
Erriberagoitia	85	416,60 €
Sakana	66	469,81 €
Zangoza	20	479,00 €
Estellerría - Jurramendi	146	492,47 €
Estellerría - Estellerriko Erribera	111	419,12 €
Izarbeibar - Novenera	43	491,40 €
Erdialdea	111	478,72 €
GUZTIRA	2.834	555,60 €

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Azkenik, garrantzitsua da **gazteek emantzipazioaren arloko politika publikoei buruz zer dakiten** erakustea; izan ere, politika publiko horiek, oro har, eta horietako batzuk, bereziki, gehiago hedatzen lagundu behar da.

14. TAULA. GAZTEEK LAGUNTZA PUBLIKOEI BURUZ DUTEN EZAGUTZA. 2023

	Adina		Sexua		Jaioterria	
	16-29	30-34	Emak.	Giz.	Espainia	Beste batzuk
Etxebizitza babestuaren eskatzaileen errolda	%21,7	%36,5	%29,8	%21,6	%26,0	%24,6
Alokairuaren poltsa	%13,0	%27,2	%19,1	%14,5	%17,7	%14,4
Emanzipa	%38,7	%54,5	%45,5	%40,4	%47,6	%30,3
DAVID programa	%8,8	%17,2	%12,8	%9,3	%10,7	*
Beste batzuk	*	*	*	*	*	*
Ez du bat bera ere ezagutzen	%51,5	%33,1	%42,2	%51,0	%43,8	%54,4


	Soilik emantzipazioa	bizitegi-emantzipazio osoa	Emantzipatu gabe	GUZTIRA
Etxebizitza babestuaren eskatzaileen errolda	*	%35,7	%21,3	%25,6
Alokairuaren poltsa	*	%25,1	%12,1	%16,8
Emanzipa	%44,7	%57,5	%33,8	%42,9
DAVID programa	*	%19,7	*	%11,0
Beste batzuk	*	*	*	*
Ez du bat bera ere ezagutzen	%48,1	%31,3	%55,2	%46,7

*Laginketa erroreak izan ditzaketan datuak. Ez esanguratsuak

Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Emantzipazioaren aldeko politika publikoei dagokienez, oso garrantzitsua da **jakitea zer iritzi duten Nafarroako gazteek Nafarroako Gobernuak arlo horretan egin beharko lukeenari buruz**; iritzi hori, hain zuzen, jasota dago 2023ko emantzipazioari buruzko inkestan. Inkestaren arabera, **alokairuen prezioan izandako esku-hartzea, laguntzak edo dirulaguntzak, eta enpleguaren arloko neurriak** dira ekimen garrantzitsuenak.

33. GRAFIKOA. EMANTZIPAZIOA ERRAZTEKO NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATUTAKO NEURRIAK. 2023



Iturria: NGI. Emantzipazioari buruzko inkesta 2023.

Jada garrantzitsua da Nafarroako alokairu kontratuen erregistroaren inguruan egindako urratsa; izan ere, erregistro hori informazio iturri fidagarria izanen da merkatuaren egoerari buruzko askotariko datuetarako, eta, horrela, merkatuaren benetako egoera zehazteko orduan, ez da bestelako datuak ematen dituzten iturrien mende egon behar izanen. Horrenbestez, lehen eskuko datuetatik abiatuta egin ahal izanen dira etxebizitza politika publikoak; zalantzarik gabe, egoera hobea izanen da erabakiak hartzeko, oro har, etxebizitzaren arloan eta, bereziki, emantzipazioko politiken gainean.

5. AISIA OHITURAK ETA ASTIALDIAREN ERABILERA

Gaztaroa bizi etapa garrantzitsua da; izan ere, etapa horretan, aisiako eta astialdiko espazioak sozializaziorako gune bihurtzen dira, eta horiek funtsezkoak dira pertsonen garapen indibidual eta sozialerako.

Dena den, **gazteen aisia ohiturak eta astialdiaren erabilera** maiz aztertu badira ere, berezko ezaugarriak dituzten gaiak dira, eta horrek **zaildu egiten du luzetarako ikerlan estatistiko sendoa egitea**. Are gehiago Nafarroako eremuan; izan ere, gai horiek noizbehinka, une zehatz batzuetan, aztertu dira, eta, gehienetan, NGIak berak bultzatutako ikerlan zabalagoen barruan.

Hala, diagnostiko honetan, *Nafarroako gazteen 2022ko inkestaren* «Kultura, aisia eta astialdia» atalean jasotako informazio deskribatzailea hartuko da oinarri. Horrez gain, gazteek aisiaz eta astialdiaz gozatzeko dituzten joeren inguruko zenbait ideia aipatuko dira, kualitatiboagoak, estatuko ikerlanetatik ateratakoak.

Azterketa azken hamarkadetara eramanda, ikus daiteke **gazteen aisiak askoz ere bilakaera bizkorragoa izan duela, eta askoz ere aldaketa sakonagoekin, neska-mutilen bizitzako beste esparru batzuek baino**, hala nola gazteen hezkuntza formalak edo familia harremanek. Azken bi hamarkadei erreparatuta, zenbait ikerlanetan egiaztatu ahal izan da ohiturak aldatu egin direla, baita gazteen jokabideari dagokionez gizarteak dituen kezka nagusiak ere; izan ere, 80ko edo 90eko hamarkadetan, heroinaren kontsumoa zen kezka nagusia, eta 90eko hamarkadan eta mendearen hasieran, alkoholaren eta/edo anfetaminen kontsumoa. Egun, kezka horiek kontsumorik gabeko beste mendekotasun batzuetara bideratu dira, hala nola jokoarekiko eta sare sozialekiko mendekotasunera.

Faktore eta inguruabar ugari izan dute eragina gazteek aisiari eta astialdian egiten dituzten jardueri dagokienez izandako bilakaeran eta

portaera aldaketetan. 2008ko krisiaren ondorioak eta lan merkatuaren bat-bateko narriatzea (gazteen langabezia-tasa %40tik gorakoa izatea ekarri zuena), globalizazioa eta digitalizazioa dira, besteak beste, faktore nagusietako batzuk, eragindako aldaketetan izandako eraginagatik eta sakontasunagatik.

Lehen aipatutako zailtasunak tarteko, aisiako jokabideen bilakaerari buruzko literatura badago ere, **ez dago Nafarroako gazteen aisiako ohitura nagusiei buruzko lehen eskuko eta luzetarako informaziorik.**

AISIARAKO DENBORA, OHITURAK ETA GASTUA.

Lehenik eta behin, egokitzat jotzen da Nafarroako gazteek aisiatz eta denbora libreaz gozatzeko zenbat ordu dituzten erakustea. *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterketaren arabera, hauek dira datuak: **4,2 ordu eguneko, lanegunetan, eta 8,4 ordu eguneko, asteburuetan.** Oro har, nabarmentzekoa da gizon gazteak direla aisiako ordu gehien dutenak (4,6 ordu gizonek, eta 3,8 ordu emakumeek).

Inkesta beraren arabera, Nafarroako gazteek adierazten dute, lanegunetan, 3,9 ordu inguru igarotzen dituztela pantailen aurrean, eta 4 ordu, asteburuetan; horrek, hain zuzen, oinarrizko bi kontu utz ditzake agerian: bata, pantailen erabilera ez dela aisiara soilik mugatzen, eta bigarrena, **asteburuetan, pantailen erabileraren ehuneko asko murrizten dela aisiako orduetan, eta jokabide analogikoei eskainitako orduak ugaritzen direla.**

Aipatutako orduen barruan, gazteek hainbat jarduera egiten dituzte. Horri dagokionez, FAD Juventud erakundearen 2020ko estatu mailako ikerlan bat aipatzen da, «Importancia y estructura del ocio y el tiempo libre» (Aisiaren eta astialdiaren garrantzia eta egitura), haren garapenagatik eta zehaztasunagatik.

15. *TAULA:* GAZTEEN BANAKETA, ADINAREN ETA BIZITEGI-EGOERAREN ARABERA.
2023

Ohitura	Maiztasuna: nahikoa edo handia
Txateatu edo nabigatu	%74,6
Streaming bidez ikusi	%68,5
Lagunekin egon, besterik gabe	%54,6
Online erosi	%42,4
Bideojokoetan jolastu	%41,5
Etxetik kanpo bazkaldu edo afaldu	%40,8
Kirola egin	%40,6
Telebistan jarritakoa ikusi	%36,3
Liburuak, aldizkariak eta komikiak irakurri	%36,1
Zaletasunak (bildumazaletasuna, dantza eskolak, margotu...)	%35,2
Zinema, kontzertu eta ikuskizunetara joan	%30,9
Dendaz denda ibili	%29,3
Denbora pasa, ezer egin gabe	%28,9
Tabernaz taberna ibili	%25,1
Diskotekara joan	%20,2
Mahai jokoetan aritu	%15,9
Museo eta erakusketetara joan	%12,6
Apustuak egin	%12,2
Kale edanean aritu	%10,8

Iturria: FAD JUVENTUD. «Importancia y estructura del ocio y el tiempo libre» (Aisiaren eta astialdiaren garrantzia eta egitura). 2020

Ikus daitekeen bezala, **pantailei lotutako ohiturak agertzen dira goiko postuetan** (berariazko azpiatal batean landuko dira), **baina ohikoagoak diren beste ohitura batzuek garrantzia izaten jarraitzen dute, hala nola lagunekin egoteak (%54,6), etxetik kanpo jateak (%40,8) eta kirola egiteak (%40,6).**

Horren guztiaren osagarri, interesgarriztat jotzen da *Nafarroako gazteen 2022ko inkestan* jasotako informazioa. Horren arabera, gazteen heren batek artearekin edo kulturarekin loturiko jardueraren bat egiten du; horien artean, musika nabarmentzen da (%16,7), eta, neurri txikiagoan, arte plastikoak aipatu behar dira, hala nola pintura edo eskultura (%9,2), arte eszenikoak (%6,5) eta idazketa (%4).

Era berean, interesgarria da Nafarroako gazteek aisiako eta astialdiko gastuetarako zenbat diru izaten duten adieraztea; izan ere, egungoa bezalako

gizarte kapitalista eta kontsumista batean, argi dago **aisiako jarduera askok eta askok kostu ekonomiko bat dutela.**

Nafarroako gazteen 2022ko inkesta azterlanaren arabera, aisiako eta astialdiko gastuetarako 51,9 € izaten dituzte, batez beste (2018an baino 3 € inguru gutxiago). Ezberdintasunak ezartzen dituzten aldagaien artean (ikasketa maila, emantzipazio maila, jatorria, bizilekua...), gizonen eta emakumeen artean dagoen genero arrakala nabarmendu behar da. Gizonek 6 € inguru gehiago jasotzen dute astero emakumeek baino; hau da, %12,9 gehiago gastatzen dute aisian eta astialdian. Horrez gain, bada beste joera bat: adin txikieneko gazteetan, jakina denez, diru gutxiago izaten da gastatzeko, eta, horrenbestez, aisia kostu gutxiagoko jardueretara bideratuta egoten da; adin nagusiagoko gazteetan, aldiz, joera hori aldatuz joaten da.

PANTAILAK, AISIARAKO ETA SOZIALIZATZEKO GUNEA

lido horretan, garrantzitsua dirudi **gazteek pantailen aurrean zer egiten duten jakiteak**. Nafarroako erakunde publikoek epe laburrean konpondu beharreko erronka garrantzitsua dakar horrek.

Izan ere, **teknologiak, komunikazioari aplikatutakoak batez ere, gazteak haien artean erlazionatzeko moduak, bai eta haien bizitzako alderdi asko ere, aldatzen ari dira; hala gertatzen da, halaber, erlazionatzeko espazioei eta aisiako denborei dagokienez ere**. Oso desberdina izan daiteke lehen «pantailak ikusi» esatean ulertzen zena (telesailak eta filmak ikustea, musika entzutea, bideojokoetan aritzea...) eta gaur egun ulertzen dena (txateatu, taldekako online bideojokoetan aritu, bideo-deiak egin, etab.). **Pantailek agerian uzten dute ingurune birtuala aisiarako eta harremanak sozializatzeke ingurune bat ere badela, eta, horrenbestez, horrela aztertu eta kontuan hartu behar da.**

Aisia birtual mota hori kudeatzeko estrategietan aurrera egin ahal izateko, lehen eskutik jakin behar da zer egiten duten Nafarroako gazteek pantailen aurrean. Gaur egun, harremanak egiteko lehen mailako tresnak dira, eta, beraz, tresna horien erabilera ohiturak, edukiak, plataformak eta abar ezagutzea funtsezko tresna izan daiteke erabilera horretan orientatzeko, laguntzeko eta estrategia egokiak eskaintzeko.

Aurrekoari dagokionez, FAD Juventud erakundearen 2020ko ikerlan batek — nahiz eta jakin Covid-aren ondorengo eraginagatik datuak aldatu daitezkeen— estatu mailako errealitatearen hurbilketa interesgarria egiten du; izan ere, Nafarroako eremuan ez dago horri buruzko informazio zehatzik.

Azterketa horren arabera, **15 eta 29 urte bitarteko gazte espainiarren erdiak baino gehiagok hiru jarduera egiten dituzte maiztasun handiz edo nahikoaz: “txateatu eta/edo Interneten nabigatu” (%75); “telesailak eta/edo filmak modu aktiboan, streaming bidez edo nahieran ikusi” (%68,5) eta “lagunekin egon, besterik gabe” (%54,6).** Bigarren maila batean, %40 eta %45 artean, beste jarduera hauek daude: “online erosi” edo onlineko katalogoak begiratu (%42,4), “bideojokoekin edo kontsolekin jolastu” (%41,5), “etxetik kanpo bazkaldu edo afaldu” (%40,8) eta “kirola egin” (%40,6). Horien atzetik daude gazteek maiztasun handiz egiten dituzten beste jarduera hauek: telebista modu tradizionalen ikusi (gazteen %36,3k); “liburuak, aldizkariak, komikiak... irakurri” (%36,1ek); “zaletasunez gozatu”, hala nola pintura, bildumazaletasuna eta dantza eskolak (%35,2k); eta “ikuskitzuetara joan”, zinemara, kontzertuetara eta antzerkira, adibidez (%30,9). Gazteen %20-30ek jarduera hauek ere egiten ditu astialdian: “dendaz denda ibili” (gazteen %29,3k), “denbora pasa, ezer egin gabe” (%28,9k), “tabernaz taberna ibili” (%25,1ek) eta “diskoteketara eta dantza egitera joan” (%20,2k). Azken postuetan daude “mahai jokoetan aritu” (gazteen %15,9 nahiko maiz aritzen da), “museoak edo erakusketak bisitatu” (%12,6), “ausazko jokoetan aritu eta/edo apustuak egin, online edo aurrez aurre” (%12,2), eta “kale edanean aritu” (%10,8).

Ikus daitekeenez, pantailen erabilerarekin lotutako jarduerak nabarmentzen dira aipatutako ehunekoetan; hala ere, egokitzat jotzen da Nafarroako testuinguruari dagozkion zenbait datu ere gogoetan aintzat hartzea.

Foru Komunitatean horrelako ikerlan bat eginez gero pantailen erabilerari buruzko datuak Nafarroan beste modu batekoak izanen liratekeela jakinda ere, datu horiek garrantzitsutzat hartu dira Nafarroan gazteen aisialdiaren errealitatearen lehen hurbilketa bat egiteko (estatuaren parte den aldetik).

Ikerlan horretan, ohiko aldagai soziologikoez gain (adina, sexua, egoera ekonomikoa, etab.), beste hainbat datu hartu beharko lirateke kontuan, gazteak bizi diren udalerrien eskualdeari eta tamainari buruzkoak, adibidez; izan ere, garrantzitsutzat jotzen dira batzuen eta besteen artean egon daitezkeen aldeak, baita leku bakoitzean garatu beharko diren politika sektorial eta zeharkakoak ere.

Gazteen aisian teknologia berriek duten erabileraren lanketari amaiera emateko, **interesgarriztat jotzen da pertsonen arteko ingurune digitaleko bideojokoen azken fenomenoari buruzko aipamen bat egitea**, labur-labur bada ere. Izan ere, **fenomeno horrek halako haustura bat ezartzen du teknologia berrien erabilerak**, tradizionalki, **zekarren nolabaiteko bakardadearen** (sare sozialen agerpenarekin amaitu zen bakardade hori) **eta lagun arteko betiko jolasen artean**. Beste atal batzuetan aipatu bezala, errealitate berri hori ezagutzeak eta errealitate horren zentzuzko hurbilketa bat egiteak aukera eman dezake errealitate hori sozializazio positiboko elementu gisa erabil dezaten bai erakundeek edo administrazio publikoek, bai familiek eta gizarteak, oro har, gaur egun positibotzat hartzen diren balioak txertatzen laguntzeko.

SUBSTANTZIEN KONTSUMOA, AISIAREKIN LOTUTA.

Pantailen eta teknologia berrien erabilera landu ondoren, garrantzitsua da, halaber, beste zenbait jarduera aipatzea; horiek, gainera, Nafarroako gazteriarri buruzko berriazko ikerlanetan ageri dira. Hala egin zen osasunaren atalean

kirola egitea aipatuta; era berean, **zenbait substantziaren kontsumoa aipatu zen, kasu batzuetan aisiarekin oso lotuta baitaude**, asteburuetan, bereziki.

Horri dagokionez, nabarmendu behar da, substantzien mendekotasunei nahiz substantziarik gabekoei dagokienez, **alkoholaren gehiegizko kontsumoa dela, alde handiz**, gazteen artean hedatuen dagoena, **gainerako substantzien kontsumoarekin edo mendekotasun praktikekin alderatuta**. *Nafarroako gazteen 2022ko Inkesta* azterlanaren arabera, **lau lagunetik batek aitortzen du mozkortu arte edan izan duela alkohola azken hilabeteen (%24,8)**, eta %18,6k gauza bera esan du baina azken asteari dagokionez. Alabaina, gutxi gorabehera 10 gaztetik 4k (%41,4k) esan dute ez dutela alkohola gehiegikeriaz kontsumitu duela urtebete baino lehenagotik.

Alkoholaren kontsumoa, gizartean hain normalizatuta eta presente egonda, oso estuki lotzen da aisiarekin. Gizartean eta, bereziki, Nafarroako gizartean, lotura estua dago jaien eta ekitaldien ospakizunen eta alkoholaren kontsumoaren artean. Oso adin goiztiarretan hasten den ohitura hori gazteengana ere zabaldu daiteke. **Erronka handi bat da kontsumo arduratsuko ohiturak ezartzea, gehiegizko alkohol kontsumoa egiteko arriskuak minimizatzeko, mendekotasuneko jokabideak eragin baititzakete**.

Aisiari eskainitako denborari dagokionez, interesgarria da Nafarroan ebaluatu ez den baina lurraldean oso zabalduta dagoen fenomeno bat nabarmentzea. Horri dagokionez, **joan-etorriak egiten dira aisiaren bila udan eta asteburuetan herri jakin batzuen artean**, herri txikietatik handiagoetara edota jarduera jakin batzuk eskaintzen ez dituzten lekuetatik jarduera horien eskaintza dagoen lekuetara, hain zuzen; mugikortasun hori berria ez izan arren esanguratsua da. Beste behin ere, horrek agerian uzten du berriazko ikerlan bat egin behar dela, mahai gainean jartzeko zer politika publiko sustatzen ari diren udalerrri jakin batzuk biztanleria gaztea erakartzeko, zer balio islatzen diren politika horietan, eta zer jokabide eta ohitura sustatzen dituzten. **Horren guztiaren helburua da Foru Komunitatean aisia osasungarri bat adostea, NGIaren eta udalerrri desberdinen lidergo partekatuarekin**.


6. ONGIZATEA ETA OSASUNA

GAZTEEN HERIOTZA-TASA ETA KAUSA NAGUSIAK.

Gaztaroa heriotza-tasa txikiko bizi aldia da, gehiagoko taldeekin alderatuta, logika biologiko hutsagatik. Baina heriotza-tasa eta horren kausak aztertzea oso ariketa analitiko interesgarria da, informazio garrantzitsua ematen baitu politika publikoen arloan garrantzitsuak diren zenbait gai bultzatzeko.

Grafikoan ikustenenez, Nafarroako gazteen heriotza-tasa espezifikoa %28 izan zen 2022an. Bitxia bada ere, 2012tik izandako joeraren arabera, etengabeko igoerak eta jaitsierak izan dira. Azken hiru urteetan, adibidez, tasa hori asko handitu da. Hala ere, kontuan izan behar da datu absolutuak txikiak direla, eta, beraz, edozein aldaketak eragin handia duela tasan.

34. GRAFIKOA. GAZTEEN HERIOTZA-TASA ESPEZIFIKOA (%)



Iturria: Iturria: Heriotzen eta heriotza tasaren estatistika. EINekin lankidetzan. Guk geuk egina.

Baina berriazko heriotza-tasaz harago, interesgarriagoa da gazteen heriotzaren kausak aztertzea.


16. TAULA: NAFARROAKO GAZTEEN HERIOTZAREN KAUSAK (GUZTIZKOAK)

	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	GUZTIR A
Zirkulazio istripuak	8	9	3	5	7	7	4	5	16	64
Suizidioak eta nork bere buruari eragindako lesioak	4	6	5	4	4	5	6	2	12	48
Bihotzeko eritasunak	3		2	-	-	5	-	-	-	10
Nerbio sistemako eritasunak	-	2		2	3	-	-	-	-	7
Tumoreak	2		1	4			2	1	5	15
Beste istripu batzuk	2	1	-	-		2	4		3	12
Beste zenbait eritasun	-	1	-	-	2			2		5
Erasoak	-	-	-	-	3	-	-	-	-	3
GUZTIRA	19	19	11	15	19	19	16	10	36	164

Iturria: Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. EINekin lankidetzan. Guk geuk egina.

Aurreko taulan ikus daitekeen bezala, zirkulazio istripuak izan dira Nafarroako gazteen heriotza kausa nagusia azken urteetan, eta, horren ondoren, suizidioak aipatu behar dira. Nabarmendu behar da, bai batean, bai bestean, asko handitu zela 2022an bi kausa horiengatik hildako pertsonen kopurua.

35. GRAFIKOA. ZIRKULAZIO ISTRIPUEN ETA SUIZIDIOEN ONDORIOZ HILDAKO NAFARROAKO GAZTEAK (%)



Iturria: Nastat. Heriotzen eta heriotza-tasaren estatistika. EINekin lankidetzan. Guk geuk egina.

Zirkulazio istripuak eta suizidioak nahiko joera antzekoa duten heriotza kausak dira. Nolanahi ere, nabarmendu behar da kausa horien atzean dauden arrazoiak oso desberdinak direla. Alde batetik, zirkulazio istripuen gaia izugarri aztertu da, eta prebentzioko ekintza ugari egin dira horren inguruan; ekintza horiek, gainera, emaitza onak eman dituzte, oro har. 2022ko datuetan salbu, gainerako urteetan kopurua txikia izan dela esan daiteke, nahiz eta helburuak 0 istripu izan behar duen.

Suizidioaren kasua, aldiz, oso desberdina da. Azpimarratu behar da aztertutako urte guztietan ageri dela kausa hori (zirkulazio istripuekin batera), eta, beraz, horrek agerian uzten du zein garrantzitsua den. Gaur egungo egoera sozialean, osasun mentalekin lotuta egiten den lan guztia baliatu behar da horrelako egoerak prebenitzeko.

Osasunaren arloan, betiko adierazleen (heriotza-tasa, kausak, etab.) bilakaeraren oinarritzko datuez harago, garrantzitsua da kualitatiboki aztertzea nolako bilakaera duen gazteek zenbait gairen inguruan duten sentipenak, hain zuzen ere espazio publikoan antza garrantzi handiagoa hartu duten gaien inguruan: ongizate emozionala, osasun mentala eta esparru horietako zenbait adierazleren hazkundean eragina izan dezaketen zenbait kausa.

Horretarako, oso garrantzitsutzat jo dira *Gazteria eta zainketa. Nafarroa 2024* azterlanak, *Nafarroako gazteen 2022ko inkestak*, eta FAD Juventud ospe handiko Fundazioak —Reina Sofía Zentroaren bidez— egindako estatu mailako azterketa kualitatiboaren datu berrienak; azken azterketa horrek ez ditu Nafarroako datuak bereizita ematen, baina zenbait joeraren bilakaeraren inguruan orienta dezake, baita Foru Komunitatean ere.


GAZTEEN IKUSPEGIA BEREN OSASUNAZ.

Osasunari dagokionez, funtsezko gai bat hartu behar da aintzat: **gazteek beren osasunaz duten pertzepzioa**. *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterlanetik ateratako datuen arabera, gazteen **%79,1ek uste dute osasun egoera ona dutela**; ideia hori esanguratsua da, eta FAD Juventud erakundearen *Barómetro de Juventud, Salud y Bienestar. 2023* (Barometroa. Gazteria, Osasuna eta Ongizatea) lanean aztertutako estatu mailako fenomenoaren antzekoa da.

Bai Nafarroan, bai estatuan, **zifrek hobera egin dute pandemiaren urteekin alderatuta**; egoera hori bistakoa izan daiteke, baina, hala ere, esanguratsua izaten jarraitzen du.

Halaber, azpimarratu behar da **generoak eta baldintza sozioekonomikoek eragin zuzena dutela pertzepzio horretan**; hain zuzen ere, autopertzepzioa okerragoa da nesken eta egoera sozioekonomiko okerragoa duten pertsonen kasuan.

36. GRAFIKOA: OSASUNAREN BALORAZIOA: 0-100 (%)




Iturria: NGI. Nafarroako gazteen 2022ko inkesta.

Egia da osasunaren autopertzepzioak Nafarroako gazteen ikuspegi positiboa erakusten duela; hala eta guztiz ere, garrantzitsua da jokabide eta ohitura osasungarriak garatzen dituzten aztertzea.

Horri dagokionez, **Nafarroako gazteek adierazi dute jokabide osasungarriak dituztela**. Aurreko grafikoan ikusten denez, jokabide eta ohitura osasungarrien garapenaren balorazioa altua da; izan ere, gazte gehienek 70etik gorako puntuazioa eman diote ehuneko eskala batean.

37. GRAFIKOA. JOKABIDE ETA OHITURA OSASUNGARRIEN GARAPENAREN BALORAZIOA



Iturria: NGI. GAZTERIA ETA ZAINKETA NAFARROA 2024


OSASUN OHITURAK.

Pertzepzio orokor horiez harago, funtsezkoa da ohitura osasungarriekin lotuta dauden zenbait gai zehaztasunez aztertzea. Ildo horretan, nabarmendu behar da inkestan parte hartu duten gazteen zati handi batek gutxitan saihesten duela elikagai prozesatuen edo janari lasterraren kontsumoa.

38. GRAFIKOA. OHITURA OSASUNGARRIEN MAIZTASUNA


BEHAR ADINA ORDU LO EGITEN SAIATZEA

■ A diario o casi a diario ■ Menor frecuencia




KIROLA EGITEA

■ A diario o casi a diario ■ Menor frecuencia




AHAL DELA, JANARI LASTERRA ETA ELIKAGAI PROZESATUAK EZ JATEA

■ A diario o casi a diario ■ Menor frecuencia



ELIKAGAI OSASUNGARRIAK JATEN SAIATZEA

■ A diario o casi a diario ■ Menor frecuencia



Iturria: NGI. GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA 2024

Era berean, egiaztatu da zenbait desadostasun egon daitezkeela aipatutako monografikoan emandako informazioaren eta *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta*ko informazioaren artean.

Desadostasun horietako bat da **lotarako ohituraren kasua**. Izan ere, lan monografikoan, galdetutako gazte gehienek adierazi dute atsedean hartzeko behar adina ordu lo egiten saiatzen direla; inkestan, berriz, **ziurtatu dute** nazioarteko osasun erakundeek era osasungarrian atsedean hartzeko **gomendatutako orduen azpitik lo egiten dutela: 7,2 ordu lanegunetan (8 ordu**

gomendatzen dituzte). Hori areagotu egiten da gazte langileen artean; hala, lanegunetan 6,9 ordua jaisten da lo egindako orduen kopurua. Gainera, azpimarratu behar da, *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterlanaren arabera, joera hori negatiboa dela, azken urteetan lo orduak jaitsi egin baitira (2018. urtean, 7,3 ordu lanegunetan, eta 8,5 ordu asteburuetan).

Intereseko beste eremu bat ariketa fisikoa egiteko ohiturarena da. Datuen arabera, gizonak egiten dute ariketa fisiko gehien, %60,3k astean zenbait aldiz egiten baitute; bestalde, emakumeen %43,5ek egiten du ariketa fisikoa (2022ko inkestaren arabera). Hala ere, esanguratsua da **gazteen laurden batek ez duela inolako ariketa fisikorik egiten**; beraz, datu horrek iragartzen du, hurrengo urteetan, handituz joanen dela sedentarisismoaren arriskua, horrek ekar ditzakeen eritasun kardiobaskularrekin eta beste mota askotako eritasunekin.


Nolanahi ere, **diagnostiko horretan berebiziko garrantzia eman zaio bi arloren hurbilketa bat egiteari: mendekotasunak eta osasun mentala.** Garrantzitsua da NGIren hurrengo ikerlanetan bi arlo horiek sakon aztertzea, azken urteetan egin den bezala.

Mendekotasunen gaiari dagokionez, garrantzitsua izanen da drogei eta mendekotasunei buruzko Nafarroako III. prebentzio planaren (2017-2023) berrikuspenak ematen duen informazioa, bai eta plan berria ere; azken horretan, hain zuzen, NGIk parte-hartze oso aktiboa izan behar du. Prebentzio plana duela 7 urte baino gehiago egindako dokumentua izanik, ez dira haren datuak balliatuko; nolanahi ere, azken plan horretan jasotako zenbait ondorio edo ikaskuntza aipatzeko modukoak dira.

Hasteko, aipatu behar da ezen, **alkohol, tabako eta kalamu kontsumoaren ehuneko handienak gazteen artean (14-29 urte) izaten badira ere, gero eta lehenago hasten dela** haien kontsumoa; beraz, haurtzaroan eta nerabezeroan izan behar dute garrantzi berezia prebentzioaren eta osasun sustapenaren politikek.

Politika horiei denboran zehar eutsi behar zaie, baina bizitzako une bakoitzera egokitu behar dira; horrez gain, kontuan hartu behar dira zenbait alderdi esanguratsu, hala nola biztanleriaren generoa eta baldintza materialak, desberdin eragiten baitute kontsumo ohituretan.

39. GRAFIKOA. JOKABIDE ARRISKUTSUEN MAIZTASUNA (KONTSUMOAK SUBSTANTZIEKIN ETA SUBSTANTZIARIK GABE)



Iturria: NGI. GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA 2024

Ikus daitekeenez, **2024an, hauek izan dira kontsumo ohikoenak: tabakoa** (%6,1ek noizean behin, eta %15,7k nahikoa maiz) **eta, batez ere, alkohola** (%69,5ek noizean behin, eta %5,7k nahikoa maiz). Nabarmentzekoa da, halaber, azken urteetan agertu diren substantziarik gabeko mendekotasunak ere, hala nola apustuena (%6,2k noizean behin, eta %1ek nahikoa maiz); fenomeno horrek jarduteko eremu zabala ireki du, non prebentzioa funtsezkoa baita.

Prebentziorako eta ohitura osasungarriak sustatzeko estrategiari heltzean, eremu desberdinak bereizi beharko dira, bizi etapa bakoitzaren arabera. Hau da, haurtzaroan eta nerabezaroan, hezkuntza formalaren eremuak nabarmentzen dira beste batzuen aldean; gaztaroan, berriz, kontuan hartu beharko da komunitatea dela gazteengan gero eta eragin handiagoa duen eremua, ingurunearen faktorea alde batera utzi gabe. Beraz, politika publikoek arreta

handiagoa jarri beharko diote azken eremu horri; hau da, sormena baliatu beharko da, eta gazteentzako erreferenteak inplikatzeko saiatu, kanal anitzekoak eta hurbilekoak izan beharko duten kanpainetan.

GAZTEEN OSASUN MENTALA.

Atal honetan orain arte azaldutakotik abiatuta, interesgarriztat jo da **Nafarroako gazteen osasun mentalari** aipamen berezia egitea, orain arte aipatu diren alderdi guztiek baldintzatzen baitute egoera hori (ez eskusiboki, baina bai oso modu garrantzitsuan).


2021eko *Gazteria, osasun mentala eta ongizate emozionala* monografikoan dagoeneko adierazi zenez, **Nafarroako 12.000 gazte ingururi, noizbait, osasun mentaleko arazoren bat diagnostikatu diote.**

Errealitate horrek azken urteetan izan duen bilakaera ikusita, eta prozesu horiei lotutako estigma asko apurka-apurka apurtzen ari direla kontuan hartuta, zifra horrek goranzko joera duela ziurra daiteke. Arazoa agenda politikoan kokatu da, eta, besteak beste, 2024ko martxoan, Kongresuko Osasun Batzordean, azpibatzerde bat eratu da, osasun mentalarekin loturiko estatu itun baten oinarriak ezartzeko. Hain zuzen ere, arazoa agenda politikoak kokatze horrek ikusgaitasun handiagoa eman dio gaiari, eta aipatutako estigma horietako batzuk baztertzea ekarri du; hori dela eta, **diagnostikoen zifren eklosioa izan da, lehen intimitatean edo familian ezkutatzeko baitziren.**

Gero eta handiagoa den kezka hori *Gazteria eta zainketa. Nafarroa 2024* azterlanean jasota dago. Bertan adierazten denez, **gazteek garrantzi handia ematen diete ongizate emozionalari eta osasun mentalari, gehienek 10etik 7 puntu edo gehiagoko garrantzia ematen baitiete.** Horrez gain, nabarmentzen da **alde handia dagoela gizonen eta emakumeen artean, azken horiek gehiago kezkatzen baititu gaiak.**

Halaber, alde handia dago goi mailako ikasketak dituztenen eta ikasketa horiek ez dituzten artean, lehen multzo horretakoek kezka handiagoa baitute gaiaren inguruan.

40. GRAFIKOA: ONGIZATE EMOZIONALAREN ETA OSASUN MENTALAREN INGURUKO KEZKA



Iturria: NGI. GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA 2024

Azkenik, bada azterketa honetan gailentzen den elementu bat. **Osasun mentalaren fenomenoak autopertzepzioarekin du zerikusia**, eta hainbat faktorek baldintzatu dezakete: pertsonaren kanpo faktoreek (modak, irudiaren eta jokabideen erreferenteak, balio kulturalak, etab.), pertsonaren beraren **etorkizuneko itzaropenek, eta**, neurri handi batean, **baita haren baldintza materialek ere**. Horrenbestez, **zenbait alderdik, hala nola etxebizitzak, lan duinak eta elikadura osasungarriak, berebiziko garrantzia dute osasun mental egokia izateko**. Gogobetetasuna zenbait motibazio faktorek eman arren (hala dio Frederick Herzberg-en teoriak), higiene faktoreen (faktore materialen) gabeziak eragiten du gogogabetasun faltarik handiena.

SEXU OSASUNA ETA PORNOGRAFIA

Osasunaren arloan, bada berariazko adar bat, sexu osasunarena, fokua soilik gazteengana mugatu ez arren, haiei bereziki heltzen diena; izan ere, bizitzako etapa horretan hasten eta areagotzen dira **autoezagutza sexuala eta harreman sexualen praktika**. Hala ere, azken urteetan, hainbat faktoreren ondorioz (besteak beste, digitalizazio masiboaren prozesua), prozesu horiek **aurreratu egin dira**, eta nerabeei eta aurrenerabezaroan dauden gazteei bete-betean eragin diete.

Sexualitatearen eremua sexu eta ugalketa osasuneko politiken bitartez landu izan da tradizionalki, hau da, osasungintzatik eta zeharkakotasun, orientazio eta prebentzio ikuspegiekin, neurri handiagoan edo txikiagoan, administrazio bakoitzaren sentsibilitatearen arabera. **Hala ere, azken urteotan, orientazioa aldatu egin da, eta ikuspegia zeharkakoagoa da, hezkuntza arloko departamentuen parte-hartze oso aktiboarekin**; horren ondorioz, sexualitatea pertsonaren sozializazio prozesu naturalaren partetzat ulertu da.

Horri dagokionez, funtsezkoa da Nafarroako Gobernuak bultzatutako SKOLAE programari aipamena egitea; 2017-2018 urteetan, modu esperimentalean ezarri zen, eta, gaur egun, behin betiko finkatuta dago. Programaren teknikari Marina Huiciren arabera, programa horren bidez ikasleen hezkuntza afektibo sexualari hainbat esparrutatik heldu nahi zaio, funtsezko helburu batzuekin: sexualitatea «*gure bizitzaren funtsezko dimentsio gisa*» ulertzea; «*afektuak sexualitatearen zeharkako ardatz gisa txertatzea*»; sexu, genero eta familia aniztasunak aintzat hartzea; gorputza «*askatasun eremutzat eta edertasun kanonetatik libre dagoen eremu gisa*» ulertzea; sexualitatea «*modu positiboan, baina arduraz*» bizitzea; eta «*erlazioak eta maitasun harremanak errespetuz eta aniztasunetik*» eraikitzea.

«Gure seme-alabei hezkuntza afektibo sexuala eman behar diegu, pertsona autonomo bihurtuko dituen, ardura eta gaitasuna emanen diena beren erabakiak hartzeko eta sexualitatea modu atsegina eta gogobetegarrian bizitzeko, inolako hertsadurarik, beldurrik eta indarkeriarik gabe».


Agerian geratzen denez, sexualitatearen gaiak ikuspegi ugari ditu, eta, beraz, bere ondorioak izanen ditu osasunaren diagnostikoan, hezkuntzan, informazioaren teknologietan edo aisiako eta astialdiko ohituretan. Nafarroan gaia berariaz ikertzeari dagokionez, tradizionalki Nafarroako Osasun Publikoaren Institutua arduratu da sexu osasunarekin loturiko gai espezifikoek azterketa monografikoak egiteaz; zehazki, 2020an, metodo antikonzeptiboek buruzko azterketa egin zuen, eta, 2021ean, sexu transmisioak buruzkoa. Baina, ikus daitekeenez, ikuspegi hori oso baldintzatuta dago osasun arloko lerrabideagatik eta dibulgaziora bideratuta egoteagatik, ez hainbeste joeren azterketara.

Hala ere, **SKOLAE** programaren eklosioak sexu harremanen errealitateari ikuspegi eklektikoago batetik heltzea ekarri du Nafarroan, neska-mutilen sozializazio prozesuaren eta haien arteko harreman afektiboek parte den **aldetik**. Ildo horretan, aipagarria da programa hori eta, beraz, Foru Komunitatea ere, abangoardian daudela estatu mailan. Hori dela eta, departamentuen arteko koordinazioa indartzea gomendatzen da, SKOLAEren aurrerapena departamentu eta erakunde autonomoetatik (bereziki, NGItik) elikatuz joateko, betiere Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren gidaritzapean.

Nafarroako gazteen harreman pertsonalei eta sexualitateari buruzko datuei dagokienez, 2021eko *Gazteria, osasun mentala eta ongizate emozionala* azterlan monografikoan bildutako informazioari heldu zaio, gai horretan Foru Komunitatean egin den hurbilketarik berriena delako.

Azterlan horretan, nabarmentzekoa da neskek **gogobetetasun handiagoa dutela maitasun harremanei dagokienez**, eta gogobetetasun hori, gainera, areagotuz doala adin tartean gora egin ahala.


41. GRAFIKOA: MAITASUN HARREMANEN GOGOBEETASUN MAILA (GOGOBEETASUN HANDIA EDO OSO HANDIA)



Iturria: NGI. GAZTERIA, OSASUN MENTALA ETA ONGIZATE EMOZIONALA. 2021

Sexualitatea bizitzeko moduari dagokion gogobetetasuna dela eta, bada egoera bitxi bat; izan ere, gogobetetasun maila adinarekin handitzen bada ere, kasu honetan mutilek dituzte gogobetetasun maila handienak, eta, beraz, nolabaiteko kontrastea sortzen da maitasun harremanen eta sexu harremanen gogobetetasunaren artean.

42. GRAFIKOA: SEXUA BIZITZEKO MODUAREKIKO GOGOBEETASUN MAILA (GOGOBEETASUN HANDIA EDO OSO HANDIA)



Iturria: NGI. GAZTERIA, OSASUN MENTALA ETA ONGIZATE EMOZIONALA. 2021

Aurrez adierazi bezala, gazteen sexualitatearen gaia hainbat ikuspegitatik jorratu da urteetan zehar; **azken aldian, hain zuzen, badirudi garrantzi handiagoa ematen zaiela tratatu onen kulturari eta baiezkoa adierazteari.**

Ikuspegian egindako aurrerapen horren ondorioz, **funtsezkotzat jo da sexualitateari dagokionez ere balioetan oinarrituta hezte**a, eta, zenbait fenomenori betoa jarri ordez, sexualitatera hurbiltzea fenomeno naturalizat hartzea, horrek dituen erronkekin.

Sexualitatea aztergai hartuta, garrantzitsutzat jotzen da sexualitatera hurbiltzeko ikuspegian aintzat hartzea gure garaiko errealitatea, batez ere gazteriaren inguruko errealitate soziala. Ikuspegi horretatik, garrantzitsua da **pornografiaren fenomeno espezifikora** hurbilketa txiki bat egitea; izan ere, agerikoa denez, Nafarroako gazteak errealitate horrekin bizi dira, eta ondorio kaltegarriak izan ditzake gazteentzat, baldin eta gaiari buruzko heziketa egokirik ez badago.

Lehenik eta behin, garrantzitsua da gazteek pornografia noiztik, nola, zenbat, zer-nolakoa eta zertarako kontsumitzen duten jakitea. Nafarroako datu zehatzik ez dugunez, Fad Juventud erakundeak, Reina Sofia Zentroaren bitartez, eginiko *Juventud y pornografía en la era digital: consumo, percepción y efectos* (Gazteria eta pornografia aro digitalean: kontsumoa, pertzepzioa eta ondorioak) lan

monografikoa hartzen da iturri garrantzitsutzat, duen zorrotasunagatik, sakontasunagatik eta ikuspegiagatik.

Horri buruzko lehen gogoeta da ezen, gizartearen digitalizazioa gero eta handiago izanda eta gero eta smartphone gehiago edukita, gazteek **gero eta gazteago** dutela eskura **pornografiarako sarbidea**, kasu askotan, gainera, **gaztarora iritsi baino lehen**. Ikerlan horren arabera, **Espainiako gazteen (15-29 urte) %45ek dio 12 eta 15 urte bitartean hasi zela pornoa kontsumitzen, eta lautik batek dio 12 urte bete aurretik kontsumitu zuela lehen aldiz; are gehiago, %6,5ek adierazi du 8 urte bete aurretik kontsumitu zuela lehenbizikoz**. Gai horretan generoaren arabera dauden aldeak aztertuta, %9-10 txikiagoak dira nesken artean.

Kontsumoari dagokionez, datuen arabera, mutilen %72,1ek adierazi du pornoa kontsumitzen duela, eta nesken kasuan, berriz, %52,6k adierazi du gauza bera (mutilek baino %20 gutxiagok, gutxi gorabehera). Ehuneko horiek txikiagoak dira adin tarte txikiagoetan, eta, adinean gora egin ahala, handituz doaz. Agian, gai kezkarrietako bat gazteek ikusten omen dituzten irudi pornografiko motak dira. Inkestan parte hartu duten pertsonen artean, **ia lautik batek esan du porno bortitza kontsumitu izan duela, eta %16,6k oso irudi bortitzak edo iraingarriak ikusi izan dituela**.

Fad Juventud erakundearen ikerlanak, datu kuantitatiboetatik abiatuta kontsumo ohituren ezaugarrietan sakontzeaz gain, sakontasun kualitatiboa azaltzen du, adituei egindako elkarrizketen bidez; beharbada, horrek eman diezaioke baliorik handiena honelako dokumentu diagnostiko bati. Ildo horretan, txosten horretako oinarritzko gogoeta batzuk sartu dira ikerlan honetan, Nafarroan garatu beharreko politika publikoei begira proposamenak egiteko asmoz, batez ere. Nolanahi ere, eta lehen aipatu bezala, zenbait politika publiko dagoeneko lantzen ari dira, zenbait programaren bidez; horien artean, SKOLAE programa nabarmendu behar da.

Lehenik eta behin, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu gogoeta garrantzitsu bat egitea, ageri-agerikoa izan arren: **gaur egungo munduan, pornografia nonahi dago**. Baliteke alderdi horrek ondorengo gogoetak asko baldintzatzea.

Bigarrenik, interesgarria izan daiteke kasu askotan zer pornografia mota kontsumitzen den erreparatzea. Horri dagokionez, **indarkeria oso presente dago kontsumitzen den materialetan**, eta, hain zuzen, esanguratsua da neskek jarrera kritikoagoa agertzea indarkeria horri eta, oro har, erabiltzen den pornografia motari dagokionez. Horrek bide ematen dio pornografiaren inguruan gizartean diren pentsamendu korrante ezberdinei buruzko eztabaida interesgarri bati. Alde batetik, jarrera guztiz moralistak daude, ikuspegi erabat negatiboarekin, jarrera abolizionista sustatzen dutenak. Jarrera horren arabera, pornoa merkatuko produktu bat da, haren gaur egungo ezaugarriekin, eta ez da hura modulatzeko gaitasunik; hau da, zentsuratu edo debekatu soilik egin daiteke. Badira, ordea, aipatutako nonahikotasun horren errealismotik abiatuta, pornografia baldintzatzeko ildo baten alde egiten duten jarrerak, hau da, indarkeriatik urrundutako beste eredu batzuen alde eginez eta, gure gazteen sozializazioan, eragile aktibo potentzial gisa hartuta.

Alde horretatik, **positiboa izan daiteke foru administrazioak gaia sakon ikertzea, Nafarroako gizarteak gai horren inguruan jarrera argia har dezan, argi eta garbi gure gazteentzako sozializazio eragile bat baita**. Ildo horretan, FAD erakundearen txostenaren azken gogoeta hau nabarmendu behar da:

“Azken gogoeta moduan, hau adierazi nahi dugu: pornografia saihestezina da gaur egungo panorama soziokultural eta komunikatiboan, eta eragin nabarmena du, ondorio argiekin, sexualitatea eta sexu praktikak eraikitze eta ulertzeko moduan. Gazteen pertzepzioa ideia hauen artean egituratzen da: alde batetik, pornoaren kontsumoarekin lotutako alderdi positiboak aipatzen dituzte, hala nola norberaren sexualitatearen esplorazioa eta sexualitate heteronormatibo zuriaren disidentzietarako bidea, eta, bestetik, ohartzen dira eduki pornografikoetan emakumeenganako desberdintasuna, diskriminazioa eta indarkeria modu saihestezinean agertzen direla. Azken batean, gazteen jarrera argia da, emakumeen artean batez ere; pornografia gure gizartean agertzen den modua

sakon erreformatzearen alde agertzen dira, eta, kasu batzuetan, pornografia eredu hori ezeztatzea ere eskatzen dute. Gazteek badakite pornografia ezin dela izan sexualitatearen sozializazio eragile nagusia, bereziki haurtzaroan eta nerabezeroan. Errealitate horren aurrean, bizitzako etapa guztietan sexu hezkuntzako sistemak txertatu behar diren inguruko adostasuna orokorra da, bai gazteen artean, bai adituen artean”.

Finean, pornografiak arrisku asko ditu gaur egun, eta arrisku horiek minimizatu egin behar dira hainbat fronteren bidez. Alde batetik, funtsezkoa da txiki-txikiak direla eduki pornografikoak ikusten dituzten haurrak babestea, oraindik ez baitute behar adinako gaitasunik soilik helduentzat izan behar lukeen eduki bat kudeatzeko. Izan ere, egoera horrek ekar dezake pornografia ikaskuntza eduki gisa eta sexualitatearen eraikuntzarako erreferente gisa barneratzea, horrek dituen arrisku izugarriekin. Bestalde, pornografia gehiegi kontsumitzeak harenganako mendekotasuna eragin dezake, dagoeneko jaso den bezala. Edonola ere, gaurkotasun handiko egoera hori lan eremutzat hartu behar da gazteriaren arloko politiketarako.

7. HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA.

ESKOLATZE-TASA GARBIA.


Nafarroako gazteen eskolatzetasa garbiak goranzko joera izan du azken urteetan, bereziki 16 eta 17 urteko gazteen artean. Nabarmentzekoa da aztertutako azken 3 ikasturteetan 16 urteko biztanleen eskolatzetasa %100ekoa izan dela. **Datuak diren azken ikasturtean, ordea**, beherakada nabarmena izan da 17 eta 18 urteko gazteen eskolatzetasan.

17. TAULA. ESKOLATZE-TASA GARBIA			
BI SEXUAK (%)	NAFARROA		
Adina	16 urte	17 urte	18 urte
2012/2013	93,9	90,9	81,3
2013/2014	94,3	93,9	80,4
2014/2015	94,0	93,8	75,8
2015/2016	93,1	94,1	78,7
2016/2017	99,9	91,8	78,4
2017/2018	99,9	95,3	79,7
2018/2019	99,9	96,9	80,0
2019/2020	100	99,6	83,3
2020/2021	100	99,4	89,3
2021/2022	100	97,1	85,2

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa Hezkuntza arloko estatistikak Guk geuk egina.

Sexuaren araberako azterketa eginez, **adin guztietan, neskek dituzte eskolatzetasarik handienak**, estatuan gertatzen denaren antzera.

43. GRAFIKOA: ESKOLATZE-TASA GARBIA (%) 2021-2022 IKASTURTEA



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa Hezkuntza arloko estatistikak Guk geuk egina.

Bai 16 urterekin, bai 17 urterekin, nesken eskolatzetasak %100ekoak izan ziren 2021/2022 ikasturtean.

Derrigorrezko irakaskuntzaren ondorengo eskolatzetasari buruzko ikuspegi zabalagoa izateko, Espainiako biztanleriaren egoerarekin alderatu behar da.

18. TAULA. ESKOLATZE-TASA GARBIA						
BI SEXUAK (%)	NAFARROA			ESPAINIA		
	16 urte	17 urte	18 urte	16 urte	17 urte	18 urte
2016/2017	99,9	91,8	78,4	95,6	88,7	75,3
2017/2018	99,9	95,3	79,7	94,9	88,9	75,7
2018/2019	99,9	96,9	80,0	95,3	88,4	76,0
2019/2020	100	99,6	83,3	95,3	89,0	75,7
2020/2021	100	99,4	89,3	96,0	90,8	81,2
2021/2022	100	97,1	85,2	95,9	91,2	81,5

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa Hezkuntza arloko estatistikak Guk geuk egina.


Datuek erakusten duten bezala, **adin guztietan Nafarroako gazteen eskolatzetasak estatuko guztizkoak baino askoz handiagoak dira.** Alderdi hori oso positiboa da, eta

leku onean uzten ditu Nafarroako gazteak eta haiek derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan duten eskolatzea.

ESKOLA UZTE GOIZTIARRA⁷.

2022an, %5,7koa zen **Nafarroako populazioaren eskola uzte goiztiarraren tasa**. 2012tik izandako bilakaerari erreparatuta, ikusten da eskola uzte goiztiarrak beheranzko joera izan duela, oso gertaera positiboa; joera hori, gainera, biziagoa izan da nesken artean.

44. GRAFIKOA: ESKOLA UZTE GOIZTIARRA (%)



Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa Hezkuntza arloko estatistikak Guk geuk egina.

Nafarroako biztanleriaren eskola uzte goiztiarraren tasa Espainiako biztanleriarena baino askoz txikiagoa da; horrek erakusten du Nafarroako gazteen hezkuntza maila hobea dela.

Eskola uzteen tasa sexuaren arabera aztertuz gero, nabarmentzen da **tasa hori askoz handiagoa dela mutilen artean nesken artean baino;** joera hori nazio mailan ere gertatzen da, eta erakusten du emakumeen egoera hobea dela prestakuntzari dagokionez, hasiera-hasieratik.

⁷ Bigarren Hezkuntzako 2. etapa gainditu ez duen eta inolako hezkuntzarik edo prestakuntzarik jasotzen ari ez den 18 eta 24 urte arteko biztanleriaren ehunekoa, adin horretako biztanleria osoarekiko.

2020. urtera arte, estatu mailako datuak pixkanaka murriztuz joan zirela erakusten du joerak; Nafarroan, berriz, nolabaiteko egonkortzea gertatu zen, aztertutako urteetan izandako zenbait gorabeherarekin. Nolanahi ere, 2022an, beherakada nabarmena izan zen, bai Nafarroako gazteen artean, bai Espainiako gazteen artean.

19. TAULA. ESKOLA UZTE GOIZTIARRA, SEXUAREN ARABERA						
%	Nafarroa			Espainia		
	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira
2014	13,9	9,5	11,8	25,6	18,1	21,9
2015	13,1	8,5	10,8	24	15,8	20
2016	16,9	9,8	13,4	22,7	15,1	19,0
2017	14,1	8,3	11,3	21,8	14,5	18,3
2018	12,4	10,3	11,4	21,7	14,0	17,9
2019	17,8	10,1	14,0	21,4	13,0	17,3
2020	13,9	7,8	10,8	20,2	11,6	16,0
2021	12,1	6,0	9,1	16,7	9,7	13,3
2022	7,9	3,5	5,7	13,9	16,5	11,2

Iturria: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa Hezkuntza arloko estatistikak Guk geuk egina.

UNIBERTSITATEKO IKASKETA PRESENTZIALAK EGITEN ARI DIREN GAZTEAK.

18 eta 30 urte bitarteko gazteei dagokienez, Nafarroako gazteen %11,3 ari dira unibertsitateko ikasketak egiten, datuak⁸ diren azken ikasturteari erreparatuta. Azken ikasturteetan, ehuneko horretan egonkortu da joera, azken 4 ikasturteetan %11 ingurukoa izan baita.

20. TAULA. UNIBERTSITATE IKASKETA PRESENTZIALAK EGITEN ARI DIREN GAZTEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA (18-30 URTE)				
(%)	NAFARROA			
	2017/2018	2018/2019	2019/2020	2020/2021
Guztira	11,5	11,3	11,2	11,3
Gizonezkoak	10,5	10,3	10,2	10,4
Emakumezkoak	12,5	12,4	12,1	12,3

Iturria: NUP eta Nafarroako Unibertsitatea (UN). Guk geuk egina.

Hezkuntzaren arloko joera orokorra da emakume gehiago egotea; hain zuzen ere, joera horrek erakusten du biztanleria multzo horrek interes handiagoa duela bere prestakuntzan. Hala ikus daiteke taulan.

PRESTAKUNTZA MAILA, PRESTAKUNTZA ZIKLOEN ARABERA⁹.

Aurretiko adierazleak erabiltzeaz gain —estatuko guztizkoarekin alderatzeko aukera ematen baitute—, garrantzitsua da Nafarroako gazteen prestakuntza (kasu honetan, 16 eta 30 urte bitartekoena) mailen arabera aztertzea. Kasu honetan, 5 urteko denbora eskala erabiliko da konparazioa egiteko, 2016 eta 2021 artekoa (azken urte horretakoak dira eskura diren azken datuak).

⁸ Azken urte akademikoetako unibertsitateen informazioa eskuratzen denean eguneratuko dira datu horiek.

⁹ Nafarroan bizi diren 16 eta 30 urte bitarteko biztanleen ehunekoa (2016 / 2021), prestakuntza mailen arabera.

21. TAULA. PRESTAKUNTZA MAILA (%)

	Bigarren mailako ikasketak	LH	Goi mailako ikasketak	Masterra	Doktoretza
2016	47,7	12,3	27,6	0,26	0,04
2021	45,7	15,6	34,2	7,88	0,32

Iturria : Nastat. Biztanleriaren prestakuntza mailaren gaineko estatistika

2016 eta 2021 arteko bilakaerak erakusten du **ugaritu egin direla Lanbide Heziketako ikasketak eta Goi Mailako Ikasketak dituzten biztanleak**. Oso joera positiboa da; izan ere, erakusten du gazteek gero eta interes handiagoa dutela derrigorrezko hezkuntzaren ondoko hezkuntzan, eta aukotariko aukerak bilatzen dituela.

Gazteek egiten dituzten Masterreko eta Doktoretzako ikasketak zehaztasun handiagoz aztertuta, ikusten da bi kasu horietan joera gero eta handiagoa dela.

Masterreko ikasketei dagokionez, 2016an, gazteen %0,26k soilik zuen ikasketa maila hori; 2021ean, aldiz, gazteen %7,88k zuen. Datu horrek erakusten du ikasketa mota horiek gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari direla.

Doktoretzari dagokionez, berriz, doktoretza egiten duten gazteen ehunekoa handitu bada ere (2016an %0,04 izatetik, 2024an %0,32 izatera), oso txikia da, aurreikus zitekeen bezala.


HEZKUNTZA EZ-FORMALA.

Gazteei buruzko azterketa batean, hezkuntzaren eta prestakuntzaren gaia eremu formaletik edo akademikotik harago aztertu behar da. Ageriko arrazoiengatik gazteen presentzia hezkuntza formalean handiagoa den arren, hezkuntza ez-formala ere oso garrantzitsua da, eremu formaletik oso bestelakoak diren gaitan prestatzeko tresnak eta aukerak ematen baititu, eta metodologia eta helburu guztiz desberdinekin (baina oso interesgarriak gazteen hazkunderako).

Gazteriaren arloko politiken kapituluan aipatu den bezala, Nafarroako Gazteriaren Institutuak hainbat tresna ditu haien hezkuntza ez-formalera bideratuta.

Hezkuntza ez-formalari dagokionez, funtsezko baliabideetako bat **Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola da**. NGJEren bidez, oso prestakuntza eskaintza interesgarria ematen da, askotariko alderdiak eta gazteentzat oso interesgarriak diren gaiak lantzen dituena (osasuna, aisia eta astialdia, trebetasun pertsonalak, sexualitatea, etab.). Nabarmendu behar da Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskolaren eskaintza guztia doakoa dela, eta Nafarroako leku askotan ematen dela; hori oso garrantzitsua da lurraldeari dagokionez.

45. GRAFIKOA. NGJE-N EGINDAKO IKASTARO MOTAK



Iturria: NGJE. Guk geuk egina

Grafikoan ikus daitekeen bezala, azken urteotan goranzko joera argia izan du ikastaroen eskaintzak, eta horrek erakusten du finkatutako prestakuntza eta eskaintza aukera inoiz baino zabalagoa dela. 2020. urtea kontuan hartzen ez bada (arrazoi logikoengatik), 2021., 2022. eta 2023. urteetan egindako ikastaroetan hogeitipologia baino gehiago bereizten dira; **zehazki, 2023. urtean izan zen ikastaro moten aukera handiena**.

NGJEk egindako ikastaro guztiei dagokienez, 2023an 41 ikastaro izan ziren, eta, haietan, 1.432 gaztek parte hartu zuten, gehienak neskak (%55).

2024ari dagokionez, apirileko datuen arabera, 24 ikastaro egin dira edo eskaintzen ari dira, eta horrek azken urteetako joera sendotzen du. Ikastaro horietako asko Nafarroako lurraldean barrena egiten dira, eta hori oso positiboa da lurralde ekitatearen eta kohesioaren ikuspegitik.

Bestalde, nabarmendu behar da ezen, eskaintzaren zatirik handiena gazteei zuzenduta badago ere, NGJEk gazteekin lan egiten duten profesionalentzako prestakuntza ere ematen duela, norik bere esparruan lan egiteko trebakuntza handiagoa lortu ahal izan dezaten.

Baina NGJEk ematen duen prestakuntzaz gain, nabarmentzekoak dira **Aisialdiko Hezkuntza Eskolak** ere. 2023an, dekretu berri hau onetsi zen: 56/2023 Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, zeinaren bidez arautzen baita, Nafarroako Foru Komunitatean, aisialdiko hezkuntza eskolak eta horien irakaskuntzak aitortzeko bidea. Dekretu hori indarrean sartzeaz batera, 7 eskola aitortu dira ofizialki. Eskola horietan, prestakuntza nagusia astialdiko begirale eta zuzendari izatearekin dago lotuta. 2023an, begirale izateko 24 ikastaro egin ziren, eta zuzendari izateko beste 2 ikastaro.

8. GENERO BERDINTASUNA GAZTEEN ARTEAN.

Genero berdintasuna, arlo guztietan, gizartearen aspirazioa da, eta, azken hamarkadetan, gainera, eboluzio ukaezina izan du Nafarroan. Dena den, eboluzio positibo hori ukaezina izanik ere, **oraindik asko dago hobetzeko eta, maila guztietan, aukera berdintasuna lortzeko**; izan ere, hain errotuta dagoen sistema patriarkalaren oinarriak oraindik presente daude gure gizartean.

Genero berdintasunarekin eta gazteekin lotutako fenomenoaren egoera erakusten duten zenbait datu aztertzen hasi aurretik, azpimarratu behar da **egungo egoera erabakigarria dela gizarteak aurrera egiteko**. Jarrera atzerakoiek beren borrokaren jomugan jarri dituzte feminismoa eta genero berdintasuna, eta, beraz, kolokan jar daitezke ahalegin handiari esker lorturiko aurrerapen garrantzitsu batzuk. Ildo horretan, funtsezkoa da arreta gazteengan jartzea, belaunaldien artean duten posizioak berebiziko garrantzia baitu berdintasunezko gizartea eraikitzeko bidean.


Hurrengo lerroetan, genero berdintasunarekin-desberdintasunarekin oso lotuta dauden hainbat esparru aztertuko dira; hasteko, gazteek eurek zer pertzepzio duten aztertuko da. Genero indarkeriarekin lotutako datu batzuk ere aztertzen dira, desberdintasunaren ondorio dramatikoetako bat. Azkenik, berdintasunaren-desberdintasunaren egoerak landuko dira, zainketa lanen ardura hartzearekin lotuta.

GENERO BERDINTASUNAREN PERTZEPZIOA.

Nafarroako Gazteriaren Institutuaren *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterlana oinarri hartuta, galdetutako gazte gehienek, %81ek, genero desberdintasunak daudela uste dute. Hala ere, **desberdintasunak daudela uste duten pertsonen zati handi batek (%49k) iritzi dio desberdintasun horiek txikiak direla**. Ehuneko hori inolako desberdintasunik ez dagoela uste duten gazteen ehunekoari gehitzen badiogu, **gazteen %62k uste dute genero desberdintasunak txikiak direla edo ez dagoela halako desberdintasunik** (bat bera ere ez); datu hori oso altua da, eta gazteek berdintasunari buruz oso iritzi baikorra dutela erakusten du.

Hala ere, eta modu kontrajarrian, gazteen heren baten iritzia nabarmentzen da, desberdintasunak handiak edo oso handiak direla uste baitute.

46. GRAFIKOA. GAUR EGUN GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEAN DAUDEN DESBERDINTASUNEN KALIFIKAZIOA.



Iturria: *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta*. Nafarroako Gazteriaren Institutua

Aurreikus zitekeen moduan, **neskek mutilek baino neurri handiagoan jotzen dituzte handitzat edo oso handitzat desberdintasunak (%42,1ek)**; izan ere, mutilei dagokienez, mutilen %25ek soilik uste dute desberdintasunak handiak edo oso handiak direla.

Datu horiek erakusten dutenez, gizonetzko gazteak emakumezkoak baino askoz ere baikorragoak dira genero berdintasunari dagokionez. Datu horien arabera, tradizionalki onura gehien jaso dituen biztanleria taldeko kide izateak

gaiaren inguruan askoz ere ikuspegi positiboagoa izatea dakar, desberdintasun egoeran bizi den biztanleriaren parte direnekin alderatuta.

Esanguratsua da, halaber, **gazteek, zenbat eta ikasketa gehiago izan, orduan eta desberdintasun handiagoak daudela uste izatea.**


Era berean, aipagarria da Espainian jaiotako gazteek ez dutela hain ikuspegi baikorra berdintasunaren inguruan; izan ere, gazte horien %36,2k uste dute desberdintasunak daudela (handiak edo oso handiak), eta, ostera, atzerrian jaiotakoen artean %26k uste dute uste hori.

GENERO INDARKERIA.

Genero indarkeria genero desberdintasunaren ondorio tamalgarrienetako bat da. Indarkeria datuek, hildako emakumeen alderdi dramatikoenez batera, egoera oso kezagarria erakusten dute gizarteari dagokionez. **Gazteekin lan egitea funtsezkoa da genero indarkeriaren aurkako borrokan aurrera egiteko.**

Nafarroako Berdintasunerako Institutuak emakumeen aurkako indarkeriagatik Foruzaingoa jarritako salaketei buruz egindako urteko txostenaren arabera (2023), emakumeen aurkako indarkeriagatik jarritako salaketak nabarmen igo dira azken 3 urteetan.

47. GRAFIKOA. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIKO SALAKETEN KOPURUA NAFARROAN.



Iturria: Nafarroako Foruzaingoan jarritako salaketak datu baseak. NBI. 2023ko txostena.

Emakumeen aurkako indarkeriatik salaketak jarri zituzten pertsonen adinari dagokionez, emakumeen **%39,2k 30 urte baino gutxiago zituzten**. Horrek erakusten du genero indarkeria Nafarroako emakume gazteei neurri handian eragiten dien arazoa dela.


22. TAULA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIK SALAKETAK JARRI ZITUZTEN EMAKUMEEN ADINA. 2023

ADINA	%
17 baino gutxiago	%11,48
18-29	%27,74
30-49	%47,39
50-64	%10,66
65 edo gehiago	%2,53
EE	%0,19

Iturria: Nafarroako Foruzaingoan jarritako salaketak datu baseak. NBI. 2023ko txostena.

Azterketa salaketak **sexu indarkeriatik jartzen dituzten emakumeengan oinarrituz, nabarmendu behar da emakumeen %40k 18 urte baino gutxiago zituztela, eta %32k 18 eta 29 urte artean**. Beraz, agerian geratzen da sexu indarkeria arazo larria dela Nafarroako emakume gazteen artean.

48. GRAFIKOA. EMAKUMEEN AURKAKO SEXU INDARKERIAGATIKO SALAKETEN KOPURUA NAFARROAN.



Iturria: Nafarroako Foruzaingoan jarritako salaketen datu baseak. NBI. 2023ko txostena.

Genero indarkeriaren arazoarekin lotuta, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterlanean ikus daitekeenez, **emakumeen %25,2k adierazi zuten inoiz indarkeriazko egoerak jasan dituztela nolabaiteko lotura bat duten pertsonen aldetik** (hau da, haiekin harremana zuten, izan zuten edo izan nahi zuten, edota haiek biktimarekin harremana izan nahi zuten pertsonen aldetik).

Inkesta horretan bertan, emakumeen aurkako ziberindarkeriaren inguruko emaitza interesgarriak ageri dira. Interneten, sare sozialen, aplikazioen eta abarren erabilera masiboak izugarri zabaldu ditu emakumeen aurka indarkeriaz jokatzeko den egoerak. Indarkeria mota horri dagokionez, nabarmentzekoak dira inkestan parte hartu zuten emakume gazteek aipatutako egoerak; besteak beste, haiek nabarmendu daitezke: galdetutako emakume gazteen heren batek adierazi zuten nahi ez zituzten mezu elektronikoak edo kutsu sexualeko mezuak jaso zituztela, eta emakumeen ia %30ek adierazi zuten sexu izaerako argazkiak eskatu zizkietela Internet bidez.

23. TAULA: INTERNETEN SEXU INDARKERIAZKO EGOEREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEAK

ADINA	Gutxienez behin
Online sexua izatea eskatu dizute.	%15,4
Sexuaz hitz egiten jarraitzeko eskatu dizute, zuk gaia uzteko eskatu arren.	%11,6
Argazki sexualak eskatu dizkizute Internet bidez.	%29,8
Irudi sexualak erakutsi dizkizute Internet bidez.	%28
Nahi ez zenituen mezu sexualak jaso dituzu (elektronikoak barne).	%33,1

Iturria: *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta.* Nafarroako Gazteriaren Institutua

Berriro ere, datu horiek erakusten dute **emakumeen aurkako indarkeria** —kasu honetan, ziberindarkeria— **oso arazo larria dela eta nabarmen eragiten diela Nafarroako emakume gazteei.**

ZAINZAK ETA ERANTZUKIDETASUNA¹⁰.

Tradizioz, batez ere emakumeek hartu izan dituzte beren gain zainketa lanak, bai haurrak zaintzearekin loturikoak, bai adineko pertsonak zaintzearekin loturikoak, eta horrek ondorio ikaragarriak izan ditu desberdintasun egoeren etengabeko errepikapenean. Gaur egun, oraindik, zeregin horiek oso garrantzitsuak dira gizartearen ongizaterako, eta, neurri batean, desoreka dago oraindik herritarrek zeregin horiek beren gain hartzeko orduan.

Nafarroako Gazteriaren Institutuaren *Gazteria eta zainketa. Nafarroa 2024* monografikoan jasotzen den bezala, Nafarroako gazte gehienek (%67,8) uste dute **zainketa lanak guztiz beharrezkoak direla eta gizartean aitortuta egon beharko liratekeela, gizarte osoaren erantzukizuna direlako.** Hala ere, gazteen ia heren batek uste du, guztiz beharrezkoak diren zereginak izan arren, zainketak behar dituzten pertsonen familiei soilik dagokiela haien ardura.

Datu horietan oinarrituta, adierazi behar da mendetasuna duten pertsonen zainketaren ardura haien familiei soilik egozteak ekar dezakeela betiko genero


¹⁰ Kapitulu honen azterketan, Nafarroako Gazteriaren Institutuaren *Gazteria eta zainketa. Nafarroa 2024* azterlan monografikoa hartu da erreferentziazat.

rolak errepikatzea, hau da, zeregin horien ardura batik bat emakumeek beren gain hartzea; zeregin horiek, gainera, aintzatespen txikia dute maila guztietan, eta oso ondorio larriak dituzte bizitzako beste zenbait eremutan (lan arloan eta osasunean, adibidez).

Orain arte emakumeek beren gain hartu izan dituzten zereginak betetzeari dagokionez, genero desberdintasuneko arrakala dago oraindik, oso pixkanaka aldatuz joan bada ere; izan ere, gazteen artean desberdintasuna dago oraindik.

Etxeko lanei dagokienez, gazteen zati handi batek (%45ek) haien ardura hartzen du, beste pertsona batzuekin batera; beraz, lan horiek nork bere gain hartzeari dagokionez, maila altua da, oro har.

49. GRAFIKOA. ETXEKO LANAK NORK BERE GAIN HARTZEAREN MAILA¹¹




Iturria: *Gazteria eta zainketa* monografikoa (2024). Nafarroako Gazteriaren Institutua.

Etxeko lanak nork bere gain zer neurritan hartzen dituen aztertzean pertsonen sexua kontuan hartzen bada, **desberdintasuna nabaria da; izan ere, etxeko lanen ardura handiena hartzen den kasuetan, neskek gehiago dira mutilak baino.**

Antzeko zerbait gertatzen da **zainketa lanei dagokienez; izan ere, neskek mutilek baino neurri handiagoan hartzen dituzte beren gain zeregin horiek.**

¹¹ «Etxeko zereginiei dagokienez, zer esanen zenuke...?» galderaren erantzuna.

50. GRAFIKOA. ZAINKETA LANAK NORK BERE GAIN HARTZEAREN MAILA¹²



Iturria: *Gazteria eta zainketa* monografikoa (2024). Nafarroako Gazteriaren Institutua.

Azterketa **zainketa lanetan oinarrituz, Nafarroako gazteek** (karga mota hori dutenek) **zeregin horretan egunean pasatzen duten denbora askoz handiagoa da emakumeen artean** (126,5 minutu egunean) **gizonen artean baino** (25,4 minutu egunean).

Era berean, azpimarratzekoa da pertsonen adina zenbat eta handiagoa izan orduan eta alde handiagoa dagoela zereginak —batez ere zainketa lanak, baina baita etxeko lanak ere— nork bere gain hartzeari dagokionez. Horrez gain, nabarmendu behar da desberdintasuna handiagoa dela jatorri migratzaileko gazteen artean; izan ere, kasu horietan, emakumeek gizonak baino askoz ere neurri handiagoan hartzen dituzte beren gain lan horiek.

Etxeko lanak eta zainketa lanak nork bere gain hartzeko orduan dauden desberdintasun horiek erakusten dute oraindik ere agerikoa dela **genero arrakala** zeregin horiei dagokienez. Desberdintasun horiek berresten dute behar-beharrezkoa dela lanean jarraitzea herritarren ongizaterako eta bizi kalitaterako funtsezkoak diren eginkizunen erantzunkidetasuna lortzeko. Zainketari dagokionez, gizartearen zahartze prozesuak —goraldian dagoen erronka izanik— behartzen du erantzukizuna familiara mugatzen ez duen sistema bat

¹² “Zainketa lanei dagokienez, zer esanen zenuke...?” galderaren erantzuna.

birpentsatzera, hala egin ezean eremu horretan desberdintasun egoera errepikatzea ekarriko bailuke.

9. KOMUNIKAZIO ETA INFORMAZIO TEKNOLOGIAK, ETA HAIEN ERAGINA.

Informazio eta komunikazio teknologiak gizarteko esparru guztietan agerpen nabarmena duten elementuak dira, eta, gainera, gero eta eragin handiagoa eta biziagoa dute sozializazio prozesuetan, aisian eta lan eremuan, **besteak beste**. Argi dago Nafarroako gazteria ez dagoela fenomeno horretatik kanpo, eta, horrenbestez, garrantzitsutzat jotzen da diagnostiko honetan gaiari buruzko berariazko atal bat txertatzea.

Gaur egungo gazteek bereizgarri dute, haien baitako desberdintasunak gorabehera, **mundu analogikoan eta mundu birtualean duten presentzia paraleloa**. Harremanak izateko moduak aldatuz joan dira, eta gero eta ohikoagoa da xede horretarako bide digitalak erabiltzea. Hori ez da ez ona, ez txarra, alderdi oso positiboak eta arriskuak baititu, aldi berean.

Gazteen zati handi bat aro digitalean jaiotakoak izateak esan nahi du haientzat betidanik izan direla gailu digitalak eta gailu horien erabilera digitalak. Mundu digitala etengabe aldatzen diren kodeak eta arauak sortuz joan da, eta, horien ondorioz, distantzia handi samarra sortu da gazte ez diren helduekiko; izan ere, eraldatze prozesuak hain dira azkarrak eta berehalakoak, ez baitiete bestelako harreman egiturei erantzuten.

Garrantzitsua da aro digitalak gazteei eskaintzen dizkien alderdi positibo guztiak nabarmentzea, hala nola informazioa eskuratzeko aukera, harremanetarako modu berriak, sorkuntza prozesuen demokratizazioa, eta musikako edo ikus entzunezko edukiak eskuratzeko aukera. Baina, garrantzitsua da, halaber, **hain azkarra eta aldakorra den mundu digital honetan, hiperkonektibitateak eta arau sozial eta etikorik ez izateak zer arrisku larri dakartzan** nabarmentzea. Gai honetan, familiak funtsezkoak dira, sozializazioaren oinarrietako bat baitira. Baina **ezjakintasun handiko eremu bat dugu aurrean, eta laguntzeko eta inplikatzeko beharra izugarriak dira**.

Nafarroako gazteen azterketari dagokionez, adierazi behar da ez dagoela gaiari buruzko ikerlan zehatzik, eta horregatik, atal honetan, *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterlanean bildutako informazioa hartuko da oinarri, bai eta NGIk egindako *Gazteria eta bizikidetz*a. *Nafarroa 2023* monografikoan jasotako informazioa ere. Azken horretan, gaiari buruzko berriazko bi atal daude (Ingurune digitala [...] eta Sare sozialak eta [...] tolerantziazko jarrerak). Horrez gain, estatuan berriki argitaratutako bi azterketa era hartuko dira kontuan: bata, Reina Sofia Zentroaren “*Desde el lado oscuro de los hábitos tecnológicos. Riesgos asociados a los usos juveniles de las TIC*” (Ohitura teknologikoen alderdi ilunetik. Gazteek IKTak erabiltzearekin lotutako arriskuak) eta bestea, GAD3 aholkularitzak Fundación Fomentoren “*Empantallados.com*” proiekturako egindako “*Estudio sobre el impacto de la IA en la educación en España*” (Adimen artifizialaren eragina Espainiako hezkuntzan).


GAZTEAK ETA INFORMAZIOA.

Lehen hurbilketa gisa, aipatu behar da ezen, *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta* azterlaneko “Aisia eta astialdia” atalaren arabera, **Nafarroako gazteak egunean 4 ordu inguru egoten direla pantailen aurrean** (3,9 ordu lanegunetan, eta 4 ordu asteburuetan). Azpimarratzekoa da, hala ere, landa eremuetan bizi diren gazteek egunero pantaila aurrean ematen dituzten 3,2 orduen eta Iruñerrian bizi direnen eguneroko 4,4 orduen artean dagoen aldea (hau da, Iruñerriko gazteak %37,5 gehiago egoten dira pantailen aurrean).

Bestalde, informazioari dagokionez, nabarmendu behar da **Nafarroako gazteen ehuneko handi batek sare sozialen, foroen eta blogen bidez lortzen duela informazioa** (batez ere, gizonek eta gazteenek); horiek, beraz, informazioa prentsa idatziaren edo irratia bidez jasotzen dutenak baino askoz gehiago dira, baita telebistaren bidez edo onlineko komunikabide tradizionalen bidez jasotzen dutenak baino gehiago ere. Datu horiek harrigarriak ez badira ere, agerian uzten dute izugarri aldatu dela gazteek informazioarekin erlazionatzeko duten modua, horrek duen garrantzi sozial guztiarekin.

Hein handi batean, gaur egungo gazteen errealitatea aipatutako eremu birtual horretan eraikitzen da, eta bertan sozializatzen dira; halakorik ez da gertatu egun nagusiagoak diren beste belaunaldi batzuekin.


51. GRAFIKOA. BALIABIDE BAKOITZA ERABILTZEN DUTEN GAZTE NAFARREN TASA



Iturria: NGI. *Gazteria eta bizikidetza. Nafarroa 2023* monografikoa.

Behin egoera kokatu ondoren, interesgarria da **Nafarroako gazte** gehienek sare sozialetan zer **rol** hartzen duten azpimarratzea; gehien-gehienek irakurri egiten dute edo informatu egiten dira, eta **%15-16 inguruk soilik egiten ditu iruzkinak edo ematen du bere iritzia**. Hala ere, garrantzitsua da sare sozialek parte hartzeko espazio gisa duten potentziala nabarmentzea, eta, horretarako, beharrezkoa da NGLak berak ere potentzial hori kontuan hartzea eta sare sozialen erabilera txertatzea; horrela, parte hartzeko baliabideak dibertsifikatuko dira, eta sare sozialak horretarako espaziotzat kontuan hartuko dira, betiere zenbait arau errespetatuta eta haien erabilera arduratsuan oinarrituta.

52. GRAFIKOA. ZER EGITEN DUTEN SARE SOZIALETAN INFORMAZIOAREN AURREAN




Iturria: NGI. *Gazteria eta bizikidetza. Nafarroa 2023* monografikoa.

Informazioari dagokionez, gazteek **sare sozialen** bidez lortzen dute, batez ere; dena den, joera hori ez dator bat sare sozialei ematen dieten sinesgarritasunarekin, **bitarteko horiei ematen baitiete sinesgarritasun gutxien**. Horrek, beraz, **leku onean uzten du Nafarroako gazteria, eta erakusten du herritarrak jabetzen direla sarean dabilen informazioari erabateko sinesgarritasuna emateak dituen arriskuez**.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeenez, sare sozialak dira gazteek sinesgarritasun gutxien ematen dieten bitartekoak, blogen eta foroen oso antzekoa. **Oso deigarria da, bestalde, sinesgarritasun handiena ematen dieten bitartekoak izatea informatzeko gutxien kontsumitzen direnak**.

53. GRAFIKOA. KANAL BAKOITZARI EMANDAKO SINESGARRITASUN MAILA (1-10)



Iturria: NGI. *Gazteria eta bizikidetza. Nafarroa 2023* monografikoa

Horrek guztiak agerian uzten du Nafarroako gazteek ere ehuneko handi batek (%65etik gora) antzematen eta egiaztatzen duela erronka bat dela **nolabaiteko kezka izatea sareetan ikusten dituzten edukien egiazkotasunaren inguruan**; hori dela eta, bide horretatik jasotzen duten informazioa kontrastatzeko beharra sentitzen dute. Beraz, bistakoa dirudi gaiari buruzko prestakuntza (arautua eta ez-arautua) behar dela; izan ere, adin goiztiarretan sare sozialen erabilerarekiko joera hertsatzaileak agertu beharrean, gizarte moduan beste era batean erantzun behar dugu; hau da, gazteek informazioa lortzeko sare horiek erabiltzeko joera izanik, Nafarroako gizarteak erronka bat dugu aurrean, **gazteak sare sozialen erabileran trebatzea, hain zuzen ere, sare horiei ahalik eta etekin handiena atera ahal izateko**.


SARE SOZIALEN ERABILERA.

Sare sozialak oso garrantzitsuak dira mundu birtualaren eta gazteen arteko harremana aztertzeko. Sare sozialak ez dituzte gazteek bakarrik erabiltzen, **baina badira joera batzuk adinari dagokionez oso nabarmenak direnak**; esate baterako, profil gazteagoko sare sozialak eta hain profil gazteak ez dituztenak bereizten dira.

Hurrengo grafikoan ikus daitekeen bezala, gazteek gehien erabiltzen duten sare soziala Instagram da, whatsapparen erabilera bera ere gaituz; beraz, Instagram edukia partekatzeko erabiltzeaz harago, mezularitzako aplikazio moduan ere erabiltzen dute.

Adinari dagokionez, oso deigarria da zenbat eta gazteagoak izan Facebook gutxiago erabiltzen dela. **Tik Tok-i dagokionez, kontrakoa gertatzen da, aplikazio horren erabilera askoz ere zabalduagoa baitago gazteen artean.** Nolabait ere, profil gazteagoko sare sozial batzuk daude; gainera, haien bilakaera bizkorra eta erabilera direla eta, kontuan hartu beharreko zerbait da.

54. GRAFIKOA: ZER SARE SOZIAL ERABILTZEN DITUZTEN EGUNERO



Iturria: NGI. *Gazteria eta bizikidetzeta. Nafarroa 2023* monografikoa.

Erabat zabaldua eta normalizatuta dago gazteek sare sozialak erabiltzea. Agerikoa da sare sozialak konplexutasun handiko eremua direla, dituzten arriskuengatik eta arau eta erregela komunik ez izateagatik; baina, aldi berean,

gazteek parte hartzeko, adierazteko eta sortzeko gune bat ere badira. Horregatik, **garrantzitsua da sare sozialak indar positiboko eremu gisa hartzea, parte-hartzearekin lotuta, adibidez.** Baina, logikoa denez, funtsezkoa da arau batzuk ezartzea ere, ingurune birtuala ere espazio segurua, adeitsua eta parte-hartzera nahiz ideien aniztasunera bideratua izan dadin.

JOKABIDE ARRISKUTSUAK.

Atal honen hasieran aipatu bezala, diagnostikoan I. Megíasen Megíasen ikerlan batean bildutako zenbait gogoeta erantsi dira (*Desde el lado oscuro de los hábitos tecnológicos: riesgos asociados a los usos juveniles de las TIC*; Reina Sofía Zentroa, Fad Juventud Fundazioa; Madril, 2024); izan ere, **estatu mailan gazteriaren eta teknologia berrien arloan egin den lanik berrienetakoa da.** Beraz, ikergai den populazioa espezifikoki Nafarroan kokatzen ez denez, ikerlanean arreta handiago jarri zaie alderdi kualitatiboari alderdi kuantitatiboari baino.

Ikerlan horretan, teknologien erabilera arriskutsuarekin loturiko informazio garrantzitsua jaso da, batez ere oso gaztetan eta informazio edo kudeaketa arduratsurik egin gabe erabiltzearekin lotuta.

Ikerlanean, garrantzitsuak diruditen eta, lehen, «Ongizatea eta osasuna» izeneko 6. atalean azaldutako informazioaren osagarri diren bi fenomeno jaso dira. Alde batetik, nabarmentzen da **gutxienez lau gizon gaztetik batek astero edo hamabostean behin kontsumitzen duela pornografia**; datu horri egunero edo ia egunero kontsumitzen dutenak (%15 inguru) gehitu behar zaizkio. Bestetik, **online jokoak eta apustuak** aipatu behar dira, mutilen %20 inguruk asteroko ohitura baititu.

Hala ere, aipatu behar da, **bai eduki pornografikoaren kontsumoa, bai apustu eta online jokoena, hutsala dela emakumeen artean**; horrek, hain zuzen, alde handia erakusten du generoaren ikuspegitik teknologien erabilerarekin alderatuta, neskek gehiago erabiltzen baitituzte, oro har.

Zalantzarik gabe, pornografiaren kontsumoak eta online apustuek egoera askoz konplexuagoa erakusten dute; izan ere, kontua ez da ohitura bera, baizik eta ohitura horrek dituen arriskuak, eta ohitura edo baliabide horien kontsumorako babes neurri fidagarri, ezagun eta agerikoak gabezia.

Ikerlanaren beste alderdi esanguratsu bat da **Espainiako gazteen %40 inguruk ez zuela inoren gomendiorik jaso sare sozialetan nola babestu edo jokatu jakitearekin lotuta**. Horri dagokionez, oso deigarria da gazteen irakasleek izatea interes gutxien jakiteko gazteek azken urtean Interneten zer egin duten.

Noski, sare sozialen, edukien eta teknologien erabilera berez ez da faktore negatibo bat, balio handia ematen baitiote gaur egungo gizarteari hainbat arlotan. Baina, era berean, argi dago ingurune birtuala arrisku handiko eremu bihurtu dela, horien erabileraren inguruan **erregela, arau eta itun sozial argirik ez dagoelako, eta mugak maila guztietan lausotzen direlako**. Gazteei dagokionez, beharrezkoa da teknologien erabileran arrisku handieneko fenomenoak zein diren jakitea, haien erabilera kontziente eta arduratsuari lagunduko dioten tresnak eraiki ahal izateko.

«Arriskutsuagoak» diren ohitura horien ondorioekin lotuta, nabarmendu behar da **Interneten eta sare sozialen erabilerak hain garrantzitsuak diren zenbait ohitura behar bezala ez zaintzea dakarrela, loa (gazteen %42,5ek) eta ikasketak (gazteen %40k), adibidez**. Beste bizi jarduera batzuei eragiten dien **gehiegizko erabilera horrek gogaitze eta/edo aspertze sentrazioaren ehuneko handia dakar (%30,1ek nahiko maiz edo oso maiz, eta %35,4k batzuetan)**.

ADIMEN ARTIFIZIALA, ESPLORATU BEHARREKO EREMUA.

Argi dago diagnostikoan izaera propioaz ageri den atal horri eutsi egin beharko zaiola datozen urteetan ere, eta, horrez gain, IKTen mundua modu jakin batean eta hain azkar aldatzen ari denez, komeni da horren baitako fenomeno espezifikoek heldzea. Hori dela eta, diagnostiko honetan **interesgarritzat jo da adimen artifizialaren (AA) fenomenoaren lehen hurbilketa bat egitea**; izan ere, fenomeno hau une honetan sortu ez bada ere, garrantzia hartu du eztabaida publikoan, gizartean, oro har, eta gazterian, bereziki, dituen eraginengatik.

Horri dagokionez, **AAren fenomenoa Nafarroan bere osotasunean aztertze beharra planteatzen da, eta, ahal izanez gero, ongi legoke Nafarroako gazteen eremu espezifikoan ere ikertzea.** Nolanahi ere, Nafarroan baliabiderik eta iturririk ez izanda, estatu mailako hainbat iturritatik jasotako zenbait ideia planteatu ditugu, gai hori, hein batean, erdigunean jar dezaketanak.

Bi iturri horiek nazio mailan AAri buruzko inkestak egin dituzten erakundeak dira, eta, auziaren orokortasunari buruzko ikerlan sakonak ez izan arren eta lagin bereziki esanguratsurik ez badute ere, gogoetarako interesgarriak diren zenbait gai aurreratzen dituzte. Era berean, *Adimen Artifizialaren Estrategia Nazionalaren* parte diren elementuak jasotzen dira arlo horretan. *Lehen ondorio gisa* adierazten da, bai egindako ikerlanetan, bai erabileraren estrategian bertan, **azterketa AAk hezkuntza arloan duen erabileran oinarritu dela.**

Hain zuzen ere, bereziki gazteriari erreparatzen dieten Estrategia Nazionalaren bi neurriek (8. eta 9. neurriek) **hezkuntza arloarekin eta etengabeko prestakuntzarekin** dute zerikusia.

1. Gaitasun Digitalen Plan Nazionala garatzea, eskolan pentsamendu konputazionalako eta adimen artifizialeko elementuak txertatzeko; LH modernizatze; unibertsitateko eta unibertsitate ondoko prestakuntza garatzeko; eta langileen birkualifikazioa eta herritar guztien trebakuntza digitala bultzatzeko, zientzia, teknologia, ingeniari, matematika eta humanitateen arloetako (STEAM) bokazioak sustatuta, eta genero arrakala murrizteari eta herritarrentzako prestakuntza eta eztabaida programak ezartzeari arreta berezia jarrita.
2. AAra bideratutako Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko prestakuntza eskaintza handiagoa sustatzea, doktoretzako, masterreko eta graduondoko ikasketetarako eta irakasle nahiz ikertzaile izateko plaza gehiago eskainita, eta egungo graduetako edukiak eguneratuta. Diziplina arteko eta unibertsitate arteko lankidetzak akademikoko egiturak sustatuko dira, nazio mailan ikuspegi mistoa izanen duen komunitatea sendotzeko eta nazioarteko trukeak sustatzeko.

Hain zuzen, hezkuntzaren arloan ekarriko da hizpidera GAD3 aholkularitzak Fomento de Centros de Enseñanza fundaziorako egindako *El impacto de la IA en la educación en España* (Adimen artifizialaren eragina Espainiako

hezkuntzan) ikerlana. Azterlan horretatik, inkestatutako ikasleentzat (14 eta 17 urte bitartekoak soilik) interesgarriak izan daitezkeen bi nozio ondorioztatu dira. Alde batetik, AAren erabilera homogeneoa da nesken eta mutilen artean (%83 versus %81). Eta bestetik, nabarmendu behar da ikasgelan erabiltzearen inguruko pertzepzioa askoz positiboagoa dela mutilen artean; izan ere, mutilen %70ek oso positibotzat dute, eta, ostera, nesken %47k dute iritzi hori.

Laburbilduz, **AAren eragina berariaz landu behar da** Nafarroan, zenbait arlotan (hezkuntza, aisia...) eta AAk gero eta presentzia handiagoa duen erabilera pertsonaleko beste zenbait esparrutan AAk zeharka duen eraginari buruzko informazio zabalagoa izateko.


10. BALIO ZIBIKOAK ETA AKTIBISMOA

Balio zibikoei (parte-hartze soziopolitikoak, tolerantzia, etab.) eta aktibismoari (bereziki ingurumen kontzientziari loturikoari) buruzko atal hau planteatzen da, *Nafarroako Gazteen 2022ko Inkesta* azterlanetik nahiz bizikidetzari eta ingurumenari buruzko berriazko azterlan monografikoetatik bildutako informazioa oinarri hartuta. Era berean, gogoetarako bide, eta ikuspegi kualitatiboago batetik, FAD Juventud erakundeak estatu mailan egindako bi ikerlan baliatu dira, gazteak eta politikari eta gazteen ekologismoak Espainian izandako bilakaerari buruzkoak, hain zuzen.

GAZTEAK ETA POLITIKA.

Nafarroako gazteen azken inkestetan (bai 2019koan, bai 2022koan), argi ikusten da **gazteek politikarako duten interesa txikia dela, gazteen %70 inguruk adierazten baitute interes gutxi dutela, edo batere ez**. Gazteen %28k soilik adierazi dute politikarako interes nahikoa edo handia dutela.

55. GRAFIKOA. POLITIKARAKO INTERES MAILA (%)



Iturria: NGI. *Nafarroako gazteen 2022ko inkesta*

Nabarmendu behar da **mutilek neskek baino interes handiagoa dutela politikan**; izan ere, mutilen %33,1ek adierazi dute «nahikoa interes edo interes handia» dutela politikan, eta, neskei dagokienez, %21,9k adierazi dute ideia bera.


Nabarmentzekoa da, halaber, gazteen prestakuntza zenbat eta handiagoa izan, orduan eta interes handiagoa dutela politikan; portzentaje handienak goi mailako ikasketak dituzten gazteenak dira (%39,8).

Politikaren inguruko balorazio orokorrari dagokionez, aipatzekoa da haien iritzia; izan ere, **gazte gehienek uste dute botere politikoa dutenek ez dituztela gazteen interesak zaintzen**, eta, horrez gain, politikan aritzen direnek beren interes pertsonalei erantzuten dietela irizten diote. Bi uste horiek **oinarri sendoa dira gazte nafarrek politikarako halako atxikimendurik ez izateko**.

Politikarako atxikimendu falta hori, antza, handitzen ari da, eta asko dira fenomeno horren atzean dauden faktoreak; hauek, besteak beste: politikak herritarren interesei erantzuten ez dien sentipena, esparru politikoetan hautematen den etengabeko giro asaldatua, edota zenbait arlotan, hala nola etxebizitzan eta enpleguan, gazteei positiboki eraginen dien konponbide zehatzik ez ematea.

Foru Komunitateak Nafarroako gazteen posizionamendu politikoari buruzko datu berririk ez dagoenez, interesgarritzat jo da estatu mailan gai horietan zer bilakaera izan den erakustea; informazio hori ezin da bere horretan Nafarroara estrapolatu, baina antzekoak izan daitezkeen zenbait joeraren berri emanen dute.

56. GRAFIKOA: ESPAINIAKO GAZTEEN AUTOKOKAPEN IDEOLOGIKOA. 2019-2023



Iturria: GAZTERIA ETA POLITIKA: M-15ETIK EGUNGO EGOERA POLARIZATURA. FAD JUVENTUD FUNDAZIOKO REINA SOFÍA ZENTROA.


Datu horiek oinarri hartuta, ondorio argi batzuk atera daitezke:

- **Polarizazioak gora egin du**, azken urteotan behera egin baitu beren burua zentroan kokatzen duten gazteen kopuruak (ia 20 puntu jaitsi da 4 urte gutxitan).
- Gazteen artean, **gero eta gehiagok jotzen dute eskuinera** (2019-2023 aldian ia 10 puntuko igoera izan da)
- **Zalantzazien edo haien erantzunak ezkutatzea erabakitzen dutenen kopurua etengabe hazten ari da.**

Horri dagokionez, nabarmena da, halaber, sexuen arabera bereizitako datuen artean dagoen alde handia; zehazki, **gizonek eskuinerako atxikipen handiagoa agertzen dute, eta emakumeek, berriz, ezkererako joera handiagoa dute.**

Atxikipen politikoari buruzko ikerlanarekin bat etorriz, Nafarroako gazteen kezka nagusien laginak ere garrantzi berezia du, garatu beharreko politika publikoen lehenetsunak ezartzerakoan kontuan hartu ahal izateko. Horri dagokionez, **ekonomiarekin nahiz enpleguarekin lotutako guztia eta etxebizitza dira gehien nabarmentzen diren bi kezka nagusiak.**

57. GRAFIKOA. KEZKA SOZIOEKONOMIKAK



Iturria: NAFARROAKO GAZTEEN 2022KO INKESTA

Aurrez adierazi den bezala, kezka horiei erantzun egoki bat emateko politikak ezer gutxi egin dezakeela uste bada, atxikimendu faltaren fenomeno handitu eginen da, horrek dakarren arriskuarekin.

TOLERANTZIA.

Balio zibikoei dagokienez, komunitate demokratiko, plural eta anitz bat behar bezala garatzeko, tolerantzia da sustatu beharreko funtsezko alderdietako bat, gizarte osoarena, oro har, baina, bereziki, gazteriarena. Nafarroak berezko balio bat du, aniztasuna, alegia, eta, horregatik, aniztasun hori kudeatzea funtsezkoa da Foru Komunitatearen etorkizunerako. Diskurtso diskriminatzaileak edota gorroto diskurtsoak gutxitzea oso garrantzitsua da Nafarroako Gazteriaren Institutuak bultzatzen dituen politika publikoetarako .

Zeharkako gaia da, guztiz, eta diagnostikoaren beste atal batzuetan ere agertu da (sare sozialetan, astialdiaren erabileran, berdintasunari buruzkoan, etab.), baina garrantzitsua dirudi Nafarroako gazteen bizikidetzari buruzko berariazko ezaugarri batzuk azaltzea, arriskuak murriztu eta politika publikoak ezartze aldera.


Horri dagokionez, nabarmendu behar da (NGIren *Gazteria eta bizikidetz*a monografikoan bildutako informazioaren arabera), oro har, **gazteak neurrian fidatzen direla besteez** (%34,4k nahikoa konfiantza du, eta %40,8k konfiantza apur bat); horrez gain, **korrelazio positiboa dago jendearengan konfiantza duten gazteen eta aniztasun eta pluraltasun handiagoko gizarte batean bizitzea aukeratuko luketenen artean** (10 gaztetik 8k gizarte heterogeneoagoa eta multikulturalagoa aukeratuko lukete bizitzeko).

Hala ere, gizarte plural baten aldeko ehuneko handi horiek izan arren, **gutxiengo kolektiboenganako zenbait gaitzespen adierazpen egiten dira**; horien artean, oroz gain, **ijitoen etniako biztanleriari** dagokionez gazteek dituzten **aurreiritziak** nabarmentzen dira.

Nafarroan dauden migratzaileen ehunekoa kontuan hartuta, interesgarria da gazteek agertzen duten jarrera **pertsona migratzaileei buruzko iritzia eskatzean; izan ere, oso gutxi dira beren burua xenofobotzat hartzen dutenak (%4 inguru), baina hamarretik bik nahiago du iritzirik ez eman gai horren inguruan**, eta galdetutako pertsonen %10 baino gehiago ez dira eroso sentitzen.

Bada azpimarratu beharreko iritzi edo balorazio bat ere, **zenbait gaztek pentsatzen baitu migratzaileek egiten duten ekarpena txikiagoa dela estatutik jasotzen duten laguntza baino**. Oro har, %20k du uste hori, baina, horrez gain, beste %30 inguruk ez dakiela dio (edo ez duela erantzun nahi); erantzun horren atzean, iritzi negatibo bat ezkuta daiteke, gerta baitaiteke, gizartean gaizki ikusita egotean, iritzi hori isilean gordetzea. Hala ere, gaiarekin lotuta, ehuneko horiek areagotzen dituzten aldagaiak daude, eta hori nabarmentzekoa da. Esanguratsuena **Erriberaren kasua** da, ehunekoak %30era arte igotzen baitira; Nafarroa osoko datua, berriz, %20 da. Hona hemen Nafarroako gazteen batez besteko orokorra baino **ehuneko handiagoak** diren beste **aldagai** batzuk: **gizonak**, beren burua **eskuinekotzat** dutenak edo **maila baxuagoko ikasketak** dituztenak.

58. GRAFIKOA. ZER JASOTZEN DUTE ETORKINEK ESTATUTIK?



Iturria: NGI. GAZTERIA ETA BIZIKIDETZA. NAFARROA, 2023

Azkenik, NGI bera ere lantzen ari den gai garrantzitsu bat planteatzen da. Hau da, **sare sozialetan gero eta ugariagoak diren gorroto diskurtsoez harago**—izan ere, egon badaude, baina ez dira gehiengoa (Nafarroako gazteen %77k dio ez duela beste pertsonarik iraindu edo difamatu sareetan)—, **gazteen kopuru handi samar batek dio, tratu bidegabeko egoeren aurrean, inoiz ez**

dela haren aurka agertu (%17,8) edo oso gutxitan agertu dela haren aurka (%14,1). Fenomeno horren barruan, eta aurreko puntuan gertatu bezala, handia da galderari erantzun ez dioten gazteen kopurua; horrenbestez, horrek adieraz dezake **jarrera intoleranteei dagokionez sareetan adierazitako ehunekoak baino handiagoak izan daitezkeela benetan.**

PARTE-HARTZEA ETA ASOZIAZIONISMOA.

Nafarroako gizarte gaztearen balio zibikoen eta aktibismoaren azterketari dagokionez, bada kontuan hartu beharreko fenomeno klasiko bat: **asoziazionismoa**. Baina asoziazionismo hori aztertzen hasi aurretik, interesgarria da azken urteotan eragina izan duen fenomeno bat azaltzea, hau da, **«aktibismo modu berriak»**; izan ere, fenomeno horrek, gizarte osoan eragiteaz gain, eragin berezia izan du gazteengan, eta, noski, Nafarroan.

Oso garrantzitsua da **globalizazioak eta teknologia berriek gazteen aktibismoan/parte-hartzean duten zeharkako eragina.**


Gaur egun, gazteek, inoiz baino gehiago, askotariko gaien aldeko kanpaina globaletan parte har dezakete, hala nola giza eskubideen edo balio zibikoen defentsan, edota oso modu esanguratsuan, aurrerago ikusiko dugun moduan, planetaren defentsan. Egia esan, edozein gairen inguruan parte hartu eta hitz egin dezakete.

Mundu birtualak parte hartzeko eremu ikaragarria ireki du, aukera izugarriekin, baina, aldi berean, arrisku handiekin, polarizazioa, esate baterako. Hori dela eta, **funtsezkoa da gazteen parte-hartzea esparru digital seguruetan sustatzeko lan egitea**, denek ezagutzen dituzten joko arauak eta erregelak erabiliz. Parte-hartzeari dagokionez, presentzialtasuna sustatzen jarraitu behar da, baina eremu digitala ezin da alde batera utzi, duen potentzial handiagatik eta gazteen artean duen barneratze maila edo arrakastagatik.

Asoziazionismo klasikoaren mailari dagokionez (gazte elkarteetan parte hartzea), **Nafarroako gazteen asoziazionismoak beheranzko joera etengabea eta bizia duela erakusten du.** Pandemiak jaitsiera handia eragin zuen asoziazionismoa maila horretan, eta, gerora ere, jaisten jarraitu du, nahiz eta hain modu bizian ez izan.

Datu horiek kezkarriak dira gazteriaren arloko politikei dagokienez; izan ere, asoziazionismoa beti da aliatu ona gazteek, helburu komun batekin, talde jardueretan parte har dezaten sustatzeko.

59. GRAFIKOA. GAZTE ELKARTEETAKO ASOZIAZIONISMOAREN MAILA NAFARROAN (%o)



Iturria: GAZTE ELKARTEEN ERROLDA. GNI. NASTAT ERROLDAREN URTEKO BERRIKUSPENA. GUK GEUK EGINA

Maila horretan, garrantzitsua da Nafarroako Gazteriaren Institutuak gazte erakundeei laguntza handia ematen jarraitzea, gizartearen eta gazteen parte-hartzearen balio handia baitira.

Gazteen parte-hartzeari dagokionez, Gazteriaren III. Foru Planaren ebaluazioan argi geratu da, gazteriako teknikarien aldetik, gazteen parte-hartzea dela kezka gehien sortzen duen gaitako bat, baita lan egiteko zailena ere, bai bederen parte-hartzearen kontzeptu tradizionalenari dagokionez. Horregatik, berrikuntza bultzatu behar da parte hartzeko moduetan, gazteek beren eskaerak, nahiak eta itxaropenak adierazteko beharra senti dezaten.

GAZTEAK ETA INGURUMENA


Urte batzuetatik hona, planetaren zaintza **gizarteko esparru gehiagotan barneratuz joan da**, nahiz eta negazionismo apur baten gorakada etengabeak izan, klima aldaketarekin lotuta, batez ere. Nafarroako gazteriari dagokionez, hauek dira egindako azken azterketak: alde batetik, GNIk egindako *Gazteria eta ingurumena. Nafarroa 2020*, eta, bestetik, 2024an argitaratu berri den *Gazteria*

eta zainketa. Nafarroa 2024 monografikoan jasotako berariazko atal bat. Azken horretan, hain zuzen, zainketen ikuspegi integral berria jaso da, norbere buruaren zainketatik hasi eta planetaren zaintzarainokoa.

Lehen azterlaneko zenbait ondorio hartuko dira, interesgarriak baitira, baina datuak ez hainbeste, denboran urrun daudelako; bestalde, 2024ko monografikoari buruzko zenbait datu zehaztuko dira.

Lehen aipamen bat egiteko, **Nafarroako gazteak ingurumenarekin oso arduratuta daudela** erakutsi behar da. Grafikoan ikusten denez, gazte gehienek 7tik gorako puntuazioa eman diote beren kezka mailari.

60. GRAFIKOA. INGURUMENAREKIKO KEZKAREN MAILA (0-10)




Iturria: GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA 2024

Kezka maila hori, zalantzarik gabe, **behar-beharrezko alderdia da ingurumenaren aldeko jarrera aktiboetan eragina izanen duen ingurumen kontzientzia zibikoa izateko.**

Hain zuzen, horrela dirudi 2024ko monografikoan ageri diren datuen arabera. Hala ere, egia da beste faktore batzuek ere eragiten dutela sinesmenak edo ideiak ekintza bihurtzerakoan (adibidez, erosteko ahalmenak eta ingurumen kontzientziak kontsumo moduetan, edo ingurumenaren aldeko ekintzetan parte hartzeak).

61. GRAFIKOA: INGURUMENAREKIN LOTUTA NORBERAK EGINDAKO EKINTZAK




Iturria: GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA 2024

Ingurumenarekin lotuta norberak egindako ekintzen grafikoan jasotako jarrera guztien artean, nabarmentzekoa da ingurumen aktibismotik hurbilen dagoen kontzeptuan bilduko liratekeen ekintza espezifikoetan izandako parte-hartze baxua (%51,7k ez du inoiz parte hartu). Gainerako jarrerak antzekoak dira ehunekoetan; hain zuzen ere, %70etik gorakoa izan da beti eta ia beti erantzunen batura, desplazamendu jasangarriak lehenestearen kasuan salbu (%52,7 soilik izan da bien batura, besteak baino hogeituz gutxiago).

Nolanahi ere, lehen aipatu bezala, **badira sinesmen edo ideiekin bat ez datozen zenbait jarrera; horietan bereziena kontsumo ohituretan islatzen da.** Joera hori, beharbada, ez da adin tarte horretara mugatzen den zerbait; hau da, gaur egungo kontsumo gizarte kapitalista bati dagokion ezaugarria izan daiteke. Izan ere, zenbait faktore direla eta (hala nola bizitzaren garestitzea, soldata baxuak eta lan prekarietatea), baliteke prezioa izatea Nafarroako gazteen kontsumo ohiturak zehazten dituen faktore nagusietako bat, pertsona helduen kontsumo ohiturak baino gehiago.

62. GRAFIKOA: INGURUMEN OSAGAIAREN ERAGINA EROSTEKO JARRERAN

Muy presente
 Bastante presente
 Algo presente
 Poco presente
 Nada Presente



Iturria: GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA 2024

Horri dagokionez, interesgarria da (2020ko datuak izan arren) *Gazteria eta Ingurumena. Nafarroa 2024* monografikoko «Ingurumenaren inguruko asoziazionismoa eta parte-hartze aktiboa» gaiari buruzko berriazko irudi bat aurkeztea. Bertan, gaiari buruzko lau datu esanguratsu eman ziren:

- Galdetutako gazteen %11,9k zioten ingurumen helburuko elkarte batean parte hartu izan dutela azken bost urteetan.
- %36,1ek adierazi zuten ingurumenaren aldeko kanpainaren bat sinatu izan dutela.
- %12,7k esan zuten talde ekologista bati dohaintzaren bat egin izan diotela.
- Eta %41,5ek adierazi zuten klimaren aldeko protesta ekintzetan edo manifestazioetan parte hartu izan dutela.

Informazio hori guztia dela eta, gazteek ekologismoaren arloan duten aktibismoari buruzko berriazko gogoeta egin behar da, eta, horretarako, aipatzen da esplizituki **gazteen aktibismo klimatikoaren** gaia.

Zenbait fenomenok, hala nola *Fridays for future* delakoak, agerian utzi dute gazteek, oro har, ez dutela aktibismoa alde batera utzi, baizik eta egiteko beste modu batzuk ekarri dituztela, baita haien aktibismo zibikoan ere (haien bizitzako arlo askotan agerikoa den bezala); egiteko modu horiek, agian, lotura estuagoa dute egungo gizarte likidoan egoteko moduarekin (Baumanek

asmatutako kontzeptuari jarraituz), eta globalizazioaren ereduaren arabera parte-hartzearekin: «Pentsatu modu globalean eta ekin tokian» (kontzeptu hori Ulrich Beckek asmatua dela esan ohi da, baina, egiaz, Roland Robertson da kontzeptuaren «aita»).

Nafarroako testuinguruan horri buruzko daturik ez izan arren, garrantzitsutzat jo da FAD Juventud fundazioko Reina Sofia Zentroak duela gutxi egindako zenbait gogoeta islatzea; gogoeta horiek «La emergencia de la nueva generación ecologista juvenil en España desde 2019: el caso de *Fridays for Future*» (Gazteen belaunaldi ekologista berriaren gorakada Espainian 2019tik: *Fridays for Future* kasua) izenburupean argitaratu zituen.

Mugimenduak agerian utzi du gazte aktibisten belaunaldi berri bat dagoela; gainera, M15aren ostean, eta batez ere pandemiaren ostean, «bizirik» jarraitzen dutela erakusteaz gain, agerian utzi dute belaunaldien artean lehen mailako harremana dagoela urteetan finkatutako kolektiboetako aktibistekin. Hori eredu izan daiteke, agian, gazteen aktibismoa sustatzeko, aldarrikapen eta proposamen ikuspegi baliagarri batetik.

Azkenik, garrantzitsua da azpimarratzea teknologia berrien erabilerak —bereziki, sare sozial publikoen (Twitter, Instagram) edo pribatuen (Whatsapp, Telegram) erabilerak— mesede egin diola gazteen aktibismo mugimendu berri horietan ohikoena den dinamika asanblearioari; izan ere, hasiera-hasieratik, baina batez ere COVID-19aren pandemia agertu eta gero, erabilera horrek bermatu du kolektibo horren existentzia, ahal zen moduan eta, neurri handi batean, sare horien bidezko jarduera birtualari esker biziraun duena.

11. SINTESIA.

GAZTERIAREN ARLOKO POLITIKAK

- **Nafarroako Gazteriaren Institutuaren planifikaziorako kultura indar handia da** berriazko eta zeharkako politikei heltzeko orduan.

- 2020-2023 Estrategia eta Gazteriaren III. Foru Planak garapen handia izan dute, egindako ekintzei dagokienez %108,45eko exekuzio ekonomikoa eta %104,62ko exekuzio teknikoa izan baitute.
- Gazteriaren III. Planaren garapenean, **zeharkakotasun handia izan da aurrera eramandako politikei dagokienez**. Gertaera horrek garrantzi handia du, gazteriaren arloko politikak izan behar duen ikuspegi integrala dela eta.
- Gazteriaren III. Foru Planari dagozkionez 2023an egindako ekintzak ebaluatzean, ikusi da **gazteen kopuru handi batek ezagutzen duela Nafarroako Gazteriaren Institutua (%75,5ek)**.
- III. Planaren ebaluazio prozesuan, parte-hartzea izan da landu eta hobetzeko identifikatu den arloetako bat.
- Nafarroako Gazteriaren Institutuak **baliabide eta tresna ugari ditu berariazko politikak garatzeko**, eta katalogo hori eboluzionatuz eta berrituz doa etengabe.
- **Gazteriari buruzko ezagutza sortzeak indar eta potentzial handia du Gazteen Euskal Behatokian.**
- **Gazteriaren arloko tokiko politiken garrantzia** kontuan hartuta, NGIk tresna garrantzitsuak eskaintzen ditu eremu horretan garatzeko.
- Gazteriarekin lotutako langile propioak izateari dagokionez, **alde handia dago 5.000 biztanletik gorako udalerrien eta kopuru horretatik beherako udalerrien artean.**
- **Antzeko zerbait gertatzen da gazteriaren arloko zinegotzigoei dagokienez. Udalerri txikienek, oro har, neurri txikiagoan dituzte horrelako tokiko egitura politikoak.**

- Nafarroako udalerrri txikietan, langile politiko eta tekniko gutxiago izatean, urriagoak dira gazteriaren arloko politikak.

GARAPENA ETA BILAKAERA

- **Biztanleria gaztea etengabe eta progresiboki hazi da** azken 6 urteetan; hala, 2023an, 124.732 gazte zeuden. Bilakaera positibo hori oso alderdi garrantzitsua da biztanleriaren suspertze demografikoari dagokionez.
- **Gazteek biztanleria osoan duten pisua ere haziz joan da** azken 5 urteetan; zifra ofizialak diren azken urtean (2023), zehazki, biztanleria osoaren %18 izan dira gazteak.
- Hain zuzen ere, Iruñerrian dago Nafarroako gazteen ehunekorik handiena (%59). Gainerakoei dagokionez, Erribera Beherean soilik dira gazteak %10 baino gehiago. Datu horiek agerian uzten dute **gazteei dagokionez lurraldean dagoen desoreka**.
- Gazteen sexuaren araberako banaketari dagokionez, 2023ko azken datu ofizialek **gizonezkoen aldeko desoreka handia erakusten dute**; izan ere, 14 eta 30 urte bitarteko adin taldean, 105 mutil daude 100 neskako.
- Azken urteotan, **Nafarroako biztanleria gaztea etengabe gaztetuz joan da**.
- **Etorकिन presentzia da Nafarroako gazteen hazkundearen faktore nagusietako bat**, bai zenbateko osoari dagokionez, bai kopuru erlatiboari dagokionez.
- Gaur egun, **Nafarroan bizi diren 4 gaztetatik 1 atzerrian jaiotakoa da**; datu horrek ongi erakusten du migrazio fenomenoak gazterian duen garrantzia. Hori dela eta, behar-beharrezkoa da gazteriararen arloko politikan aniztasunaren ikuspegia txertatzea.
- Bestalde, **gazteen bizitegia aintzat hartuta izan diren bajak punturik gorenean daude gaur egun**.

- Era berean, **atzerrian bizi diren nafar gazteen ehunekoak goranzko joera izan du azken 10 urteetan**, eta, hala, 2022an, Nafarroako gazteen %6,64 bizi ziren atzerrian.

JARDUERA EKONOMIKOA ETA LAN MERKATUA

- **2022an Lan Erreformaren Legea indarrean sartzeak gazteen lan baldintzak nabarmen hobetzea ekarri zuen, baina oraindik ez da nahikoa emantzipazioaren erronkari aurre egiteko.**
- **2023an, lanerako adinean zeuden gazteak 102.493 izan ziren Nafarroan.** Zazpi urteko etengabeko hazkundearen une gorena izan zen.
- **2023an, %51,9ko jarduera-tasa izan zen; zehazki, 53.194 gazte zeuden lan merkatuan sartuta.**
- **Nafarroako gazteen jarduera-tasek genero arrakala erakusten dute lan merkatuan sartzeari dagokionez** (gizonen jarduera-tasa %57koa zen, eta emakumeena, berriz, %47koa).
- **2023an, gazteen langabezia-tasa %16,4koa izan zen.** Nafarroako biztanleria osoarekin alderatuta, 7 ehunekoko aldea izan zen.
- **Gazteen langabezia-tasek behera egin dute pixkanaka Nafarroan, Espainian baino erritmo biziagoan;** hala, 2023an, 8.700 gazte zeuden langabezian (Nafarroako gazte aktiboaren %16,4), Nafarroako biztanleria osoaren egungo langabezia-tasaren (%9,3) ia bikoitza. **Nafarroako gazteen langabeziaren egoera Espainiakoa baino nabarmen hobea da;** 2023an, zehazki, %21,22koa zen estatukoa.
- **Bai kopuruari dagokionez, bai tasari dagokienez, gaur egun, gazteen langabeziak gehiago eragin die Nafarroako gizon gazteei emakume gazteei baino** (%63,2 dira gizonak, eta gainerako %36a emakumeak).
- Hezkuntza mailak oztopo izaten jarraitzen du Nafarroako gazteen okupaziorako. **Hau da, zenbat eta hezkuntza maila baxuagoa, orduan eta langabezia handiagoa, eta alderantziz.**

- **2023an**, Nafarroako lan merkatuan sartutako gazteen artean, **%83,6ko okupazioa lortu zen; emakumeek %87,9ko okupazio-tasa izan zuten, eta gizonek, berriz, %81,6koa.**
- Nafarroako gazte guztien %91 soldatapekoa da; Espainian, %94 dira soldatapekoak. **Nafarroako gazteen artean, autonomoen kopuruak eta ehunekoak beheranzko joera dute.**
- **Behin-behinekotasuna eta partzialtasuna dira gazteen kontratazioaren bi ezaugarri nabarmenenak.** 2023an, gazteen aldi baterako kontratuen proportzioa %76,3koa izan zen Nafarroan (hau da, krisi ekonomikoa hasi zenetik gaur arte urte gehienetan izandako ratioa baino 18 puntu txikiagoa).
- **2023ko soldatapeko gazteen behin-behinekotasunaren tasek ere halako hobekuntza bat islatzen dute**, 2019ko %56ko ratiotik egungo %42,4ra murriztu baitira. Dena den, **genero arrakala dago; izan ere, 2023an, gizonezko gazteen %14k izan zuten lanaldi partzialeko kontratua Nafarroan, eta emakumezkoen %27k.**

EMANTZIPAZIOAREN ERRONKA

- Emantzipazio-tasak 2017tik 2023ra izan duen bilakaerak ia bi puntuko hobekuntza erakusten du Nafarroan.
- Hala ere, **berriki egindako ikerlanetan, beste kategoria bat gehitu zaio azterketari**, emantzipazioaren kontzeptua askoz gehiago fintzen duena: **emantzipazio osoa**. Horri dagokionez, **Nafarroako gazteen (16-34 urte) %30,6k soilik du emantzipazio osoa**.
- Nafarroan, emantzipatzeko batez besteko adina 29,4 urtekoa da emantzipazio osoa lortzeari dagokionez, eta 25,3 urtekoa bizitegi-emantzipazioa lortzeari dagokionez.
- Emantzipatzeko adina nabarmen eta pixkanaka atzeratuz joan da, eta, horrenbestez, zailagoa da fenomeno hori populazio gaztearen kontzeptuarekin berarekin lotzea.
- Sexuaren aldagaiari dagokionez, nabarmen baldintzatzen du bizitegi-emantzipazio osoa. Ikus daitekeenez, **neskek ia 10 puntu gehiago dituzte** (9,7 puntu) **mutilek baino**.
- Jatorriaren aldagaiak ere eragin nabarmena du emantzipazioaren fenomenoan. **Espainiatik kanpo jaio** eta Nafarroan emantzipatuta bizi diren **gazteen ehunekoak 10-18 puntu handiagoa da** Foru Komunitatean bizi diren **nafar jatorriko edo beste autonomia-erkidego batzuetatik etorritako gazteen ehunekoak baino**.
- Lan prekarietatea edo enpleguaren behin-behinekotasuna direla eta, ez dago bermatuta enplegua duten pertsonak emantzipatuta egonen direnik. Izan ere, nabarmendu da **lan egiten duten pertsonen ia erdiak (%48,5) emantzipatu gabe daudela edo bizitegi-emantzipazioa soilik lortu dutela**. Era berean, ziurta daiteke **maila akademiko handiagoa izateak emantzipazioa errazten duela, baina ez duela bermatzen**.

- Lotura estua dago independentzia ekonomikoaren eta emantzipazio osoaren artean; horrenbestez, agerian geratzen da **politika publikoak ezin izan dituztela mende hartu hain erabakigarriak diren bi arloren inertziak, hau da, etxebizitzaren garestitzea, eta lan merkatuaren prekaritatea eta partzialtasuna.**
- **Etxebizitzaren prezioak beherantz estutzen ditu Nafarroako emantzipazioaren ehunekoak.**
- Nafarroan, 2023an, **emantzipatutako %47,4 gazteetatik, %62,3 alokairuan bizi ziren; hala, beste maximo historiko bat ezarri zen 2023an.**
- **Alokairu mota nagusia partekatua da** (bikotekidearekin edota beste pertsona batzuekin); **gauza bera gertatzen da etxea erostean ere.**
- Egungo joeraren arabera, **alokairuko etxebizitzaren eskariak gorantz jarraituko du etorkizunean**, ez soilik gazteen artean, baita 34 urtetik gorakoen artean ere.
- **Azken bi urteetan, gora egin du etxebizitza babestuen eskatzaileen kopuruak, maximo historikoetara iritsi arte**, eta goranzko joera horrek oraingoz ez du agortze zantzurik.
- Nabarmendu behar da ***Emanzipa*** gazte alokairurako laguntza programa **sortu zenetik ia 13.000 laguntza eman direla.**
- Nafarroako Gobernuak etxebizitza arloan egin beharko lukeenari dagokionez, **Nafarroako gazteen iritziz, alokairuen prezioan, laguntzetan edo dirulaguntzetan, eta enplegu arloko neurrietan esku hartzeak izan behar luke lehentasuna.**

AISIA OHITURAK ETA ASTIALDIAREN ERABILERA

- **Gazteen aisia ohituren eta astialdiaren erabileraren** gaiak berezko ezaugarriak ditu, eta horrek **zaildu egiten du luzetarako ikerlan estatistiko sendoa egitea.**
- **Gazteen aisiak bilakaera bizkorra izan du,** eta bizitzako beste esparru batzuetan baino **aldaketa handiagoak** izan ditu.
- **Hona hemen gazteen aisian jokabide aldaketak eragin dituzten zenbait faktore eta inguruabar:** 2008ko krisiaren ondorioak, **lan merkatuaren hondatzea, globalizazioa edo digitalizazioa.**
- Aisiaz eta astialdiaz gozatzeko duten ordu kopuruari dagokionez, Nafarroako gazteek **egunean 4,2 ordu ematen dituzte horretan lanegunetan, eta 8,4 ordu, asteburuetan** (gizonek dute aisialdi ordu gehien, 4,6 ordu, eta emakumeek, berriz, 3,8 ordu).
- Nafarroako gazteek adierazi dute **egunean 3,9 ordu inguru pasatzen dituztela pantailen aurrean lanegunetan,** eta 4 ordu asteburuetan.
- **Asteburuetan, nabarmen jaisten da aisiako orduetan pantailak erabiltzearen** ehunekoak; baliabide analogikoekin emandako orduak, berriz, ugaritu egiten dira.
- **Estatu mailan, aisia ohitura nagusiak pantailen erabilerarekin lotutakoak dira,** txateatzea eta/edo Interneten nabigatzea (%75) eta telesailak eta/edo filmak zuzenean, streaming bidez edo nahieran ikustea (%68,5), esate baterako; dena den, oraindik garrantzia izaten jarraitzen dute tradizionalagoak diren beste ekintza batzuek, hala nola lagunekin egotea (%54,6), kanpoan jatea (%40,8) eta kirola egitea (%40,6).

- **Asiako eta astialdiko gasturako esleitutako asteko zenbatekoa 51,9 € da, batez beste. Kasu honetan ere, genero arrakala nabarmena da, mutilek 6 € inguru gehiago jasotzen baitute astero neskek baino.**
- Teknologien eraginez, gazteek harremanak izateko moduak aldatzen ari dira. **Pantailek argi utzi dute espazio birtuala aisiarako, sozializatorako eta harremanetarako eremua ere badela.**
- Aisia birtuala kudeatzeko estrategietan aurrera egin ahal izateko, **Nafarroako gazteek pantailen aurrean zer egiten duten jakin behar da.** Hori funtsezko tresna izanen da haien erabileran orientatzeko, laguntzeko eta estrategia egokiak eskaintzeko.
- Aisialdiarekin oso lotuta dauden substantzia jakin batzuen kontsumoari dagokionez, **alkohola gehiegi edatea nabarmentzen da, alde handiz, gainera.** Lau lagunetik batek aitortu du azken hilabetean mozkortu arte edan duela alkohola (%24,8), eta %18,6k gauza bera esan du baina azkeneko astean.
- **Erronka handia da kontsumo ohitura arduratsuak ezartzea, gehiegizko alkohol kontsumoaren arriskuak minimizatzeko, mendekotasuneko jokabideak eragin baititzakete; horrez gain, aisia lerro osasungarri bat adostu nahi da Foru Komunitatean.**

ONGIZATEA ETA OSASUNA

- **Zirkulazio istripuak eta suizidioa dira** heriotzaren kausa nagusiak, baita azken 10 urteetan egonkor iraun duten bakarrak ere.
- **Buru osasunaren sustapenean** lan egitea funtsezkoa da suizidioak prebenitzeko.
- **Gazteek** autopertzepzio positiboa dute **beren osasunaz. %79,1ek uste dute osasun egoera ona dutela.** Generoak eta baldintza sozioekonomikoek eragin zuzena dute pertzepzio horretan (autopertzepzioa okerragoa da nesken eta egoera sozioekonomiko okerragoa duten pertsonen kasuan).
- **Gazteek adierazi dute lo gutxiago egiten dutela** nazioarteko osasun erakundeek atsedean osasungarria izateko gomendatutako ordu kopuruak baino: 7,2 ordu lanegunetan (8 ordu lo egitea gomendatzen da).
- Ariketa fisikoa egiteko ohitura ere beste azter eremu interesgarri bat da. **Gazteen laurdenak ez du inolako ariketa fisikorik egiten.**
- **2024an, hauek izan dira kontsumo ohikoenak: tabakoa** (%6,1ek noizean behin, eta %15,7k nahikoa maiz) **eta, batez ere, alkohola** (%69,5ek noizean behin, eta %5,7k nahikoa maiz).
- **Alkohol, tabako eta kalamu kontsumoaren ehunekorik handienak gazteek dituzte** (14-29 urte), eta, gainera, gero eta gazteago hasten dira kontsumitzen.
- Osasun mentalari dagokionez, **12.000 gazte nafarri osasun mentaleko arazoren bat diagnostikatu izan diote** noizbait.
- Gazteek **garrantzi handia ematen diote ongizate emozionalari eta osasun mentalari, gehienek 7 puntuko edo gehiagoko garrantzia**

eman baitiote 10etik. Horri dagokionez, alde handia dago gizonen eta emakumeen artean; zehazki, azken horiek gehiago kezkatzen ditu gaiak.

- Osasun mentalaren fenomenoak autopertzepzioarekin, etorkizuneko itxaropenekin, eta pertsonaren beraren baldintza materialekin du zerikusia. Beste zenbait alderdi, hala nola etxebizitza, lan duina edo elikadura osasungarria, nagusi bihurtzen dira osasun mental egokia izateari dagokionez.
- Azken urteetan, sexu hezkuntzaren orientazioa aldatu da, eta zeharkakotasun handiagoko ikuspegia hartu du, hezkuntza arloko departamentuen parte-hartze oso aktiboarekin. SKOLAE programaren eklosioak sexu harremanen errealitatera ikuspegi eklektikoago batetik hurbiltzea ekarri du Nafarroan, neska-mutilen sozializazio prozesuaren eta haien arteko harreman afektiboen parte den aldetik.
- Tratu onen kulturari eta baiezkoa adierazteari garrantzi handiagoa ematen zaio azken aldian; horregatik, funtsezkotzat jotzen da sexualitatearen esparruan ere balioetan hezteak.
- Pornografia gaztarora iritsi baino lehenagoko adinetan kontsumitzen da maiz. Espainiako gazteen (15-29 urte) %45ek diote 12 eta 15 urte bitartean hasi zirela pornoa kontsumitzen, eta lautik batek dio 12 urte bete aurretik kontsumitu zuela lehen aldiz; are gehiago, %6,5ek adierazi dute 8 urte bete aurretik kontsumitu zutela lehenbizikoz.
- Datuen arabera, mutilen % 72,1ek adierazi dute pornoa kontsumitzen dutela, eta nesken kasuan, berriz, %52,6k adierazi dute gauza bera (mutilek baino 20 puntu gutxiago, gutxi gorabehera).
- Indarkeria oso presente dago kontsumitzen diren material pornografikoetan. Ia lau pertsonatik batek esan du porno bortitza

kontsumitu duela, eta %16,6k adierazi du oso irudi bortitzak edo iraingarriak ikusi dituela.

- **Funtsezkoa da oso adin gazteetan eduki pornografikoak eskuratzen dituzten haurrak babestea**; gainera, gehiegizko kontsumoak mendekotasuneko jokabideak eragin ditzake.

HEZKUNTZA ETA PRESTAKUNTZA

- **Eskolatze-tasa oso handia da Nafarroan.**
- Adin guztietan, **Nafarroako gazteen eskolatze-tasak estatukoak baino askoz handiagoak dira.**
- **Nesken eskolatze-tasa mutilena baino nabarmen handiagoa da.**
- Eskola uzte goiztiarraren tasa %5,8koa izan zen 2022an.
- Eskola uzte goiztiarraren bilakaerari dagokionez, **bilakaerak beheranzko joera nabarmena** erakusten du.
- Eskola uzte goiztiarraren balioak **txikiagoak dira nesken artean** mutilen artean baino.
- **Eskola uzte goiztiarraren tasa askoz ere txikiagoa da Nafarroako gazteen artean** estatuko gazteen guztizkoa baino
- **Lanbide Heziketako ikasketak eta Goi Mailako Ikasketak dituzten herritarren kopuruak gora egin du** azken urteetan.
- **Masterreko ikasketak dituzten biztanleen ehunekoak nabarmen handitu da** azken urteotan.
- **Doktoretza ikasketek ere gora egin dute;** dena den, oraindik ere biztanleen ehuneko oso txiki batek egiten ditu.
- Hezkuntza ez-formala oso garrantzitsua da gazteen garapenerako. Horri dagokionez, **Nafarroako Gazteentzako Jardueren Eskola (NGJE)** funtsezko baliabidea da.

- Baina NGJEk ematen duen prestakuntzaz gain, nabarmentzekoak dira **Aisialdiko Hezkuntza Eskolak** ere.

GENERO BERDINTASUNA

- Gazte gehienek adierazi dute genero desberdintasunak daudela, baina **%62k uste dute desberdintasun horiek txikiak direla edo ez direla existitzen.**
- Desberdintasunaren pertzepzioa **askoz handiagoa da nesken artean mutilen artean baino.**
- **Prestakuntza handiena duten pertsonak dira, neurri handi batean, genero desberdintasunak handiagoak direla uste dutenak.**
- **Emakumeen aurkako indarkeriagatik jarritako salaketen %39,2 30 urtetik beherako emakumeek jarri zituzten.**
- **Sexu indarkeriagatik jarritako salaketen %72 30 urtetik beherako emakumeek jarri zituzten. Deigarria da salaketen %40 18 urtetik beherako emakumeek egin izana.**
- **Beraz, emakumeen aurkako indarkeriak bereziki emakume gazteei eragiten die Nafarroan, batez ere sexu indarkeriarekin lotutako indarkeria kasuei dagokienez.**
- **Ziberindarkeriaren eremuan, emakume askok dio indarkeriazko sexu portaeren biktima direla.**
- **Erantzukidetasunari eta zaintza lanei dagokienez, Nafarroako gazte gehienek (%67,8) uste dute zaintzarekin loturako zereginak guztiz beharrezkoak direla eta gizartean aitortuta egon beharko liratekeela.**
- **Etxeko lanak nork bere gain hartzeari dagokienez, gazteen artean desberdintasuna dago oraindik; hain zuzen ere, emakume gehiagok hartzen dute zeregin horien ardura.**

- Antzeko zerbait gertatzen da **zaintza lanei dagokienez; izan ere, neskek mutilek baino neurri handiagoan hartzen dituzte beren gain zeregin horiek.**

BALIO ZIBIKOAK ETA AKTIBISMOA

- **Politikarako interesa txikia da gazteen artean**, haien %70 inguruk adierazten baitu interes gutxi edo batere interesik ez duela. **Mutilek neskek baino interes handiagoa dute politikan**; izan ere, mutilen %33,1ek adierazi du «nahikoa interes edo interes handia» duela politikan, eta neskei dagokienez, %21,9k adierazi du ideia bera.
- **Gazteek uste dute botere politikoa dutenek ez dituztela beren interesak zaintzen**, eta politikan aritzen direnek beren interes pertsonalari erantzuten dietela; horrek, hain zuzen, **Nafarroako gazteek politikarako atxikimendurik ez izatea dakar**.
- Estatu mailan, datuen bilakaerak erakusten du **polarizazioa areagotu** egin dela (beren burua zentroan kokatzen dutenak ia 20 puntu jaitsi dira 4 urtean); horrez gain, gazteen artean, batez ere mutilen artean, **gero eta gehiagok jotzen dute eskuinera** (2019-2023 aldian, ia 10 puntu igo da), eta **zalantzatien edo iritzia ezkutatzea erabakitzen dutenen kopurua modu jarraituan hazten ari da**.
- Nafarroako gazteen **kezka nagusiei** dagokienez, **ekonomia eta enplegua** eta **etxebizitza** dira nagusi.
- Tolerantziari dagokionez, **gazteak neurrian fidatzen dira besteez** (%34,4k nahikoa konfiantza du, eta %40,8k konfiantza apur bat); horrez gain, **korrelazio positiboa dago jendearengan konfiantza duten gazteen eta gizarte anitzago eta pluralago batean bizitzea aukeratuko luketenen artean** (10 gaztetatik 8k gizarte heterogeneoagoa eta multikulturalagoa aukeratuko luke bizitzeko).
- **Oso pertsona gutxik adierazten dute argi eta garbi xenofoboak diela** (%4 inguruk); **hala ere**, hamarretik bik nahiago du migratzaileen inguruan iritzirik ez eman.

- **Bestalde, migratzaileek estatutik jasotzen dutena baino ekarpen txikiagoa egiten dutela uste duten gazteen balorazioa txikia da (%20).** Ehuneko horiek igoarazten dituzten aldagaiak daude: hori da, hain zuzen, **Erriberaren kasua**, iritzi hori dutenak %30era arte igotzen baitira (Nafarroa osoan %20k du iritzi hori). Hona hemen batez bestekoa baino **ehuneko handiagoak** diren beste **aldagai** batzuk: **gizonak**, beren burua **eskuinekotzat** dutenak eta **maila baxuagoko ikasketak** dituztenak.
- **Sare sozialetako gorroto diskurtsoak** ugaritzeari dagokionez, **gazteen kopuru handi batek ez du jarrerarik hartu tratu bidegabeen aurrean: %17,8k adierazi du inoiz ez dela agertu jarrera horien aurka eta %14,1ek esan du noizbait soilik agertu dela jarrera horien aurka.**
- Asoziazionismoari dagokionez, **globalizazioak eta teknologia berriek gazteen aktibismoan/parte-hartzean duten zeharkako eragina nabarmendu behar da.**
- **Asoziazionismo klasikoari** (gazte elkarteetan parte hartzeari) dagokionez, **beheranzko joera etengabea eta bizia izaten ari da** Nafarroako gazteen artean.
- **Nafarroako gazteak oso kezkatuta daude ingurumenarekin** (gazte gehienek 10etik 7 puntu edo gehiago eman dituzte beren kezka adierazteko).
- Hala ere, **badira usteekin bat ez datozen jarrerak ere.** Kasu berezianak dira **kontsumo ohiturei dagokiena edo ingurumen ekintzetan zuzenean parte hartzeari (aktibismo klasikoari) dagokiona.**
- Gazteen aktibismo klimatikoari dagokionez, zenbait fenomenok, hala nola ***Fridays for future* deritzonak**, hipotesi bat mahaigaineratu dute maila globalean, zeinak baitio, **agian, kontua ez dela gazteriak aktibismoa baztertu duela, baizik eta egiteko beste modu batzuk dituela.**

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: DIAGNOSTIKOAREN GRAFIKOAK ETA TAULAK

GRAFIKOAK

1. GRAFIKOA GAZTERIAREN ARLOKO DIAGNOSTIKOAK EDO PLANAK EGITEKO DIRULAGUNTZA JASO DUTEN UDALERRIAK.
2. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN BILAKAERA (GUZTIZKOAK)
3. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN BATEZ BESTEKO HAZKUNDE-TASEN BILAKAERA
4. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN BATEZ BESTEKO HAZKUNDE-TASEN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA
5. GRAFIKOA GAZTEEN (14-30 URTE) PISUA BIZTANLERIA OSOAREKIKO. 2013-2022.
6. GRAFIKOA GAZTEEN BANAKETA NAFARROAKO EREMUEN ARABERA
7. GRAFIKOA 7. GRAFIKOA: GAZTEEN BANAKETA NAFARROAKO EREMUEN ARABERA 2013-2023

8. GRAFIKOA SEXUAREN ARABERA. 2013-2022.
10. GRAFIKOA GAZTE ATZERRITARREN BILAKAERA 2013-2022.
11. GRAFIKOA ATZERRIAN JAIOTAKO GAZTEEK POPULAZIOAN DUTEN PISUAREN BILAKAERA. 2013-2022.
12. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN BAJAK, BIZILEKUZ ALDATZEAGATIK.
13. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN BAJAK, BIZILEKUZ ALDATZEAGATIK. NAZIONALITATEAREN ARABERA (%)
14. GRAFIKOA ATZERRIAN BIZI DIREN NAFAR GAZTEAK (%)
15. GRAFIKOA LANERAKO ADINEAN DAUDEN NAFARROAKO GAZTEEN BILAKAERA (2007-2023)
16. GRAFIKOA LANERAKO ADINEAN DAUDEN NAFARROAKO GAZTEEN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA (2007-2023)
17. GRAFIKOA JARDUERA-TASAREN BILAKAERA (2007-2023)
18. GRAFIKOA GAZTEEN JARDUERA-TASAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (2007-2023)
19. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTE AKTIBOEN BILAKAERA, OKUPAZIOAREN ARABERA (2016-2023)

GRAFIKOAK

20. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA (2007-2023)
21. GRAFIKOA NAFARROAKO GAZTEEN LANGABEZIA-TASAREN BILAKAERA, ADIN TALDEEN ARABERA (2007-2023)
22. GRAFIKOA LANGABEZIA ETA OKUPAZIOA, GAZTE AKTIBOEN IKASKETA MAILAREN ARABERA (2007-2023)
23. GRAFIKOA BIZITEGI-EMANTZIPAZIO «OSOAREN» TASAREN BILAKAERA. 2017-2023.
24. GRAFIKOA BIZITEGI-EMANTZIPAZIO «OSOAREN» TASAREN BILAKAERA. 2023
25. GRAFIKOA EMANTZIPATZEKO BATEZ BESTEKO ADINA, METODOLOGIEN ARABERA. 2023
26. GRAFIKOA BIZITEGI-EMANTZIPAZIO «OSOAREN» TASAREN BILAKAERA, SEXUAREN ARABERA. 2023.
27. GRAFIKOA BIZITEGI-EMANTZIPAZIOAREN TASA, EMANTZIPAZIO MOTEN ETA SEXUAREN ARABERA. 2023
28. GRAFIKOA EMANTZIPAZIO-TASA OSOAREN BILAKAERA, JAIOTERRIAREN ARABERA
29. GRAFIKOA BIZITEGI-EMANTZIPAZIOAREN TASA, EMANTZIPAZIO MOTEN ETA JAIOTERRIAREN ARABERA. 2023
30. GRAFIKOA ETXEBIZITZAREN EDUKITZA-ERREGIMENA. 2023
31. GRAFIKOA ALOKAIRUKO ERREGIMENEAN BIZITZEKO DENBORA AURREIKUSPENAK 2021-2023
32. GRAFIKOA EMANZIPA LAGUNTZAK 35 URTETIK BEHERAKOENTZAT (2019-2023).
33. GRAFIKOA EMANTZIPAZIOA ERRAZTEKO NAFARROAKO GOBERNUARI ESKATUTAKO NEURRIAK. 2023
34. GRAFIKOA GAZTEEN HERIOTZA-TASA ESPEZIFIKOA
35. GRAFIKOA ZIRKULAZIO ISTRIPUEN ETA SUIZIDIOEN ONDORIOZ HILDAKO NAFARROAKO GAZTEAK (‰)
36. GRAFIKOA OSASUNAREN BALORAZIOA: 0-100 (%)
37. GRAFIKOA JOKABIDE ETA OHITURA OSASUNGARRIEN GARAPENAREN BALORAZIOA
38. GRAFIKOA OHITURA OSASUNGARRIEN MAIZTASUNA
39. GRAFIKOA JOKABIDE ARRISKUTSUEN MAIZTASUNA (KONTSUMOAK SUBSTANTZIEKIN ETA SUBSTANTZIARIK GABE)
40. GRAFIKOA ONGIZATE EMOZIONALAREN ETA OSASUN MENTALAREN INGURUKO KEZKA
41. GRAFIKOA MAITASUN HARREMANEN GOGOBEETETASUN MAILA (GOGOBEETETASUN HANDIA EDO OSO HANDIA)

GRAFIKOAK

42. GRAFIKOA SEXUA BIZITZEKO MODUAREKIKO GOGOBEKETASUN MAILA (GOGOBEKETASUN HANDIA EDO OSO HANDIA)
43. GRAFIKOA ESKOLATZE-TASA GARBIA (%) 2021-2022 IKASTURTEA
44. GRAFIKOA ESKOLA UZTE GOIZTIARRA (%)
45. GRAFIKOA NGJE-N EGINDAKO IKASTARO MOTAK
46. GRAFIKOA GAUR EGUN GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEAN DAUDEN DESBERDINTASUNEN KALIFIKAZIOA.
47. GRAFIKOA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAGATIKO SALAKETEN KOPURUA NAFARROAN.
48. GRAFIKOA EMAKUMEEN AURKAKO SEXU INDARKERIAGATIKO SALAKETEN KOPURUA NAFARROAN.
49. GRAFIKOA ETXEKO LANAK NORK BERE GAIN HARTZEAREN MAILA
50. GRAFIKOA ZAINZA LANAK NORK BERE GAIN HARTZEAREN MAILA
51. GRAFIKOA BALIABIDE BAKOITZA ERABILTZEN DUTEN GAZTE NAFARREN TASA
52. GRAFIKOA ZER EGITEN DUTEN SARE SOZIALETAN INFORMAZIOAREN AURREAN
53. GRAFIKOA KANAL BAKOITZARI EMANDAKO SINESGARRITASUN MAILA (1-10)
54. GRAFIKOA ZER SARE SOZIAL ERABILTZEN DITUZTEN EGUNERO
55. GRAFIKOA POLITIKARAKO INTERES MAILA
56. GRAFIKOA ESPAINIAKO GAZTEEN AUTOKOKAPEN IDEOLOGIKOA. 2019-2023
57. GRAFIKOA KEZKA SOZIOEKONOMIKAK
58. GRAFIKOA ZURE USTEZ, ZER JASOTZEN DUTE ETORKINEK ESTATUTIK?
59. GRAFIKOA GAZTE ELKARTEETAKO ASOZIAZIONISMOAREN MAILA NAFARROAN
60. GRAFIKOA INGURUMENAREKIKO KEZKAREN MAILA (0-10)
61. GRAFIKOA INGURUMENAREKIN LOTUTA NORBERAK EGINDAKO EKINTZAK
62. GRAFIKOA INGURUMEN OSAGAIAREN ERAGINA EROSKETA JARRERAN

TAULAK

1. TAULA GAZTEEN BANAKETA ADIN TARTEEN ARABERA, 2017-2023
2. TAULA NAFARROAKO GAZTEEN SEXU-RATIOA, 2017-2023
3. TAULA NAFARROAKO GAZTEAK (15-29 URTEKOAK), ATZERRIAN JAIOTAKOAK ETA NAFARROAN BERTAN JAIOTAKOAK (GUZTIZKOAK). 2017-2022
4. TAULA ATZERRIAN JAIOTAKO GAZTEAK (15-29) ETA ATZERRIAN JAIOTAKO BIZTANLERIA OSOA. NAFARROA (%). 2017-2022
5. TAULA GAZTEEN BANAKETA, ADINAREN ETA BIZITEGI-EGOERAREN ARABERA. 2023
6. TAULA BIZTANLERIA EMANTZIPATUA, EMANTZIPAZIO MOTAREN ETA LAN EGOERAREN ARABERA. 2023
7. TAULA BIZTANLERIA EMANTZIPATUA, EMANTZIPAZIO MOTAREN ETA IKASKETA MAILAREN ARABERA. 2023
8. TAULA EMANTZIPATZEKO ARRAZOIAK, PROFIL SOZIODEMOGRAFIKOAREN ARABERA. 2023
9. TAULA BIZITEGI-EMANTZIPAZIOA LORTU DUTEN GAZTEEN ETXEBIZITZAREN EDUKITZA-ERREGIMENA. 2017-2023
10. TAULA EDUKITZA-ERREGIMENA, ALDAGAI ESANGURATSUEN ARABERA. 2023
11. TAULA ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKATZAILEEN ERROLDA, ADINAREN ARABERA. 2023KO IRAILA
12. TAULA ETXEBIZITZA BABESTUAREN ESKATZAILEEN ERROLDAN AGERI DIREN GAZTE ERROLDATUAK. 2023KO IRAILA
13. TAULA KONTRATUAK ETA BATEZ BESTEKO ALOKAIKARIA, ESKUALDEKA
14. TAULA GAZTEEK LAGUNTZA PUBLIKOEI BURUZ DUTEN EZAGUTZA. 2023
15. TAULA GAZTEEN BANAKETA, ADINAREN ETA BIZITEGI-EGOERAREN ARABERA. 2023
16. TAULA NAFARROAKO GAZTEEN HERIOTZAREN KAUSAK (GUZTIZKOAK)
18. TAULA ESKOLATZE-TASA GARBIA
19. TAULA ESKOLA UZTE GOIZTIARRA, SEXUAREN ARABERA
20. TAULA UNIBERTSITATE IKASKETA PRESENTZIALAK EGITEN ARI DIREN GAZTEEN EHUNEKOA, SEXUAREN ARABERA (18-30 URTE)
21. TAULA PRESTAKUNTZA MAILA
22. TAULA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK SALAKETAK JARRI ZITUZTEN EMAKUMEEN ADINA. 2023
23. TAULA INTERNETEN SEXU INDARKERIAZKO EGOEREN BIKTIMA IZAN DIREN EMAKUMEAK

2. ERANSKINA: ERABILITAKO DOKUMENTUAK ETA ARGITALPENAK

Fad Juventud Fundazioa	DESDE EL LADO OSCURO DE LOS HÁBITOS TECNOLÓGICOS. RIESGOS ASOCIADOS A LOS USOS JUVENILES DE LAS TIC	2024
Nafarroako Gazteriaren Institutua	GAZTERIA ETA ZAINKETA. NAFARROA	2024
Nafarroako Gazteriaren Institutua	URTEKARIA	2023
Fad Juventud Fundazioa	BARÓMETRO JUVENTUD SALUD Y BIENESTAR	2023
GAD3	EL IMPACTO DE LA IA EN LA EDUCACIÓN EN ESPAÑA. FAMILIAS Y ESCUELAS ANTE LA INTELIGENCIA ARTIFICIAL	2023
Nafarroako Gazteriaren Institutua	ENCUESTA DE EMANCIPACIÓN DE LA POBLACIÓN JOVEN EN LA COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA	2023
Nafarroako Gazteriaren Institutua	EVALUACIÓN III PLAN DE JUVENTUD	2023
Nafarroako Berdintasunerako Institutua	INFORME SOBRE DENUNCIAS POLICIALES POR VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES	2023
Nafarroako Gazteriaren Institutua	INFORME SOBRE LAS PRINCIPALES BRECHAS DE GÉNERO EN LA JUVENTUD NAVARRA	2023
Fad Juventud Fundazioa	JÓVENES Y POLÍTICAS: DEL 15M A LA ACTUALIDAD POLARIZADA	2023
Nafarroako Gazteriaren Institutua	GAZTERIA ETA BIZIKIDETZA. NAFARROA	2023
Fad Juventud Fundazioa	JUVENTUD Y PORNOGRAFÍA EN LA ERA DIGITAL. CONSUMO PERCEPCIÓN Y EFECTOS	2023
Fad Juventud Fundazioa	LA EMERGENCIA DE LA NUEVA GENERACIÓN ECOLOGISTA JUVENIL EN ESPAÑA DESDE 2019	2023
Ikerketa Soziologikoen Zentroa (CIS).	PERCEPCIONES SOBRE LA IGUALDAD ENTRE HOMBRES Y MUJERES Y ESTEREOTIPOS DE GÉNERO (ESTUDIO 3428)	2023
Fad Juventud Fundazioa	VIDEOJUEGOS Y JÓVENES. LUGARES, EXPERIENCIAS Y TENSIONES	2023
Nafarroako Gazteriaren Institutua	NAFARROAKO GAZTEEN 2022KO INKESTA	2022

Nafarroako Gazteriaren Institutua	INFORME DE RESULTADOS DE INDICADORES DE LA JUVENTUD DE NAVARRA	2022
Nafarroako Gazteriaren Institutua	GAZTEAK ETA LANDA INGURUNEA NAFARROA 2023	2022
Nafarroako Gazteriaren Institutua	PANEL DE INDICADORES DE LA JUVENTUD DE NAVARRA	2022
Nafarroako Gazteriaren Institutua	GAZTERIA, OSASUN MENTALA ETA ONGIZATE EMOZIONALA. NAFARROA	2021
Nafarroako Gazteriaren Institutua	DIAGNÓSTICO DE LA JUVENTUD EN NAVARRA	2020
Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa	ESTRATEGIA NACIONAL DE INTELIGENCIA ARTIFICIAL	2020

DIAGNÓSTICO DE LA POBLACIÓN JOVEN NAVARRA

2024

